



## GOI-GOIAN SEGITZEN DU OIHANA KORTAZAR MENDI LASTERKARI BETERANOAK

Espainiako txapeldun izan berri,  
Munduko Txapelketarako prestatzea  
da orain helburua / 38

Oihana Kortazar mendi lasterkari  
elgetarra, Arrasateko Santa  
Barbara parkean, astelehenean.

XABIER URZELAI

**Intzidentzia-tasak  
behera egin du, baina  
Gipuzkoakoaren  
gainetik da oraindik  
ere eskualdea** / 2

**Kukubaso elkarteak  
sortu dute Bergaran,  
"ia galduta" dagoen  
bertako basoa  
berreskuratzeko** / 30



**Erreferendumaren  
aldeko sinadurak  
batzeko ekitaldiak  
egingo ditu Gure  
Eskuk maiatzan** / 5

**Urte askoan gordeta  
izandako melodiak  
argitara eman ditu  
Iban Yaniz oñatiarrak,  
hamar abestitan** / 41



**AUTOEN GEHIGARRIA** / 23

### SINADURAK

|  |                          |
|--|--------------------------|
|  | OIER<br>ZUMARRAGA / 16   |
|  | ONEKA<br>ANDUAGA / 34    |
|  | ANDER<br>ETXEBERRIA / 48 |

2 mó  
progresibo  
*erreflexuen aurkako lenteekin*  
**229€**  
+  
ukipen-lenteak opari  
Kontakutatu optikan lempainaren erabazgaririk.



Otalora Lizentziaduna, 18  
Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**


Ibargarai, 16  
Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

www.multiópticas.com

**MULTIÓPTICAS**  
50 urte zuen ikusmena zaintzen

**Intzidentzia-tasaren eboluzioa**

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



# Egoerak hobera egin duen arren, arduraz jokatzeko dei egin dute

Alarma egoera eta neurri murriztaileak indargabetzea kezkaz hartu dute osasun langileek. Behera egin dute bailaran kasu positibo berriek; 110 izan dira azken astean. 50 eta 59 urte bitartekoei Janssen txertoa jartzea onartu dute

**Maialen Santos** ARRASATE

"Egun gutxi barru igarri liteke kasuen gorakada. Aste Santu ostean gertatu zen berdina gerta liteke orain ere", ohartarazi dio GOIENARI Miren Basaras mikrobiologoak. Izan ere, "kezkaz" hartu du alarma egoeraren eta horri lotutako neurrien deuseztapena, eta, ildo horretatik, zapatutik domekarako gauean izandako jende pilaketak ere kezkagarriak iruditzen zaizkio. Edozein modutan, azaldu du "pozgarria" dela txertaketa-kanpaina aurrera doala ikustea eta horrek egoeraren "kontrola hartzea" eragin dezakeela.

Ildo beretik mintzatu da Gozone Sagardui osasun sailburua: "Alarma-egoera bertan behera geratzeko goizegi da". Gehitu du "zuhurtzia" izaten jarraitzea ezinbestekoa dela: "Ezin dugu

jokatu pandemiarik egongo ez balitz bezala".

Domeka gauerdian alarma egoera eta horri lotutako neurri murriztaileak bertan behera geratu izanaren ondotik mintzatu da Basaras. Hain zuzen, gogoratu behar da domeka ezkerro itxiera perimetralik ez dagoela –EAE barruan zein Erkidegotik kanpo mugi daiteke–; ez eta etxeratze-agindurik edota pertsonen bilkurei dagokien mugarik ere –salbuespenekin–.

Alarma egoerarik gabeko lehen gauean sei aktuazio egin zituen Ertzaintzak Debagoienean, Bergarako ertzain-etxetik azaldu dutenez. Arrasaten eta Bergaran borroka banarengatik abisua jaso zuten ertzainek: "Baina tokira gerturatzean ez genuen inor topatu". Eskoriatzan, hamar bat lagun arteko botila-festa

antzean zuten. Oñatin, bestetik, hamabost lagun inguru "gehiegizko zarata" ateratzen ari zirelako jaso zuen abisua Ertzaintzak, nahiz eta botila-festarik ez zuten antzeman. "Aretxabaletatik ere jaso genuen abisu bat; kale zurruta egiten ari zirelakoan, gehiegizko zarata ateratzen", esan dute.

**POSITIBO BERRIAK**

**BEHERA EGIN DUTE POSITIBO BERRIEK; AZKEN EGUNETAN 110 IZAN DIRA**

Azken zazpi egunetan, joan den egunetik eguazten honetara arte, 110 debagoiendar kutsatu ditu COVID-19 gaitzak, aurreko astean baino 74 gutxiago –184 izan ziren–. Beraz, bigarren as-

**Positibo kasuak eta intzidentzia**

|                | Positiboak<br>aste<br>honetan | Positiboak<br>aurreko<br>asteen | Positibo<br>metatuak | Positiboak<br>1.000<br>biztanleko | Intzidentzia-tasa<br>14 eguneko,<br>100.000 biztanleko |
|----------------|-------------------------------|---------------------------------|----------------------|-----------------------------------|--------------------------------------------------------|
| Arrasate       | 34                            | 43                              | 3.017                | 136,63                            | 348,70                                                 |
| Oñati          | 31                            | 51                              | 1.357                | 118,33                            | 715,03                                                 |
| Aretxabaleta   | 17                            | 26                              | 769                  | 108,62                            | 607,34                                                 |
| Bergara        | 16                            | 33                              | 1.554                | 103,35                            | 325,88                                                 |
| Eskoriatza     | 9                             | 21                              | 393                  | 95,78                             | 731,17                                                 |
| Aramaio        | 3                             | 3                               | 158                  | 106,76                            | 472,97                                                 |
| Antzuola       | 0                             | 5                               | 231                  | 106,01                            | 229,46                                                 |
| Elgeta         | 0                             | 2                               | 64                   | 56,59                             | 176,83                                                 |
| Gatzaga        | 0                             | 0                               | 9                    | 36,00                             | 0                                                      |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>110</b>                    | <b>184</b>                      | <b>7.552</b>         | <b>116,53</b>                     | <b>455,18</b>                                          |

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

tez jarraian kutsatu berriek behera egin dute. Nolanahi ere, orain arte 7.552 lagun kutsatu ditu birusak –Osasun Sailak datuak eguneratu eta doikuntzak egin ditu–. Hildakoak 167 dira, guztira; azken egunetan pertsona bat hil da Bergaran.

Herrika, Arrasaten 34 kasu baieztatu dituzte, Oñatin 31, Aretxabaletan 17, Bergaran 16, Eskoriatzan 9, Aramaion 3 eta gainontzekoetan bat ere ez.

Osasun Sailaren datuen arabera, 0 eta 18 urte bitarteko herriarrien artean gertatzen dira kutsatze gehien. Horri lotuta, EAEn dauden 17.554 ikasgelatik 79 zeuden atzo itxita (%0,45), 52 ikastetxetan. Aipatzekoa da, halere, azken egunetan behera egin duela itxitako ikasgelen kopuruak; izan ere, apirilaren 30ean 96 ikastetxetako 154 ikasgela zeuden itxita; guztien %1,04.

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, hamaika ziren atzo koronabirusak jota ospitalerata zeuden lagunak. EAeko ospitaleetan atzo 153 pertsona zeuden ZIUetan eta 336 plantan.

**INTZIDENTZIA-TASAREN EBOLUZIOA NABARMEN EGIN DU BEHERA ESKUALDEKO INTZIDENTZIA-TASAK; 455EKO ZEN ATZO**

Debagoieneko herrietako intzidentzia-tasek beherantzko joera hartu dute, eta atzo, Eskoriatza

zen azken hamalau egunetako tasa altuena zuen herria (731,17). Edozelan ere, domeka ezkerro intzidentzia-tasak ez du eraginik neurri murriztaileetan.

Debagoieneko intzidentzia-tasak ere behera egin du, horrenbestez, eta nabarmena izan da jaitsiera; aurreko astean 700ndik gora zegoen eta atzo 455ean kokatu zen. EAEko lurraldeetan ere behera egin du tasak, eta azpimarratzekoa da Erkidegokoa 400ndik behera kokatu zela eguaztenean. Nafarroan ere jaitsi egin da tasa, nahiz eta gainontzeko lurraldeetan baino zerbait mantsoago.

**TXERTAKETA-KANPAINA**

**50 ETA 59 URTE ARTEKOEI ERE JARRIKO DIETE JANSSEN TXERTOAK**

Espainiako Osasun Publikoko Batzordeak onartu egin du Johnson & Johnson konpainiaren txertoa 50 eta 59 urte artekoei jartzea. Edozein modutan, batzordeak asteon adierazi du 60 urtetik gorako txertaketan aurrera egiteko baliatuko dutela lehenbizi Janssen txertoa, eta horren ostean ekingo diote 50 urtetik gorakoak harekin txertatzeari. Horretaz gain, azpimarratu dute txerto hori dosi bakarrekola izatea abantaila dela, gizarteko beste talde batzuen txertaketan aurrera egitea ahal-

bidetuko duelako horrek. Konpainia horren dosiak jarriko dizkiete, adibidez, gaitz psikologikoak edota autismoa dutenei, hain zuzen ere.

Horretaz gain, Osakidetza joan den egubakoitzean hasi zen 59 urtetik beherako pertsonen "puntualki" deitzen, "horretarako nahikoa dosi badaudelako". Pixkanaka joango dira 50 eta 59 urte arteko herritarrei deitzen, gainerako kolektiboen txertaketa aurrera joan ahalaz bat.

Txertaketa-kanpainaren eboluzioaren harira, Gotzone Sagardui Osasun sailburuak asteon esan du espero baino txerto gutxiago jasotzen ari dela Osakidetza, eta horrek "txertaketa-kanpaina moteldu egin dezake". Aste honetako Gobernu Kontseiluaren ondoren emandako datuen arabera, astelehenean Pfizer txertoaren 91.260 dosi jaso zituen Osakidetza, eta Janssen ekoizlearen beste 6.500 dosi espero dituzte asteon; hasieran aurreikusitakoak baino gutxiago dira horiek, Sagarduiaren arabera. AstraZenecaren beste 14.800 txerto ere jaso behar dituzte, gainera.

Bestetik, AstraZeneca txertoaren bigarren dosiari buruzko erabakia beste aste batean atzeratu dute; alegia, Osasun Publikoaren Batzordeak datorren astean erabakiko du lehendabiziko dosia hartu zuten 60 urtetik beherakoei bigarrena emango dieten ala ez. Lurraldeen Arteko Osasun Kontseiluaren ostean, Carolina Darias Espainiako ministroak azaldu du txerto ezberdinak konbinatzeko egin diren entsegu klinikoan emaitzen arabera hartuko dutela erabakia. Ikerketa hori, besteak beste, Gurtzetako Ospitalean egiten ari dira, eta aurreikusten dute lehen emaitzak maiatz erdialdean jakingo direla.

#### ADINEKOEN EGOITZAK

### EGUNERO IRTETEKO BAIMENA IZANGO DUTE EGOILIARREK, ASTELEHENETIK

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek foru-agindu berriak adostu dituzte, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eskutik, eta zentro soziosa-

nitarioetan COVID-19aren zaintza eta kontrolerako protokoloa eguneratu dute. Hala, mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako hiru lurraldeetako egoitza-zentroetako bisiten eta irteeren esparru berritua ezarri da. Esparru horrek bermatuko du egoiliarrek senitartekoei eta hurbilekoekin egunero aurrez aurreko harremana izan dezaten ahalbidetzea. Foru-agindu berriak datorren astelehenean, maiatza-

ren 17an, sartuko dira indarrean, hain zuzen ere.

Era horretan, erabiltzaileak egunero irten ahal izango dira zentroetik, nahi izanez gero, eta irteerak lehenetsiko dira bisiten gainetik. Segurtasun-neurriak zorroztu beharko dira une oro, eta zentroak erabakiko du zer ordutegi bete behar den sarreren eta irteeren kontrola ezartzeko.

Halaber, ibilaldi terapeutikoak lehenetsiko dira, eta espazio itxi eta jendetsuak saihestu beharko dira edozein kasutan.

Aldiz, egoiliarrek zentroan bertan hartu nahi baditu senitartekoak edo hurbilekoak, astean gutxienez hiru bisita egin ahal izango dituzte.

Bizikidetza-burbuilei eusteko, bisitak horretarako berariaz egokitutako guneetan egingo dira, bestetik, eta bi pertsona sartu ahal izango dira aldi berean. Kasu horretan ere, zentroak berak erabakiko ditu horretarako ordutegiak, eta, hain zuzen ere, gehienez ordu bate iraungo dute bisitek.

## "Jendea sentiberatzea garrantzitsua da, edonori toka dakioke"

AITOR MONTES MEDIKUA


Osasun Sailaren arabera, azken asteetan birusak gehien kutsatzen dituen artean daude haurrak eta gazteak.

#### Zein da horren arrazoia?

Alde batetik, birusaren aldaera britainiarra gure artean dagoelako izan daiteke; izan ere, oso kutsakorra dela badakigu. Bestetik, gazteak oso sozialak dira; asko harremantzen dira, eta, beraz, gertatzen dira kutsatzeak.

#### Ikastetxe askotan ikasgelak itxita daude azken asteetan...

Ikasgeletan ere transmititzen da birusa. Leku itxietan gertatzen dira kutsatze gehien, eta, hori gutxi balitz, ikasleen elkarren arteko hurbileko kontaktuak izaten dira. Eskoletan saiatzen dira, esaterako, burbuila-taldeak sortzen, baina, hala eta guztiz ere, asko dira kontaktuak.




A.M.

#### Txio batean zenioen duela gutxi 18 urteko gazte bat eroan dutela ospitalera. Gazteak ere ari dira erietxera iristen, beraz?

Bai; larrialdietako medikuek mugitu zuten paziente bat Arrasatetik Txagorritxura, intubatuta. Laguntza mekanikoa behar izateak esan gura du benetan larri zegoela. Jendea sentiberatzea garrantzitsua da, eta jakitea edonori tokatu dakiokeela. Neurriak hartu behar dira.



### Gure ikasleen ahotan



## "Komunikazioa ez da soilik kamera bat erabiltzen jakitea, mundua ulertu eta aztertze gaitasuna ere bada"

Xabi Vallina (Arrasate) Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

**Definitu zeure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu zaletasunik?**

Komunikazioaren lan esparruan profesionalki garatzeko hautua egin nuen 2017an, eta horretan nabil. Psikologian lizentziaduna naiz eta Garapenerako Lankidetzan masterra dut. Komunikazioa zaletasun dudana hau lanbide bilakatu dut azken urteetan.

**Zergatik aukeratu zenuen ikus-entzunezko Komunikazioa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Hainbat aukera daude komunikazioan formatzeko Euskal Herrian, baina unibertsitate horiek ez dute Mondragon Unibertsitatearen metodologia erabiltzen. Gainera, ondo ekipatutako instalazioak ditu eta aukera ematen digu horiek une oro erabiltzeko. Metodologiaz eta

instalazioez gain, euskararen aldeko apustua eta gertutasuna ere kontuan hartu ditut.

**Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Oso positiboa izan da. Komunikazioa ez da soilik kamera bat edo edizio programa bat erabiltzen jakitea, mundua ulertu eta aztertze gaitasuna ere bada, eta guztia komunikazio irizpideen arabera egitea. Kompetentzia horiek guztiak eskuratu ditudala esango nuke. **Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Oso aberatsa da. Une oro lan munduko dinamiketan kokatzen zaitu, diziplina ezberdinak landuaz. Moduluen eta kompetentzien metodologiak, hain zuzen ere, bermatzen du komunikazio proiektuen tempus eta

prozesuak ezagutu eta ulertzea. Komunikatzaile oso edo integral bezala prestatzen zara.

**Unibertsitatetik zer gustatzen zaizu gehien?**

Lan mundura bideratuta dagoela. Modulu guztietan izan dira lan mundua ulertu eta gerturatu ahal izateko aukerak, baita unibertsitateak eskaintzen dituen curriculumaz kanpoko praktikekin. Gainera, askotan jaso izan ditugu mundu profesionalen eskola, hitzaldi eta aholkuak.

**Etorkizunari dagokionez, zeintzuk dira zure asmoak?**


Komunikazio korporatiboan espezializatzea gustatuko litzaidake, eta, horretarako, master bat egingo dut. Dena den, dagoeneko komunikazioaren alorrean lanean ari naiz eta horretan segitu nahiko nuke, lana eta ikasketak uztartuz.



# Katalanen bisita izan dute, eraldaketan eta berrikuntzan sakontzeko

Kataluniako 24 ikastetxek osatzen duten Escoles FEDAC fundazioko ordezkariak Mondragon Unibertsitateko Hezkuntza Zientzien Fakultatean izan ziren joan den astean. Hezkuntza zentroen eraldaketa eta berrikuntza prozesuak lantzen ari dira

[illegible]

# ULMA Hormigon Polimero S.Coop. - Oñati

---

## OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

COVID19a dela eta dagoen osasun egoera kontuan hartuta, enpresen kaskinamari eta energia sektoreari laguntzeko premiazko neurriez gain zerbitzu zerga osuari ere arretaz ditzan azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege Dekretuaren 3.2 artikuluko ezarrien oinarriaren arabera, ULMA Hormigon Polimero S.Coop.-k Kontseilu Errektoreak ("Kooperatiba"), 2021eko otsailaren 16ko bilarian, erabaki du Ohiko Batzar Nagusia deitzea eta bide telematikoz egitea.

**Eguna:** 2021eko maiatzaren 19a  
**Ordurua:** 15:00etan lehen deialdia eta 15:30ean bigarrena  
**Lekua:** Bideokonferentzia sistema bidez

### GAI ZERRENDA

- AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BI BAZKIDE IZENEGATZA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
- 2020KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTzea, ETA ONARTzea, HALA BADAGOKIO, ETA 2021EKO GESTIO PLANA BERRESTEA HALA BADAGOKIO
- ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
- 2020KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTzea, ETA ONARTzea, HALA BADAGOKIO
  - 2020ko urteko banakako kontuak aztertzea, eta, hala badagokio, onartzea
  - 2020ko urteko kontu bateratuak aztertzea, eta, hala badagokio, onartzea
- AUDITOREA IZENDATzea EDO BERRAUTATzea
- KAPITALAREN ORDAINKETA, 2020KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
- 2020KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATzea
  - 2020ko ekitaldiko emaitzak banatzea
  - Borondaterako Erreserba Fondeak birbanatzea
- ESTATUTU SOZIALAK ONARTzea, HALA BADAGOKIO, ETA HAIEN TESTU BATEGINA ONARTzea, EUSKADIKO KOOPERATIBEI BURUZKO ABENDUAREN 20KO 11/2019 LEGERA EGOKITZEKO ETA ESTATUTUEN TESTUA ARLAGO JARTZEKO
- PROIEKTU TRAKTOREEN FONDOA DIBISIOAN KUDEATZEKO AUKERA
- JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATzea (IPDK)
  - 2020an IPDKetatik egindako erabilerrazi buruzko deskargia
  - 2021ean IPDK ko zerbituekiko aplikatzeko proposamena
  - ULMAn 2021eko jarduerak sozialaren aldean ahalizapen
- BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
- ZAINNTZA BATZORDEKO KIDAEK BERRITzea
- HURRENGO BATZARRA EGITEKO LERKUA
- AHALMENAK ESKUORDETzea
- GALDE-ESKEAK

**OHARRAK:** Bazkidetegi gogoratzen da Cooperatibaren egotian edukiagutik ditzatela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuan kanpo desakartzak egindako jardueta txostena, Batze Nagusiaren deialdiarekin zehar sartu ahal izan dituzten. Halaber, bazkide guztiak jakinarazten da Cooperatibaren egotian ditzatela edukiagutik Estatubatuen proposatutako aldatutako txosten osoa eta aldatutako txosten justifikazio txostena, eta horietatik denak eman egin behar direla edo baldinola ere desadieratu. Horien gain, bazkideei jakinarazten da kooperatibaren egotian emandako edukiagutik ditzatela "Kalitatea eta Garapen Finkotasun Egokiak" - Txosten nagusia eta Ponente Traktoreen Fondo berri batzuetara" txostena, 2021ko MONTSERGONEN Kongresuaren informazioa. Baldintza, bazkideei jakinarazten da Cooperatibo Kontseilu Errektoreak konklusioak haragarri ditzatela deialdi honen inguruan gisa, non baldintza aldatutako, sarritan eta baldintza gehiago erabakitzen diren Ohiko Batzar Nagusia berriz. Konklusioak hiri kooperatibaren egotian dago edukiagutik bazkideentzat.

**LEGE OHARRAK:** Kooperatibak eskubidea dauka botuari eta botatariek, botatzeriek, boto emateak, boto kentzeki eta parte hartzeak mekanismo elektronikoak ere aldatzea, etorki eta erantzuteko edo ezkontearekin erabakitzeko, arazo teknikoak edo segurtasunekoak hain garrantziak diren kasuetan ditzaten. Kooperatibak ez du erantzulezkoa izango gaurkotzeak, sarrerengatik, itxerengatik, itxerengatik, kontuentzarako akatsak izateagatik edo beste borondateariek erabakitzen diren eta diti buruzko botatzeriek, botatzeriek, ordezkatzeak, parte hartzeak eta botoa ditzatela elektronikoak bidez emateko sistemak erabiltzea inguruko datu atzerako probakengatik.

**KONTSEILU ERREKTOREA**  
*Oñati, 2021eko maiatzaren 16a*

Huheziko irakasle Ainara Artetxek azpimarratu zuen eurek ere ikasi dutela katalanengandik: "Buru-belarri ari dira lanean eta hausnarketa interesgarriak egin dituzte. Jarrera horretatik badaukagu zer ikasi".

## "BURU-BELARRI ARI DIRA LANEAN, ETA HAUSNARKETA INTERESGARRIAK EGIN DITUZTE"

# '11 gara' ekimena jarri dute martxan berriz ere

Gure Eskuk erreferendum loteslea lortzeko 2019an abiatutako sinadura bilketa atera du "lozorrotik"; maiatzaren 22rako sinadurak biltzeko ekitaldiak antolatu dituzte Bergaran, Arrasaten eta Aretxabaletan; Antzuolan, ostera, bihar egingo dute

**Hasier Larrea** DEBAGOIENA

2014a ezker darama Gure Eskuk "libre eta demokratikoki erabaki ahal izateko legezko erreferenduma" aldarrikatzen. Orduetik, urtero egin dituzte "urrats berriak"; horren adibide da, esaterako, 2019an kaleratu zuten **11 gara** ekimena, "erabakitzeko eskubidea gauzatzearen aldeko jarrera nagusia ikusarazteko eta Euskal Herriko lurraldeetan urrats eraginkorrak egiteko" kanpaina.

Hala, COVID-19ak eragindako osasun krisiak bete-betean harrrapatu zuen sinadura bilketaren ekimena, eta, egoerak bultzaturik, "lozorrotik" eta luze batean murgildurik geratu zen, eta egitasmoaren bueltan antolatutako hainbat eta hainbat aurkezpen ekitaldi bertan behe-geratu". 14 hilabete pasa dira ordutik, eta nazio mailako ekimenari "hautsak astindu eta berriz martxan jartzea" erabaki dute orain Gure Eskuko kideek.

Horren berri eman eta datozen egunotan bailaran sinadurak biltzeko ekitaldien inguruko xehetasunak emateko deitu zuten eguaztenerako prentsaurrekoa Debagoieneko ordezkariak Arrasateko Kulturaten. Bertan parte hartu zuten Maite Aristei Etxalde baserritarren mugimenduko ordezkariak, Jabier Etxaniz Antzuolako Gure Eskuko batzordekideak, Aitor Eraña Bergarako Pol-pol mendi taldeko lehendakariak, Felix Beltran de Heredia Aretxabaletako Gure Eskuko batzordekideak eta Jasone Giraldo Arrasateko Gure Eskuko batzordekideak.



Debagoieneko Gure Eskuko ordezkariak, eguaztenez, Kulturaten. H.L.

**Herrietako hitzorduak**  
Hilaren 22an, zapatua, 12:30ean jarriko dituzte sinadurak biltzeko mahaiak Arrasateko eta Aretxabaletako herriko plazetan, eta Bergaran Domingo Irala

kalean, 12:00etan. Antzuolan bihar bertan egingo dute ekitaldia, 11:30ean, herriko plazan, "San Isidro azokarekin eta landa giroarekin bat egiteko".

Burujaletaren alde mahaie-tara gerturatu eta sinatzera animatu dituzte debagoiendarrak: "Ibilbide luze honetan konplizeak behar ditugu, badelako garaia elkarrekin gure etorkizuna nolakoa izango den erabakitzeko".

Ekainean zehar ere dinamika gehiago antolatuko dituzte, eta uztailaren 3an ekitaldi nazionala egingo dute Bilbon.



Joan den ostiralean Arrasaten egindako elkarretaratzea. IMANOL SORIANO

## Debagoieneko kolonbiarrak ere batu dira hango protestetara

Ivan Duque presidenteak iragarritako zerga erreforma salatzen ari dira Kolonbian; gutxienez, 47 hildako daude

**H.L. DEBAGOIENA**

Elkarretaratze jendetsuak egin zituzten Oñatin eta Arrasaten joan den ostegunean eta ostiralean, azken bi asteetatik hona Kolonbian jasaten ari diren biolentzia salatzen. Ivan Duqueren gobernuak iragarritako zerga igoeraren eta osasun sistemaren erreformaren aurka milaka kolonbiar irten dira kalera, Cali hiria izanik protesten erdigunea. Poliziak gogor erantzun du manifestarien aurka; Indepaz eta Temblores erakundearen arabera, 47 pertsona izan dira erailak. Horietatik 39, poliziaren errepresioaren ondorioz. Gainera, ehunka zauritu eta desagertu daude.

Kolonbiako Pasto hirian bizi den Asier Elorza arrasatearrak asteon *Hemen Debagoiena* saioan eginiko adierazpenen arabera, "gobernuaren aurkako protestak 2019ko azaroan hasi ziren, Co-

mite Nacional del Paro-k deituta, baina pandemiarekin salaketek indarra galdu zuten, hariak eta agintaldia agortzearen duen Ivan Duque presidenteak zergak igotzea erabaki zuen arte".

**Elkartasun mezuak**

Bailaran bizi diren kolonbiarrek "hango protestei ikusgarritasuna emateko" antolatu zituzten elkarretaratzeak joan den asteburuan, Jessica Vargas arrasatearrak adierazi duenez. Kolonbiako agintariek "herritarrak pobreago eta goian daudenak aberatsago bilakatzea" nahi dutela esan zuen Vargasek: "Horretarako igo nahi dute prezioa beharrezko lehengaien BEZeant, errepideetako bidesarietan eta osasun publikoko sarbidean".

Elkartasun-bilkurekin "oso eskertuta" agertu ziren partaideak, eta bakearen alde lanean segituko dutela aipatu zuten.

## LANBIDE HEZIKETA PUBLIKOA DEBAGOIENEAN ATE IREKIAK

*Etorkizuna gure esku*

**Fp** ikasLAN  
EUSKADI  
Gipuzkoa

**ARETXABALETAN:**  
Maiatzaren 19an, 18:00etan

**ALE** - Aretxabaleta Lanbide Eskola  
Etxebarri auzoa, 2/g - 22 Pk. • 20550 ARETXABALETA  
☎ 943 79 79 00 / Whatsapp: 688 811 489  
la@aretxabaleta.com  
[www.ale-aretxabaleta.eus](http://www.ale-aretxabaleta.eus)

**BERGARAN:** Maiatzaren 20an,  
10:30ean, 12:30ean, 16:00etan eta 18:00etan

**MIGUEL ALTUNA** LHII Bergara  
Agirrebidea, 2 • 20570 BERGARA  
☎ 943 899 270 / 943 899 271  
info@maltuna.eus  
[www.maltuna.eus](http://www.maltuna.eus)

**OÑATIN:**  
Maiatzaren 18an, 18:30ean  
Maiatzaren 22an, 11:00etan

**ONATI** Institutua  
Larrañaga auzoa, 16 • 20560 OÑATI  
☎ 943 899 300  
info@onati.net  
[www.onati.net](http://www.onati.net)

**2021-2022 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA: Maiatzaren 31tik ekainaren 18ra**

Hurrengo egunean, hilaren 27an, Bergaratik abiatuko da martxa, 09:00etan, eta Osintxutik Soraluzerako bidea hartuko dute pentsiodunek.

## 2021-2022



www.mondragon.edu/gmh  
orientazio.lhm@mondragon.edu  
664 298 704 • 664 298 683



MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

**Zergatik aukeratu zenuen Goi Mailako Ziklo hau? Eta Zergatik MGE?** 2000tik 2004ra Humanitateak-Enpresa ikasi nuen Mondragon Unibertsitateko Eskorialdeko fakultatean. Karrera amaierako proiektua Arrasateko Udalean egin nuen. Proiektua Udaleko Harrera Plana egitea izan zen. Ikasketak amaitu ondoren, Fagor Electrodomesticos-en lanean hasi nintzen. Fagorrez gain, Eroskin eta inguruko beste enpresa batzuetan ere egin dut lan, baina inoiz ikasitakoarekin lerrotuta. 15 urte horietan, aldi baterako lanetan aritu nintzen. Tarte hartan, alaba baten ama izan nintzen. Beti bueltaka ibiltzeaz eta inoiz enplegu egonkorrik ez izateaz nekututa, 2019an berriro ikastea eta heziketa-ziklo honekin zortea probatzea erabaki nuen, eta, nire esfortzuari eta nire familiaren laguntzari esker, zikloa aurrera ateratzea lortu dut.

Gradua ikasi nuenean izandako esperientziagatik, MGEP aukeratu nuen zikloa egiteko. Ezagutzen nuen unibertsitatea zen, eta hurbiltasunagatik ere aukeratu nuen. Lehenengo ikasturtean ikasten bakarrik jardun nuen, ez nuen lanik egin, eta bigarren mailan DUAL formakuntza programarekin osatu nuen. Azken ikasturte honetan, klaseak amaitzen zirenean, enpresara joan eta enpresako jangelan bazkaltzen nuen, eta, ondoren, hiru orduko lanaldia hasten nuen. Otsailean aurrez aurreko klaseak amaitu zirenean, nire prestakuntza DUALarekin jarraitu dut, baina zortzi ordura.

Zikdoko nire ikaskideak Euskadiko leku guztietakoak izan dira: Beasain, Algorta, Astigarraga... Gehienak mutilak izan dira, gehienak ni baino askoz gazteagoak, baina horrek ez du eragotzi haiekin oso gustura eon izana, haietako askok askotan lagundu didate eta nirekin oso ondo portatu dira.

Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten dituzue; hau da, talde-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer-nolako erronkak egin dituzue?

Heziketa-zikloan bi proiektu handi landu ditugu: bata lehen ikasturteko bigarren ebaluazioan landu genuen eta bestea zikloari amaiera emateko landu dugu. Azken honek zikloan zehar ikasi dugun guztia bildu du.

2021eko urtarrian, MGEPIk HETELeK ETHAZI metodologia erabiliz proposatutako proiektu bat egiten ari zuen. Enpresan arazo bat identifikatzea, enpresan bi edo hiru pertsonako taldea sortzea eta arazo hori irtenbidea emateko ETHAZI metodologia aplikatzea izan dira proiektuaren helburuak. Proposamen horri esker, aukera eman didate metodologia honetan gehiago sakontzeko eta enpresan ezartzen ikasteko.

### Nola baloratuko zenuke esperientzia hau?

Prozesua gogor samarra izan da, eta ahalagin handia egin behar izan dut. Hamabost urte neraman lan munduan murgilduta eta ez da erraza berriro ikasteko erabakia hartzea. Laneko ezegonkortasunak bultzatu ninduen. Ibilbidea ez da erraza izan, baina pozik nago erabakia hartu nuelako, uste dut erabaki hari esker nire etorkizuna egonkorragoa izango dela.

### Non izan zara DUALean?

Formakuntza duala Fagor Automationen egin dut. Ekainean eta uztailen fabrikazioan aritu nintzen lanean, 2017an enpresa honetan ere aritu nintzen; beraz, fabrikatzen den produktua ezagutzen nuen, eta haren zehaztasuna; horregatik, egoera berrira egokitzea ez zitzaidan kostatu. 2020ko irailean, nire prestakuntza Ingeniaritza saillean hasi zen, eta hemen amaituko dut. Saii honetan hainbat zeregin esleitu dizkirate, eta beti lankideen eta instruktoarearen laguntza izan dut.

Zeregin horietako asko fabrikazioan sortzen diren arazoak konpontzera bideratuta egon dira, eta, askotan, zeregin horiek nire lankideen irakaskuntzarekin batera joan dira. Nire kasuan, enpresako jende askok ezagutzen ninduen eta beti ondo tratatu izan naute.

## Zer ikasi duzu Factor Automationen?

Enpresan, talde-lanaren eta laguntartekotasunaren garrantzia, esperientzia finkatua duen jendearengandik asko ikasi daztekeela, eta esperientzia maila bat dela ikasi dut.

**Eta bertan eginiko lanean, zikloan ikasitakoa erabili duzu? Zer bai eta zer ez?**

Ingeniaritzako sailean egin dudana lana heziketa-zikloarekin lotuta egon da ia beti, eta ikasitako ezagutzetako batzuk praktikan jarri ahal izan ditut; adibidez: eskema elektrikoaren diseinua, programazioa... Baina bizitzen ari naizen momentu honetan, hau ez da niretzat hain garrantzitsua; nire ustez, garrantzitsuagoa enpresak zu ezagutzea, zure gaitasunak eta jarrerak ezagutzea eta norberak enpresari eman diezaiokeen guztia ezagutzea da.

**Inpresioak zure lehenengo lan-esperientzia izan eta gero: zer espero zenuen eta nolakoa da?**

Fagor Automatikoneko lan-esperientzia honek 2017an egiaztatu zuen berresteko balio izan dit. Fagor Automation dagoeneko oso finkatuta dago lan egiten duen sektorean, oso ondo ezagutzen du ze merkatutan aritzen den, eta, bere produktuen zehaztasuna dela eta, kalitatea oso garrantzitsua da. Bizi dugun osasun-egoeragatik eta bizi izan dugun urtea nolakoa izan den kontuan hartuta, oso eskertuta sentitzen naiz berriro enpresa honetara itzultzeko eman ditudan aukeragatik. Nire etorkizunaz nituen itxaropenak aise gainditu ditu.

Orain daukazu ikuspuntuarekin, zein asmo duzu hurrengo kurtsorako?

Nire heziketa DUALA amaitzean, hemen lanean jarraitzea eta enpresako proiektuetan parte hartzea izango litzateke nire nahia.



**MAIDER RODRIGO OLIVENZA-** Arrasate  
Automatizazio eta Robotika Industrialak  
Goi Mailako Zikloa



ZABALIK

IÑIGO MURGIENDO AGIRRE

## Orainaldiko nia

"Iñigo, zure etorkizuneko niak eskertuko dizu". Esaldi horixe ageri zait gutun-azala ireki eta beltzeko letra handiez. Arreta piztu dit, eta irakurtzen jarraitu dut. Dio gaur egungo niak etorkizuneko nia gustura, momentu oro gozatzen, estres barik, paraje berriak ezagutzen, eta abar ikusi gura duela.

Testuan atzeraka egin dut, eskuorrian gora eginez. Izenburua berrirakurri dut. Bat-batean, ez nekien etorkizun iragarle baten propaganda ote zen, edo, segundo batzuk lehenago ikusi moduan, banketxe bateko gutun-azala ote zen. Afalaurreko une gozo horietako batean harrapatu nau gaur egungo niak, eta irakurtzen jarraitu dut, etorkizuneko niak sorpresa gehiago emango didalako ustean.

"Orain emandako urrats bakoitzak gerturatzen zaitu gura duzun etorkizunera", diost eskuorriak beheraxeago.

## AFARI ETA BERBALDIA BIZI, SENTITU ETA GOZATUKO DUT ORAIN, BADITUT-ETA NAHIKOA ARRAZOI

izateko momentua. Bada, ez zaio batere gustatu ikusitakoa; aitzitik, arreta guztia galdu du. Ontzi urdin batean da, dagoeneko, banketxeak bidalitako inbertsio fondoan proposamena.

Eskuorria kartoi artean hondoratu moduan azaleratu da orainaldiko niaren biziraupenerako garrasia. Ezin duzu une oro bizi etorkizuneko niarengan pentsatzen! Lanera sartzean irteerarekin, astelehenean ostiralarekin, urrian abuztuarekin, nerabezaroan helduaroarekin, helduaroan jubilazioarekin... eta abar, eta abar, eta abar.

Orainaldiko niak baditu nahikoa zeregin, betebeharrak eta eskubide orainaldiko *gu, hi, zu, zuek* eta *haiek* guztiekin bat eginda momentua bizitzeko, sentitzeko eta gozatzeko. Erabakia hartu dut: afari eta berbaldia bizi, sentitu eta gozatu dut orain, baditut-eta nahikoa arrazoi.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Erregai-erreserban

IZARO ANDRES

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Egun osoa daramat egunari lurretik begira. Ez da metafora bat, bigarren kalanbre zerbikalak eman dit duela bi egun eman zidanaren gainean, eta hemen nago orain, halabeharrez, sabaia hain txukun margotu zutenen lana balioan jartzen. [...]

Autoa erosi nuenean saltzaileak esan zidan auto depositu guztiek dutela erregai-erreserba, baina, berez, autoaren osasuna zaintze aldera, onena erreserba horretara sekula ez heltzea dela. Erreserba hori larrialdietarako bakarrik

dela, eta larrialdirik ezean sekula ez genukeela bertara heldu beharko, auto-jagoleon erantzukizuna dela gure denbora eta erregaiaren gestio arduratsua egitea... [...]

Eta, noski, autoaz zebilen, baina, akaso, unibertsoa beste mezu bat ere bidaltzen ari zitzaidan auto-saltzaile materia-gorputz horren bitartez. Eta hemen nago nire gorputzaren erregai-erreserban tope sartuta.

[...] Prest nintzen gaur goizean, kaleko arropa soinean, nire agenda bete-beteta motxilan, astelehenari ekiteko prest argi-gorriari barkamen keinu txiki bat eginez "gero egingo kasu". Eta atea ireki dudana momentuan

bertan bizkarretik gora kalanbrea landare-igokaria balitz bezala. Heldu da garondoraino, heldu nau bere atzaparrekin eta belarrira esan dit: "Nora zoazela uste duzu?"

Eguneko konpromiso ia-guztiak utzi behar izan ditut albo batera, alfonbran postura bila alde batetik bestera, biharko konpromisoak ere berrikusi beharko ditudala ukatu nahian bezala.

Ukatu nahian baita ere, behin erregai-erreserbara helduta gure osasunak orbain txiki bat izango duela bueltan, autoek bezala. Eta hala ere, ezin asmatu nola ez heldu berriz hona.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooparatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga,  
Ziortza Martín,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X  
Tirada: 19.000 ale  
Difusioa: 18.723 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

## BERBAGAI

# "Aniztasun funtzionalak begirada berriak behar ditu"

ELENA ZARATE RODRIGUEZ DEBAGOIENENKO GARAGUNEETAKO KOORDINATZAILEA

**Larraitx Zeberio Lekuona** ARRASATE

Goyeneche Fundazioak bi egoitza edo garagune ditu bailaran, bata Arrasaten eta bestea Bergaran. Zarate da koordinatzailea.

**Zenbat erabiltzaile dituzte Debagoieneko garaguneak?**

Hamalau pertsona daude Arrasaten eta hamahiru Bergaran, baina asmoa da taldeak handitzea. Gipuzkoa mailako zerbitzua ematen du Goyeneche Fundazioak, eta hamabost garagune daude.

**Zeintzuk dira helburuak?**

Adimen urritasuna duten helduendako eguneko arreta zerbitzua eskaintzen dugu. Helburua da pertsonen bizi-kalitatea hobetzea eta helburu pertsonalak lortzen laguntzea. Baita ere gure lanarekin gizarte inklusiboa lortzea.

**Eta nola egiten duzue lan?**

Pertsona horien eskubideak ezagutzera emanez eta errespetatuz. Pertsonak banan-banan ezagutzen saiatzen gara: zelakoa den, ze



Elena Zarate Rodriguez. GOIENETXE FUNDAZIOA

gaitasun edo pasio dituen, zer behar duen seguru eta zoriontsu sentitzeko... Eta plan bat egiten dugu. Bere sarearekin elkartzen gara urtean behin edo, eta adosten dugu ze behar duen bizi-

kalitatea hobetzeko. Eragin daiteke askotariko arloetan: komunitatean, harremanetan, komunikazioan...

**Eta onurak handiak dira.**

Ezin duzu imajinatu! Ideia da egunerokotasunean ahalik eta

laguntza gutxien behar izatea ahalik eta autonomia maila handiena garatzeko. Argi dago garrantzitsua dela ingurunea ahalik eta irisgarriena izatea. Esaterako, garraio publikoa erabiltzen ikasten badute, eta autobus geltoki irisgarriak egiten baditugu –adibidez, piktograma bidezko karteekin–, erraztasun handiak izango dituzte autonomoagoak izateko. **Estereotipoak ere badaude gure gizarte honetan, eta aldatu egin behar dira.**

Bai; errealitate hau gehiago eman behar dugu ezagutzera. Ezagutzak eta mezu positiboek lagunduko dute estereotipo horiek aldatzen. Horrekin batera, erabiltzen dugun hiztegia berrikustea. Zenbat aukera izan dituzten pertsona horiek bizitzan? Orokorrean, bizitzako arlo guztietan dituzte zailtasunak edo galerak. Esaterako, harremanen munduan, gehienok lagun taldea dugu. Pertsona horien harreman sarea profesionalak eta senitartekoak izaten dira. Gure helburuetako bat bada sare horiek apur bat gehiago zabaltzea. Esaterako, aste bukaerako planak egitera animatzen ditugu beraien intereseko gaiak beste batzuekin konpartitzeko.

Bestetik, askotariko aniztasun funtzionalak daude, eta ematen du adimen urritasuna dutenek laguntza jaso behar dutela beti, baina garagunean pertsona asko daude nik baino gaitasun handiagoak dituztenak arlo askotan. Begirada zabaldu behar dugu. Pertsona horiek ekarpen handia egin dezakete.

**Arrasateko Aniztasun Astearen hartuko duzue parte aurten. Zergatik?**

Gure errealitatea ezagutzera emateko, herri mailako ekintzetan parte hartzea garrantzitsua da. Argazki saio bat egin genuen abenduan, eta maiatzaren 17tik 22ra egongo da ikusgai *Zubiak eraikitzen* argazki erakusketa Kulturaren. Aita Menniko eguneko zentroak, Gureak-ek, Atzegik eta AMS Nikaraguako elkarteak ere hartu dute parte. Pandemiak murrizketak ekarri ditu denondako, eta egokitzen ikasi behar izan dugu. Hori da erakusketak jasotzen duena; ikasketa prozesu hori zelakoa izan den eta zenbat aldatu diren gauzak. Baliatuko dugu inaugurazioa ibilbide komentatu bat egiteko. Lagunduko du, nire ustez, askorendako ezezaguna den mundu bat ikusgai egiten, eta ikuskerak aldatzen.

## ITURRI ONETIK

### Askasibarri buruzko liburua eta erakusketa

Lorenzo Askasibar (Elgeta, 1930) eskultorearen gaineko hainbat ekimen antolatu dituzte maiatzarako eta ekainerako. XX. mendeko bigarren zatiko euskal eskultura figuratiboko adierazle gorentzat jo izan da. Haren gaineko liburua idatzi du Miguel Angel Elkoroberezibarrek, eta eguenean aurkeztuko du, Bilbon, Askasibarrekin; 28an, berriz, erakusketa irekiko dute Aroztegin. Liburua ere aurkeztuko dute Bergaran eta Elgetan; omenaldia egingo zaio Bergaran eta Gasteizen...

## ALBISTE IZAN ZEN

2014-05-10

### Plaza lepo beteta, eta herriko moda bertatik bertara

Bergarako San Martin plaza goraino bete zen herriko dendarri elkarteak, Bedelkarrek, antolatutako moda desfilearako. Aspaldian halakorik antolatu barik, herriaren erdialdean erakutsi zituzten udaberriko eta udako jantzi, bitxi eta orrazkerak. Herritarrak, alfonbra gorriaren gainean desfilarazten; eta ikus-entzuleak, azken joerei begirik kendu barik. Ostean, pilotalekua, Katabia eta Errotalde ere izan ziren herriko moda-agertoki.



GOIENA

## HAU BE BADOGU!

### Txiolari euskaldunak, Palestinara begira

@mikelayestaran: "Infernua Lurrean #Gaza. Kaosa Israelgo hiri mistoetan eta gatazkak gero eta bortitzagoak izaten ari dira juduen eta arabeen artean".

@Arrateatxa: "Beti bezala lotsagarria Palestinako herria jasaten ari dena. Europa eta AEBak beste aldera begira".

@haitzbitatik: "Elkartasuna Palestinarekin, sufritzen ari diren zibilekin eta borrokan ari direnekin!".

@IkerBarandiarra: "Elkartasuna Palestinarekin, emakumeekin eta gazteekin musikaren bitartez".

@Aitoribarra: "Gu beti Palestinarekin!".

# Aniztasunaren askotariko ertzak bistaratu daitezzen

Maiatzaren 21ean ospatuko duten Aniztasunaren Nazioarteko Egunaren harira, aste osoko egitaraua antolatu du Arrasateko Udalak, herriko bost eragilerekin elkarlanean; azpimarratzekoa da aste osoan gozagai egongo den 'Zubiak eraikitzen' erakusketa

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Udalarekin batera, SOS Arrazakeria taldeak, IMME elkarteak (Euskadiko Emakume Muslimanen Elkartea), Ekin Emakumeak elkarteak, Goyeneche fundazioak eta Asociacion por un Mundo Solidario elkarteak (AMS) osatu dute egitaraua.

Aurten, astebete iraungo du ekimenak, eta kultura, hizkuntza eta aniztasun funtzionala ekarri nahi izan dute erdigunera. "Beste urte batzuetan Aniztasun Hilabetea ere egin izan dugu. Aurtengo helburu nagusia da aniztasun kontzeptuak bere baitan dituen ertz edo izaera horiek guztiak azaleratzea", azaldu du Oihana Garatek, Aniztasun teknikariak.

Gaineratu duenez, aniztasun kulturalari sostengua ematearekin batera, aniztasun funtzionala eta hizkuntza aniztasuna ere landu gura dituzte. "Azken batean, aniztasun mota guztiei indarra eman gura diegu, ikusgarri eginez, era horretan kontzientziarazioa ere sustatzen delako eta kontzientziarazioaren bitartez bizikidetzari ere errazago zabaltzen zaiolako bidea".

## Atzerriko jatorria du %7k

Maitane Muñoz Gizarte Ongizateko zinegotziak, bestalde, Udalarentzat inklusioa "oso ga-

rrantzitsua" dela azpimarratu du: "Gure gizartea askotarikoa da, Arrasateko biztanleriaren %7 inguru dira atzerriko jatorria daukatenak, eta guk lanketa berezia egin behar dugu gizarteratzeko, elkar ezagutzeko, elkarbizitzarako eta inklusiorako". Apustu bat izan dela gaineratu du, bost eragileekin elkarlanean egindako lanketa bat. "Inportanteena da herritarrak gustura sentitzea, espazioak, istorioak eta bakoitzak dakarren ibilbidea partekatzea eta ea aste hau horretarako aukera izaten den, nahiz eta pandemiaren eraginez dauden neurriek horretarako aukera zaildu".

## Lehenengoz Aniztasun Astean

Goyeneche fundazioak lehenengoz hartuko du parte Aniztasun Astean. "AMS elkartearekin hainbat proiektu partekatu izan ditugu. Iaz, *Zubiak eraikitzen* argazki erakusketa sortu genuen, eta aste hau ona da hori aurkezteko. Fundazioa ez da oso ezaguna, eta ahalik eta gehien egin behar dugu ezagutarazteko. Aniztasun funtzionala eduki edo ez, bateratu egiten gaitu erakusketa honek, eta bizitzan ari garen egoerak ere bai", nabarmendu du Elena Zaratek, fundazio-ko kide eta Garagunerren Arrasateko arduradunak.

## Aniztasun astearen egitaraua

### Maiatzak 16

- **11:00** *Cómo conseguir la residencia por arraigo* hitzaldia eskainiko du SOS Arrazakeria erakundeak, Emakume Txokoan.

### Maiatzaren 17tik 22ra

- **17:30etik 20:00etara** *Zubiak eraikitzen* argazki erakusketa Kulturateko klaustroan, AMSren eta Goyeneche fundazioaren eskutik.

### Maiatzak 17

- **17:30** Aniztasun funtzionalaren gaineko hitzaldia, Kulturateko areto nagusian, argazki erakusketaren inaugurazio gisa.

### Maiatzak 20

- **18:00** Txanogorritxuren ipuin kontaketa, frantsesez, Jokin Zaitegi aretoan, eta gero, euskaratu egingo dute, hizkuntza aniztasunaren gaia jorratzeko.

### Maiatzak 21

- **18:00** IMME elkarteak eta Ekin Elkarteak bideo bana aurkeztuko dute, *Bi lurralderen artean* izenpean, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan. Gero, mahai-ingurua.

### Maiatzak 22

- **10:00etik 14:00etara** Munduko arrozak, Seber Altube plazan. Hamar elkarte egongo dira.

## Kulturolako murala egiteko lehiaketa publikoa martxan da

Interesa daukaten herritarrek ekainaren 12ra arte edukiko dute proposamenak aurkezteko aukera

**E.A. ARRASATE**

Muralaren gai nagusia Arrasateko industria izango da, hain zuzen, herriko industria tradizio eta jardueraren testigantza jasotzeko helburuarekin. "Ildo beretik, lehiaketaren helburua da Kulturola kultura lantegi baten ideiarekin lotzea eta artearen zein sorkuntzaren zabal-kundean eragitea", azaldu du ohar bidez Udal Gobernuak.

Lehiaketan parte hartu ahal izango dute adin nagusiko norbanako artista zein taldeek, eta lehiakide bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. "Taldeen kasuan, kideek ezingo dute beste proposamenik aurkeztu banaka".

Murala egiteko gehieneko aurrekontua, halaber, 5.000 eurokoa izango dela aurreratu du Gobernuak, eta kopuru horren barruan jasoko direla produkzio

gastu guztiak, hala nola muntaia, makineria, materiala, eta abar.

### Ezinbesteko lau baldintza

Lehiaketara aurkezteko ezinbesteko baldintzak lau dira: muralaren diseinua lehiaketako oinarrietan zehaztutako kokaleku eta neurrietara egokitzea; denboran iraungo duten materialak erabiltzea; originala eta argitaratu gabea izatea eta norbanako edo taldeek murala gauzatzeko gaitasun eta kaudimen teknikoa izatea.

### Azken hitza, arrasatearrek

Epaimahaiak hiru diseinu finalista aukeratuko ditu. Gero, Kulturaten erakusgai jarriko dituzte lanak, uztailaren 2tik 10era, eta 16 urtetik gorako arrasatearrek bozkatu ahal izango dute. Azkenik, uztailaren 18an emango dute irabazlearen berri.

## Bidezko merkataritza sustatzeko asmotan, hainbat ekintza

Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekintza antolatu ditu Harreman Dendak. Hasteko, dendako kafe eta txokolateak saltzen egongo dira biharko baserritarren azokan.

Maiatzaren 18an, *The Chocolate Case* filma eskainiko dute Amaia antzokian, 19:00etan. "Kazetari herbeheretar batzuek

Afrikako kakao landa eremuetan bizi izandako esperientzia kontatzen du, eta horren ondorioz hartu zituzten erabakiak". Pelikula amaitu eta gero, gainera, zine-foruma egingo dute, Itsaso Sanchezen eskutik.

Maiatzaren 24an, Nekane Jurado ekonomialari eta psikologo klinikoak hitzaldia egingo du Kulturateko areto nagusian, 18:30ean, *Economía, cooperación y conciencia* izenpean. "Bidezko merkataritza eta ekonomiaren ikuspegi kritikoa landuko ditu".

## 'Eman Zesarri Zesarrena' liburuaren aurkezpene gaur

Alternatibak eta Intxorta 1937 elkarteak antolatuta, indarkeriaren kontakizunari buruzko Joxe Iriarte *Bikila*-ren saiakera politikoa aurkezteko solasaldia egingo dute Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:30ean. Egilea bera han izango da, Juan Ramon Garai editorearekin batera eta Julia Monge elkarte memoria-listako kideak aurkeztuta.

## Parte-hartze prozesu bat jarri du martxan AED elkarteak

*Batera, batzera* izeneko parte-hartze prozesua abiatu dute, eta elkarteak etorkizun hurbilean hartuko duen norabidea erdies- tea izango da helburu nagusia. Lehenik eta behin, analisi fase bat egiten ari dira, eta bihar, zapatua, saio irekia egingo dute: bazkideekin elkartuko dira, Arizmendi Ikastolaren Gaztelupe gunean, 09:00etan.



Astelehenean egin zuten Aniztasun Astea aurkezteko prentsaurrekoa. HASIER LARREA

# Sei mendi ibilaldi eta sei bisita historiko, bihartik

Arrasateko historia, industria eta eraikin garrantzitsuenak zein ingurune naturala ezagutzeko aukera eskainiko du Udalak maiatzaren 15etik ekainaren 26ra bitartean, ondarea ezagutzera emateaz gain, garapen ekonomikoari bultzada emateko asmoz

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Arrasate, gertuko turismoa lelopean, herritarrei zein kanpotik hurbiltzen direnei Arrasate "sakontasunean" ezagutzeko aukera eskaini gura die Udalak. "Asmoa da tokian tokiko kontsumoa bultzatzea; hau da, herritarrek eta bisitariak Arrasaten kontsumitzea, besteak beste, herriko merkataritza, ostalaritza edota ostatuetan. Eta horretarako, turismo eskaintza erakargarria osatu dugu".

## Lehen bisita, bihar, Lezetxikira

Bisita historikoei dagokienaz, bihar, zapatua, egingo dute lehen, Lezetxikira, 09:30ean Garagartzako plazatik abiatuta; hilaren 22an, udaletxea ezagutzeko aukera izango da, 10:00etan; hilaren 29an, San Balerio meatzarien kofradiari buruzko bisita, 09:45ean Herriko Plazatik San Balerioko ermitara abiatuta; ekainaren 5ean, Aro Modernoari buruzkoa, Herriko Plazan 10:30ean; eta ekainaren 26an, 1919an Arrasatera iritsi zen Vasco-Navarro trenari nondik norakoak ezagutu ahal izango dira, 10:30ean plazan hasita.

Mendi ibilaldiei erreparatuta, berriz, maiatzaren 16an, domeka, ibilketa nordikoa egingo dute Garagartzeta eta Gesaliba-



Galarrako kobara egindako bisitetako bat, aurtengo Aste Santuan. GOIENA

rrera, 10:00etan plazatik irtenda; maiatzaren 23an, Gongetako meatzeak eta Udalatzeko karsta bisitatuko dituzte, 09:00etan Udala auzotik irtenda; maiatzaren 30ean, Galarrako kobara, 09:00etan, Meatzerreka elkarte-ko aparkalekutik; ekainaren 6an, Anporreta bira, burdinaren bidea, 10:00etan plazatik irtenda; ekainaren 13an, ibilketa nordikoa Bedoña eta Kurtzetxikira, 10:00etan plazatik irtenda; eta ekainaren 20an, Murugainera, dragoiaren bidetik, 10:00etan plazatik abiatuta. Bestalde, nork

bere kabuz erdiguneko ibilbideak egitea ere gomendatu dute, hala nola Erdi Aroko ibilbidea, arnaguneak eta industria ondarearen ibilbidea. Informazio gehiago, [Goiena.eus](http://Goiena.eus)-en.

## Izena emateko, hiru bide

Interesa daukatenek BAZen, 943 25 20 00 telefonora deituz edota [www.arrasate.eus/ezagutu](http://www.arrasate.eus/ezagutu) webgunearen bitartez eman ahal izango dute izena. Antolatutako ekintzetan izena emateko azken eguna irteera aurreko ostiralean izango da, 12:00ak baino lehen.

## Ekainaren 4an ere jostailu truke merkatua egingo dute

Maiatzaren 21ean jasoko dituzte, hiru gunetan, eta gero, Monterron parkean jarriko dituzte eskuragarri

## E.A. ARRASATE

Herritarrek Gabonetan trukatzeko ez dituzten jostailu motak ere eroatea proposatu du Txatxili-purdi Elkarteak. "Hondartzan edo igerilekuetan erabili izan ditugun jostailu horiek: kuboak, palak, eskuareak, kometak, urpean jolasteko jostailuak, urez-tontziak, hondarretan jolasteko jostailuak, disko hegalaria, eta abar".

Egun bakarra izango dute: "Beraz, argi ibiltzea komeni da". Maiatzaren 21ean, egubakoitz arratsaldean, Arrasateko hiru gunetan egingo da furgoneta jostailuak biltzen: 16:30etik 17:30era, Seber Altuben; 17:45etik 18:45era, Santa Marinako ludoteka aurrean; eta 19:00etatik 20:00etara, Arimazubi plazan.

Azoka ekainaren 4an egingo dute, 18:00etatik 20:00etara, Monterron parkean. Halaber, azpimarratu dute ez dituztela onartuko indarkeria sustatzen duten jostailuak ezta sexu bereizketa egiten dutenak ere, eta egoera onean egon beharko dute.

## Ludoteka ibiltaria, amaitzean

Bihar, zapatua, bukatuko da ludoteka ibiltaria, Erguin auzoko Itxaropena plazan, 11:30etik 13:30era egingo duten saioan.



NIRE USTEZ

MARIXE RUIZ DE AUSTRI

## Utopien biziberritzeaz

Gure gurasoen belaunaldia utopiez elikatuz hazi eta hezi zen eta gu, aldiz, distopiaren seme-alabak gara. Guztia da apokaliptikoa: krisi estruktural ziklikoak, Estatuaren gehiegikeriak, mundu mailako pandemia, lan etorkizun beltza, eta abar, eta abar.

Kolonbian dozenaka hildako, ehunka atxilotu eta beste hainbeste desagertu, Uriberen gobernu neoliberalaren neurrien kontra protestan aritzearen. Gazan bi dozena hildako, Jerusalem 600 zauritutik gora Israelen biktima. Badirudi Margaret Thatcherren espirituak airean dirauela *Ez dago alternatibarik* lau haizetara zabalduz, imaginario kolektiboaren zati bihurtu arte.

Bada, hau guztia babesten eta zuzenean edo zeharka elikatzen duten komunitate internazionalako kideek lasai egiten dute lo. Zizekek eta Fisherrek esan zuten: "Errazago zaigu munduaren amaiera irudikatzea kapitalismoaren bukaera imajinatzea baino". Etsipen honen aurrean, guri dagokigu utopia bizirik mantentzea, amesteko ditugun gau horiek berreskuratzea, gureak direlako eta izango direlako.

## OHARRAK

### Baserritarren azoka, bihar, Seber Altuben

Urtinea eta Ekoudalatx etorriko dira lore ornamentalekin eta aromatikoekin, eta orturako landareak ere ekarriko ditu azken horrek. Ohi moduan, 09:00etatik 14:00etara egingo dute azoka.

### Musakola auzoa apaintzeko dei egin dute

San Isidro jaiak ez dituzte normaltasunez ospatuko, baina jai batzordeak, iazko arrakasta ikusita, kaleak eta balkoiak apaintzeko dei egin die auzotarrei.

### Apalatxeren emanaldia gaztetxean

Bihar, zapatua, 18:00etan hasita, Aritz Irastortza astigartarrak, bere bandaren laguntzarekin, kontzertua eskainiko du.

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

beinke

arrasate



Errugbi inklusiborako entrenamendu bateko argazkia, Mojategin, pandemia hasi baino lehen. ARRASATE RUGBY TALDEA

# Balioak ezaugarritu ditu ARTk, pandemia baliatuz

Garai hauek eskaintzen duten pausa aprobetxatuz, klubaren identitatea eta balioak zehazteko lanketa bat egin dute, Xabi Igoa aramaioarraren laguntzarekin, eta orain, 'danon ARTien' izena daukan kanpaina bat abiatu dute, lanketa ezagutzera emateko

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

2019an, zuzendaritza aldatu zuen Arrasate Rugby Taldeak, eta ordutik, jokalaria ohi batzuek, hainbat gurasok eta errugbiaren bueltan ibili izan diren beste batzuek osatzen dute gaur egungo zuzendaritza.

Pandemia hasi aurretik, hasiak ziren lanketaren lehen pausoak ematen, eta dagoeneko ezaugarritu dituzte klubaren balioak. "Errugbi partidu batek hiru zati dituenek, ARTren hiru balio zehaztu ditugu. Batetik, talde-lana eta elkartasuna, taldean hasten dena taldean bukatzen delako. Bestetik, ezberdintzen gaituenak indartzen gaituela eta guziontzako lekua dagoela azpimarratu gura dugu. Azkenik, guztion artean gozatzea errazagoa dela, errugbia hazteko eta hezteko kirol bat dela adierazi gura dugu", dio zuzendaritzako kide Ihabar Arriaranek.

Lanketa horretan jasotako balioak eta informazio guztia dokumentu batean jaso dute, eta orain asmoa da, barrura begira, klubeko jokalariei, senideei, eta abarri lanketaren berri ematea. Horrekin batera, kanpora begira ere gura dute gaiak zabalkundea izatea, eta komunikabideak zein sare sozialak erabiliko dituzte.

Gainera, balio horiek erakusten dituen bideo bat prestatzen ari dira eta, hain zuzen ere, ekain erdi inguruan kaleratzea aurreikusten dute.

**Webgune berria dute martxan**

Era berean, Arriaranek gaineratu du ekonomikoki nahiko estu dagoela kluba eta diru iturri berriak aurkitu behar izan dituztela aurrera egiteko. "Gure diru iturri nagusia Garagardo Azoka izan da orain arte. Iaz ezin izan genuen egin eta aurten ere ez da posible izango; orain arteko eran, behintzat. Ondorioz, nahiko estu gabilta arlo ekonomikoari dagokionez, eta gure produktuak sagai jartzea erabaki dugu. Hala, garagardoak, maskarak, kamisetak eta jertseak jarriko ditugu eskuragarri.

Gaur, egubakoitza, esaterako, Musakolan jarriko dute postua. "Sanisidroak direla-eta beti Musakolarekin lotura estua izan dugula aprobetxatuz, postu bat jarriko dugu, 18:00etatik 20:00eta-

ra, seguruenik, erretiratuen etxeko plazan", dio Arriaranek.

Horrekin batera, webgunea sortu dute, dagoeneko martxan dago, eta horren bitartez ere egingo dute produktuen salmenta [arrasaterugbytaldea.com](http://arrasaterugbytaldea.com) da webgunea.

**Kluba hazten ari da**

Zuzendaritzako kideak adierazi du kluba hazten ari dela. "Errugbi eskolatik hasita, 12, 14, 16 eta 18 urtez azpiko taldeetan geroz eta jokalaria gehiago ditugu eta senior mailako emakumezkoen taldea ere sortu dugu aurten. Horrez gain, talde inklusiboarekin ere hasi ginen, eta, aurten martxan jartzea kosta egin zaigun arren, ekin diogu horri ere".

**Azokaren alternatiba bila**

Garagardo Azokaren alternatiba bat bilatzen ari direla aitortu du Arriaranek. "Beste formatu batean, neurriak errespetatuz, zerbait antolatu guran gabilta, geure burua are gehiago ezagutarazi eta mugimendu apur bat sortzeko herrian eta bailara guztian. Izan ere, gurea Deba goien mailako proiektu bat dela sinisten dugu".

Azkenik, 2022an, 50 urte bete-ko ditu klubak, eta "zerbait berezia" egiteko asmotan dira.

## Mondratek nahikoa du Leioaren aurka berdintzea igoera lortzeko

Bihar, zapatua, 18:00etan jokatuko dute norgehiagoka erabakigarria arrasatearrek, Musakolako kiroldegian

**E.A. ARRASATE**

Puntu bat lortuta Hirugarren Mailako taldea izango da Mondrate. "Taldea ona da Leioa. Bigarren B Mailako talde baten harrobiko taldea da eta horrek asko esaten du haien mailaz. Gauzak oso ondo egin beharko ditugu haiei irabazteko. Oraindik ez dago ezer eginda eta lan asko egin beharko dugu igoera lortzeko, baina kontziente gara oso gertu daukagula eta puntu batekin helburua lortuko dugula", adierazi du Igor Murgoiok, jokalaria eta zuzendaritzako kide ere badenak.

Izan ere, azpimarratzekoa da lau jokalarik zuzentzen dutela taldea eta entrenamenduak prestatzeko gain arlo finantzarioa ere haiek eramaten dutela. "Iaztik esan izan dugu helburua zela jokalaria nahikoa izatea taldea osatzeko. Iaz, jende gutxiarekin

ibili ginen, eta aurten, lortu dugu helburu hori; jokalaria lehiakorrek, gainera. Hala, bagenekien gauzak ondo joango zirela, eta hala izaten ari da".

**Denboraldi bikaina egin dute**

Murgoiok dio denboraldi hasieratik izan direla beste taldeak baino hobeak. "Gipuzkoako eta Arabako taldeekin alde handia nabaritu genuen, haiek baino hobeak ginen partidu gehienetan. Baina momentu batean ere ez gara erlaxatu eta oso emaitza onak lortu ditugu; hau da, kan-txan erakutsi dugu gure maila".

Igoera fasean zailantza gehiago izan dituzte eta denboraldiko unerik txarrena ere bizi izan dute, hiru partidu jarraian eman baitituzte irabazi gabe. "Hala ere, bide onera itzuli, eta erakusten ari gara egiten ari garena ez dela kasualitatea".

## Askotariko campusak antolatu dituzte klubek udara begira

Batetik, saskibaloia campusa antolatu du Ointxe!-k, ekainaren 21ean hasi eta uztailaren 19ra arte, Iturripen. Adinaren arabera osatuko dituzte taldeak eta plazak mugatuak izango dira. Bi bide daude izena emateko: [kirolzuzendaria@ointxe.eus](mailto:kirolzuzendaria@ointxe.eus) helbidera idatzi edota 653 01 48 60 zenbakira deitu.

Bestalde, Getarian eta Zarautzen egingo duten campusean saskibaloia eta surfa uztartuko dituzte; Arri-k eta Axi Muniainek emango dituzte saioak. Informazio gehiagorako, 653 01 48 60 zenbakira deitu edo [arrisurf@hotmail.com](mailto:arrisurf@hotmail.com) helbidera idatzi.

Azkenik, Mondrak antolatuta, ekainaren 28tik uztailaren 23ra egingo dute futbol campusa, 2007 eta 2012 urte artean jaiotakoentzat. Astebeteko egonaldia 95 euroko prezioa du; bi asteoak, 180 eurokoa; hiru asteoak, 250 euroko; eta lau asteoak, 300 eurokoa. Izena emateko, [mondrakanpusak@gmail.com](mailto:mondrakanpusak@gmail.com) helbidera idatzi beharko da.



Cristian Matias, entrenatzaile berria.

## Cristian Matias izango da Mondrako entrenatzailea

Etxe barruko entrenatzaile baten aldeko apustua egin du Mondrak datorren denboraldian talde zuri-morea zuzentzeko. Hala, azken hiru urteetan harrobiko taldeekin lanean jardun duen Cristian Matias izango da talde nagusiko entrenatzailea. "Hautaketa ona egin dugula uste dugu eta munduko zortetik onena opa diogu Cristiani eta talde osoari", azaldu du klubak.

## 'Esnatu naiz' kabareta, LGBTI+ kolektiboari buruz hausnartzeko

Emakume Txokoak nortasuna, generoa eta sexu joerak lantzen dituen obra ekarriko du eguazten arratsaldean

Hasier Larrea ARRASATE

Komedia eta drama, musika eta dantza, modu "original, dinamiko eta erakargarrian" uztartzen ditu *Esnatu naiz* kabaretak, Andoni Mutiloa obraren sortzaile eta aktorearen esanetan.

LGBTI+ komunitateak Euskal Herrian bizi duen errealtate "gogorra ez ezik, bizipozez beterikoa" islatzeko modu egokiena iruditzen zaio gaia kabaret formatuan jorratzea: "Atsegina eta ikuserraza da, eta, era berean,

hausnarketarako ateak irekitzen dizkio ikusleari".

Mutiloa Londresen bizi den Elur izeneko trans kolektiboko artista da ikuskizunean, eta sendatu gabeko zauriak agertuko zaizkio pixkanaka: "Bere atzean ezkututzen den pertsona ezagutuko dugu, Pello, 10 urte lehenago Euskal Herritik alde egitea erabaki zuen baserritarra".

Funtsean, Londresera joatearen arrazoiak, ospearen eta lotsaren arteko kontraesana eta jaioterrira itzultzeak eragiten



Elur protagonista, obran. ANDONI MUTILOA

dion ondoeza deskribatuko ditu Elurrek 50 minutuko saio dibertigarrian. Euskal kulturako elementuek eta musika zein dantza garaikideak ere izango dute tokia obran, gainera.

Nahasketa hori bertatik bertara probatu nahi duenak Kulturategi areto nagusian izango du aukera aparta, hilaren 19an, 19:00etan hasita. Nabarmentzeko da doako sarrerak ez direla aurretik erreserbatu beharko; beraz, bertan agertzearekin nahikoa izango da.

## Lie Detectors taldeak hasiko du domeketako Kooltur Ekintza

Hiru kontzertu eskainiko dituzte maiatzean, domeka eguerdietan: "Egoerara moldatzeko aldatu dugu"

H.L. ARRASATE

Koolturrekoek ostegun gauetan antolatu izan dituzte 10 urteko ibilbidean zehar kultura emaldiak gaztetxean, eta, pandemiak hala behartuta, domeka eguerdietarako antolatzen pasa dira orain: "Urrian ekin genion sasoi berriari, baina bertan behera utzi behar izan genuen; hala ere, denboraldia amaitu aurretik zerbait egin nahi genuela argi geneukan, eta horratx emaitza", dio Iker Barandiaran elkarteko kideak. Aste barruan egitea "zaila" izango zela iritzita, asteburuak "aukera proposak" zirela ikusi zuten kultura eskaintza berriz martxan jartzeko, eta AGAKOrekin domeka eguerdietan egitea adostu zuten.

Etzi Lie Detectors, eta hurrengo domeketan Habi & Etxekalte eta Rukula taldeak igoko dira oholtzara. Kontzertu bakoitza

13:00etan hasiko da, eta sarrerak [kooltursarrerak@gmail.com](mailto:kooltursarrerak@gmail.com)-era idatzita eskatu beharko dira, zazpi eurotan. Lehenengo emaldikoak agortu dira jada: "Ikusleei eskatu diegu 12:45ean agertzeko, eta ezin badute etorri, mesedez abisatzeko".

### Hasteko, "rock freskoa"

Udazkenean zen etortzekoa Donostiako Lie Detectors boskotea. Kooltur eta gaztetxea ondo eza gutzen duten musikariak dira, NCC eta Plan B bandetatik pasatakoak batzuk. Orain arte, singleak eta LP bat kaleratu dituzte, eta, Barandiaranen hitzetan, "freskotasuna eman diote eszenari, umore kutsuko garage estiloa landuta".

Ekaineko lehen ostegunerako "emanaldi berezia" antolatuko dutela ere aurreratu du Iker Barandiaranek.

Matrikulatzeko bi modu egongo dira herritarren eskura: Monterron jauregian aurrez aurre aurkeztuta, edota 943 77 05 40 telefonora deituta.

Edorta Ayastuik, musika eskolako kideak, musikari hasiberrientzako hiru eskaintza daukatela azpimarratu du: "5etik 7 urtera arteko ikasleentzat *Tailer musikala* antolatzen dugu; 3 urtetik aurrerakoentzat, *Suzuki* izeneko metodologia; eta helduentzako, azkenik, *Kultura musikala* programa".

## Arrasate Musikaleko matrikulazio epea, hilaren 17an zabalik

2021-2022 ikasturteko matrikulazio epea maiatzaren 17an irekiko du Arrasate Musikalek. Astelehenetik ostegunera 10:00etatik 13:00etara eman ahal da izena, goizez, eta 16:00etatik 19:00etara, arratsaldean. Ostiraletan, berriz, 16:00etatik 19:00etara kontaktatu ahal da dute interesa daukatenek musika eskolarekin.

# edertasuna

Eskaintza baliagarria 2021eko maiatzaren 19ra arte.

## lurrindegi eta parafarmazia osoan\*

# 3x2

\* Higiene intimoko, inkontinentziako, haurtxoentzako eta botika-kutxako produktuetan izan ezik. Merkeena DOHAINIK

## KONBINATU

produktuak eta markak nahi duzun bezala

**EROSKI**

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE, Tel.: 943 71 10 30

# Hiru korrante ideologiko jendarte eraldatzeko

Gorbeialdeko Kuadrillako Euskara, Ingurumen eta Berdintasun zerbitzuek 'Bide argiak' jardunaldia antolatu dute, eta 'Euskalgintza, feminismoa eta iraunkortasuna eraldaketa sozialerako' gai moduan aurkeztu. Maiatzaren 21ean izango da

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO  
Gorbeialdeko Kuadrillako hiru zerbitzuek elkarlanean antolatu-tako jardunaldia izango da Aramaion maiatzaren 21ean. *Bide argiak* jardunaldia kultura etxean egingo dute, 17:30ean. Sarrerak aurrez erreserbatzea eskatu dute, [entradium.com](http://entradium.com) atarian.

Euskara, Ingurumen eta Berdintasun zerbitzuek antolatutako jardunaldia izango da. Hain zuzen ere, helburua da herritarrek eta administrazioak gogoe-ta egitera gonbidatzea; hiru korrante ideologiko horien puntu komunak aztertu, eta jendarte eraldatzeko indar bezala aurkezte.

## Hiru gonbidatu

Horretarako, hiru hizlari gonbidatu dituzte: Lorea Agirre, kazetaria eta antropologoa formazioz, euskalgintzan ibilbide luzea egindakoa; Mikel Otero, militante aktibista eta egungo legebiltzarkidea; eta Ainhoa Olaso, Bilgune Feministako kidea.

"Euskara, Ingurumen eta Berdintasun teknikariak bildu ginen pentsatzeko zeharka nola landu daitezkeen gai hauek administrazioan", dio Jone Unzagak, Berdintasun teknikariak. "Askotan, zailtasunak izaten ditugu gure ikuspegia beste zerbitzu



Ingurumen, Euskara eta Berdintasun teknikariak. J.U.

## MAIATZAREN 21EKO JARDUNALDIRAKO SARRERAK ERRESERBATZEA GOMENDATU DUTE

batzuetan txertatzeko; adibidez, Hirigintzan", gaineratu du. Horrez gain, eurek ere gaia lantzeko erremintak behar dituztela esan du.

Mikel Otero: "Mundu mailako erronka izanik ere, Euskal He-

rriko egoeraren ezaugarritze propioa egin behar gaude, gure metabolismo sozial eta ekonomikoak mundu-sisteman duen lekuaz hausnartuz eta iraunkortasuna bermatzeko ezinbestekoa den eraldaketarako traba eta potentzialen gakoak aztertuz". Ainhoa Olaso dio identifikatutako gakoak azaltzen saiatuko dela: "Euskararen inguruan izaten diren gatazketatik, eta zaintza krisiaren kudeaketaren aurrean hainbat eztabaida prozesu jarri ditugu martxan Bilgune Feministan".

## Astelehenera arte proposa daiteke eskolarako izen berria

San Martin eskolaren izena aldatzeko prozesua herritar guztiei zabalik dago; edonork proposa dezake izena

### A.E. ARAMAIO


Eskolako komunitatea osatzen dutenek San Martin eskolaren izena aldatzea erabaki zuten martxoan. Prozesuak aurrera jarraitzen du: izena proposatzeko kontuan hartu beharreko irizpideak zehaztu zituzten lehenengo; eta orain, izenak proposatzeko aukera dago. Herritar guztiei zuzendutako prozesua da eta astelehenera arte dago horretarako aukera.

Bi kutxa jarri dituzte horretarako: bat Kintelena dendan dago eta bestea kultura etxean.

Horrez gain, ikasleek eskolan ere badute izen proposamenak uzteko kutxa, eta mezu bidez ere proposatu daiteke: [aramaioeskola@aramaioeskola.eus](mailto:aramaioeskola@aramaioeskola.eus) helbidera idatzita.


### Izena aldatzeko arrazoiak

Izena aldatzeko arrazoi nagusia da izen bereko beste eskola bat ere badagoela, eta horrek txarto ulertuak sortzen ditu; eta beste arrazoiak da San Martin santu izena dela, eta, gaur egun, santuaren izena ez den izen bat aproposagoa ikusten dute.



**AITZIBER AGINAGALDE**  
HERRITARRA

"Aurrekoan parte hartu nuen eta orain ere animatuko naiz. Etxean komentatu dugu eta Aramaio Eskola da gehien gustatzen zaiguna".



**MONTSE HERNANDO**  
HERRITARRA

"Nik izena ez aldatzearen alde bozkatu nuen aurrekoan. Betiko izena gustatzen zait, eta ez dut aldatzeko beharrik ikusten".



SARE

## Tellamendira, presoan alde

Izan Bidea ekimenaren barruan, Tellamendira igo ziren zapatuan Aramaio zenbait lagun. Euskal presoan aldeko aldarria mendi tontorrera eramane zuten, Euskal Herrian beste 650 tontorretan egin zuten moduan, Sarearen deialdiarekin bat eginez. Euskal presoak etxeratzea eskatu zuten, eta presoek aplikatzen zaien kartzela-politika bera aplikatzea haiei ere.



**LOREA AGIRRE**  
KAZETARIA

"Aniztasunaren galera arrisku handia da. Euskarak etorkizunik badu elebakartasun eta uniformizazio kulturala oinarri duen gizartean?".



**MIKEL OTERO**  
EKINTZAILE EKOLOGISTA

"Egoera eraldatzeko gaitasunik ezean, planetaren mugekin hasia den talkak etorkizun iluna irekiko du, mamu sozialekin topo egiteko arriskuarekin".



**AINHOA OLASO**  
BILGUNE FEMINISTAKO KIDEA

"Borrokan arteko konfluentziak eta aliantzak egitea ezinbestekoa da, nork bere posiziotik, baina elkarri begiratuz eta errekonozituz".

# "Taldeko giro ona gakoa izan da igoera lortzeko"

**ANDER FERNANDEZ PACHECO** FUTBOL JOKALARIA

Gernika futbol taldearekin jokatzen du aramaioarrak. 'Play-off' -a amaitzeko partidu bat geratzen den arren, dagoeneko lortu dute Bigarren B Mailarako igoera

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO

Denboraldi hasieran jarritako helburua bete du Gernika futbol taldeak: Bigarren B Mailara igotzea. Urte gogorra izan dela aitortu du Ander Fernandez aramaioarrak: batetik, pandemiaren gorabeherak izan dituzte; baina gogorragoa izan da taldekide bat galtzea.

**Zorionak! Zuen entrenatzaile Oscar Valesek dioen moduan, play-off ia perfektua egin duzue?**

Bai; egia da aurten hasieratik ibili garela sailkapenean aurrean. Pandemiak hala baldintzatuta, bi taldetan banatuta jokatu dugu liga. Gure helburua mailaz igotzea izan da beti, baina bagenekien beste talde indartsu batzuk ere bazeudela: Sestao, Somorrostro... Liga osoan zehar lehenengo ibili gara; *play-off*-a jokatzeke hiru talde sailkatu ginen, eta hemen ere ez dugu partidurik galdu. Vitoria-  
ren aurkako norgehiagoka geratzen zaigu jokatzeke. Egia



Ander Fernandez Pacheco futbol jokalaria. A.F.P.

esatearren, uste genuena baino hobeto ibili gara.

**Non egon da taldea hain ondo ibiltzearen gakoa?**

Iazko denboraldian izan genuen entrenatzaile bera dugu aurten ere, eta taldearen erdia ere ber-

dina da. Aldageletan izugarriko giro ona dugu jokalariaok; berriendako samurra izaten da aldagelara egokitzea. Uste dut hori dela gakoa, eta, nola ez, jokalaria onak ere baditu Gernika futbol taldeak.

**Bi urte eman dituzue Hirugarren Mailan. Alde handia dago Bigarren B Mailarekin?**

Gernikara etorri aurretik, hiru urte eman nituen Amorebietan, Bigarren B Mailan jokatzen. Batez ere, intentsitatean igartzen da. Zailagoa izango da jokatzea, eta fisikoki ondo egoteak garrantzi handia izango du.

**Bigarren denboraldia duzu Gernikan. Egin duzu zure lekua taldean?**

Bai. Beasainen jokatu nuen, eta handik Amorebietara joan nintzen, Bigarren B Mailara. Jokatzen hasi nintzen, baina abenduan Sestaora bidali ninduten, utzita. Berriz Amorebietara itzuli nintzen, eta, egia esatearren, ez nuen jokatzen. Hala, Gernikako orduko entrenatzailea ezagutzen nuen, hara joateko esan zidan, eta dagoeneko bi denboraldi daromatzen. Jokalari batek nahi duena da gustura egotea eta jokatzea; nire kasuan, biak betetzen dira.

**Aurrelaria zara; zenbat gol sartu dituzu aurten?**

Hamar gol sartu ditut: iaz, lau gol egin nituen, taldera egitea kosta zitzaidan.

**Pandemiak baldintzatutako urtea izan da arlo guztietan. Nola eragin dizue zuei?**

Ikuslerik gabe jokatzea arraroa izan da. Kanpoan jokatu edo etxean jokatu ia antzerakoa izan da. Sestaon, esaterako, 3.000 ikusle izaten dituzte... Pentsa, harmailak hutsik ikustea. Politagoa da ikusleekin jokatzea, nahiz eta batzuetan gustuko ez

direnak entzun behar izaten diren. Horrez gain, protokolo zehatzak bete behar izan ditugu denboraldian: astero egiten dizkigute PCR probak, gela erabili beharra... Astuna izan da.

**Hori baino gogorragoa izango zen Aitor Gandiaga taldekidea galtzea.**

Urte hasieran auto istripuz hil zen Aitor. Egia esan, lehenengo hiru asteak gogorrak izan ziren, bera falta sumatzea... Markinarra zen, eta Durangon elkartzen ginen autoz elkarrekin joateko. Denboraldi hasieratik igoera izan dugu buruan, baina Aitor hil ondoren bai ala bai egin beharreko zerbaitek bihurtu zen, derrigor lortu beharrekoa. Gustura geratu gara igoerarekin, berari eskaini diogu.

**Denboraldi amaitu ondoren zer egingo duzu?**

Konfiantza dut deituko nautela kontratua berritzeko. Beste talderen batek ere interesa erakutsi dezake... Ez dakit. Berritzeko aukera badaukat, berritu egingo dut; izan ere, gustura nago Gernikan, eta jokatu ere egiten dut. Irakasle ikasketak egiten nabil, Gasteizen; inguruko elkarrekin batean jokatzea garrantzitsua izango da niretako.

**"IGOERA BURUAN  
IZAN DUGU, BAINA  
AITOR HIL ONDOREN  
DERRIGORREZKO  
BIHURTU ZEN"**

## Gazteei zuzendutako lau orduko formakuntza izango dute bihar

'Aisialdi hezitzailea' hausnarketa eta formakuntza saioa Txatxilipurdik gidatuko du; 16 urtetik gorakoendako da

**A.E. ARAMAIO**

Herrian nerabeendako dauden aisialdirako aukerak aztertzen dihardute. Apirilaren 17an, gazteei zuzendutako bilera irekia egin zuten; oraingo honetan, formakuntza saioa eskainiko dute. Txatxilipurdi elkarteak gidatuko du saioa eta lau ordukoa izango da, 09:30ean hasita.

Udaletxeko osoko bilkuren aretoan elkartuko dira, eta 16 urtetik gorakoak daude formakuntzara gonbidatuta. Bigarren bilera horretan, aisialdiaz hausnartu eta formakuntza jasoko

dute gazteek. Nerabeen aisialdirako aukerak aztertzea izango da saio horien helburu nagusia.

**Espazio falta**

Apirileko bilera irekian, 17 lagun elkartu ziren; modu dinamikoan gidatu zuten bilera eta horrek aukera eskaini zien gazteen beharren berri izateko. "Euren kezka nagusia herrian ze leku okupatu da", azaldu zuen bilerraren ondoren Oihana Ameskoa zinegotziak. Izan ere, espazio faltarena ez da berria Aramaion; baina azken urte honetan bizi

dugun pandemia egoerak handitu egin du arazoa. Orain egiten dabilzan dinamiken bitartez belaunaldi ezberdinak elkarrekin aritzeko proposamenak garatu nahi dituzte, besteak beste.

**Bilera gehiago**

Biharko bileran formakuntza jasoko dute, baina, horrez gain, aisialdiaren inguruko hausnarketa ere egingo dute: Aramaio aisialdirako eskaintzen dituen aukerak izango dituzte berbagai.

Hausnarketa prozesua amaitzeko, beste bilera bat egin gura dute. Nerabeekin berriro ere elkartu eta aisialdiaren inguruan proposamenak egitea izango da asmoa. Hirugarren bilera hori noiz izango den zehaztu barik dago oraindik. Udala eta Txatxilipurdi elkarteak elkarrekin lanean dabilta.

## Eskolarteko finalean izango dira Herrarte eta Arexolaleiba

Arabako Eskolarteko finala Agurainen jokatuko dute, bihar, zapatua, Bertsoa Bizi Gazte Egunarekin batera

**A.E. ARAMAIO**

**Oinak buruan** Arabako Eskolarteko bat-bateko finala bihar jokatuko dute Agurainen. Aramaio bi gaztetxo izango dira han: Danel Herrarte eta Gari Arexolaleiba. Eurekin batera abestuko dute Hegoi Amabizka, Maddi Agirre eta Euneke de los Aires gasteiztarrek eta Beñat Cano aguraindarrak.

Bertsoa Bizi Gazte Egunarekin batera ospatuko da eskolarteko finala. Egunari hasiera 10:00etan emango zaio, BBG lehiaketako bideoen proiektzio eta sari ba-

naketarekin. Ondoren, Eskolarteko bat-bateko finala izango da.

Maiatzean zehar gainerako lurraldeetako finalak jokatuko dira –ekainean jokatuko dute Lapurdikoa, Nafarroa Beherakoa eta Zuberoakoa–. Euskal Herriko Eskolarteko finala, aldiz, udazkenean izango da.

Ikastolen Elkarrekin eta Bertsozale Elkarrekin antolatzen dute Eskolarteko Txapelketa: aurten, 33. aldiz. Eta, besteak beste, gazteei jendaurrean bat-batean jarduteko aukera ematea du helburu.



Koldo Zubillaga, Maialen Alkorta eta Asier Mujika, aurkezpenean. TXOMIN MADINA

## Nerabeen artean jarduera fisikoa sustatzea helburu

Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako ikasleentzako programa jarri dute abian Ibarra kiroldegian. Atxabalta Mugi proiektuaren barruan dago ekimena, eta 16 urteko 133 gaztetxok parte hartuko dute, lau astean zehar

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Dagoeneko sei urte bete dituen Atxabalta Mugi ekimenak jarduera fisikoa sustatzeko programa eskainiko die Kurtzebarri eskolako eta Arizmendi ikastolako 16 urteko ikasleei. Ibarra kiroldegian elkartuko dira 133 gaztetxo, Gorputz Hezkuntza irakasgaiari dagozkion orduetan: "Kiroldegiko bertako eskaintza ezagutzea eta bizimodu aktibo eta osasuntsua izatearen garrantzia azpimarratzea da helburua", azaldu du Maialen Alkorta, Atxabalta Mugiren arduradunak, Koldo Zubillaga Kirol zinegotziak eta Asier Mujika Kirol teknikariak babestuta.

Lau astean hiru kirol jardue- ra probatu ahal izango dituzte: GAP, cycling eta circuit training izenekoak. Maiatzarekin batera hasi dira horretan, eta, behin bukatuta, nerabeen ordutegietara egokitutako ikastaro horien eskaintza egitea da asmoa: "Horrela, eskola ordutegitik kanpo kirola egiten jarraitu ahal izan-

go dute". Hain zuzen, 16 urteko ikasleak aukeratu dituzte, kirola uzten duten gazteen "tasa handiena" dagoelako adin tarte horretan. Hiru hilabete pasatutakoan, jarraipena egingo diete parte-hartzaileei, proiektuak euren ohituretan izan duen eragina aztertzeko.

### Adinekoekin lanean

Bestetik, joan den otsaila ezke- ro, adinekoen gaitasun funtzio- nala neurtzeko eta lantzeko programa daukate martxan. 70 urtetik gorako hamar herritar- rrekin dabil lanean Atxabalta Mugi. Hasteko, hainbat neurke- ta egin zizkieten horiei: jardue- ra fisikoaren maila, erorketa arriskua, elikadura ohiturak

**ADINEKOEN GAITASUN FUNTZIONALAREN PROGRAMAK OSAKIDETZAREN INTERESA PIZTU DU**

eta lesio muskulu-eskeletikoen lehen neurketa. Ondoren, 30 minutuko saio praktiko pertso- nalizatuak izan dituzte –indar, oreka, martxa, malgutasun ari- ketak...– Eta ekainean beste neurketa bat egingo diete, au- rrerapena ikusteko.

Esperientzia horrek Osakide- tzaren "interesa piztu" duela jakinarazi dute. Horren harira, Osasun Saileko ordezkariak programa ezagutzera gerturatu dira. "Oso interesgarria iruditu zaie, eta uztailan berriro elkar- tuko gara; elkarlanerako bide bat ireki dugu", jakinarazi du Alkorta.

### Bulegoa zabalik bi egunetan

Atxabalta Mugira edonor ger- tura daitekeela gogorarazi dute. Kirol orientazio zerbitzuaren bulegoa kiroldegian dago, eta astelehenetan eta eguaztenetan zabaltzen dituzte ateak. Gainera, uda ostean berriez ere elikadu- raren gaineko hitzaldiei heltze- ko asmoa agertu dute.

## NIRE USTEZ

OIER ZUMARRAGA

### Sarraskia

Kolonbiako Cali eta Bogota hiriak segurtasun-indarren eta herritarren arteko liskarren agertoki izaten ari diren bitartean, agerian geratu da Duque presidenteak eta Alberto Carrasquillak –Ogasuneko ministroa– aurrera eramandako zerga erreforma icebergaren punta soilik izan dela.

Manifestazioek klase baxuen eta ertainen zerga igoera zekarren erreforma deuseztatu dute, baina kaleetan mobilizazioek ez dute etenik.

Biztanleriak urteetan jasan duen abusu sistematiko honen atzean, pobrezia, errepresioa, prekarietatea eta desperekotasuna daude. Kolonbiak, egoera honen aurrean, oihu batez aski dela esan du.

Estatuaren erantzuna berehalakoa izan da: 24 hildako, indarkeria fisikoko 200 kasu, 10 sexu eraso, 900 atxilotu baino gehiago...

Badirudi adierazpen askatasuna zalantzan dagoen garai honetan, injustizia sozialak salatzen dituztenen aurkako abusu polizialak zilegi direla.

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

### Urkuluko behatokia, zuhaitzek oztopatuta

Urkulun kokatutako behatokitik txori gutxi ikus daitezkeela jakinarazi du herritar batek, eta zera gaineratu: "Ea zuhaitzen adar batzuk moztan dituzten, mesedez".

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

### UDak ateak zabalduko dizkie 2013an jaiotakoei

Oraingoan, 2013an jaiotako nes- ka-mutikoei zabalduko dizkie ateak UDak, kirol jarduna eza- gutzera emateko. Bihar, zapatua, dute hitzordua horiek Ibarra futbol zelaian (10:00-11:15). Bes- te urte batzuetan jaiotakoei aurretik eman beharko dute izena bertaratzeko; zalantzak argitzeko: [uda.kudeatzailea@gmail.com](mailto:uda.kudeatzailea@gmail.com) edo 659 79 44 65.

**Mobiliario  
ARENZA**

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

# Etkez etxeko zerbitzua Gizadiri esleitu diote

Azken urteetan zerbitzu hori eman duen enpresarekin jarraitzea erabaki zuen udalbatzak eguaztenean; horrez gain, Santa Kurtz kaleko lanen proiektuari oniritzia eman zioten osoko bilkuran, baita inbertsioei heltzeko mailegua kontratatzea onartu ere

**Mirari Altube** ARETXABALETAK

Etkez etxeko zerbitzuaren lehia- ketara lau enpresa aurkeztu ziren, eta, eguaztenean eginda- ko ohiko osoko bilkuran, udal- batzak erabaki zuen Gizadi enpresari ematea horren ardu- ra. Prezioa zehaztu dute 425.000 eurotan urtero, eta orduaren prezioa 26 eurotan finkatu –BEZa barne–.

Azken urteotan ere enpresa horrekin egin du lan Udalak, eta hala jarraitzea erabaki dute. Etkez etxeko zerbitzuak gero eta erabiltzaile gehiago dituela adie- razi du Udalak, bereziki pande- mia egoera dela eta; horregatik, "zerbitzua egonkortzearen alde" egin gura izan dute, "kalitatea- ri eutsita". Gizarte Zerbitzueta- ko zinegotzi Karmele Uribarri gustura agertu zen: "Esfortzu handia egin dugu hori guztia lortzeko. Horregatik, pozgarria da prezio igoera langileen egoe- ra hobetzeko izango dela jakitea". Lau urterako kontratua sinatu- ko dute, beste urtebetez luzatze- ko aukerarekin. EH Bilduk adierazi zuen Gizadi "berme ona" dela, baina abstenitu egin zen bozketan.

**Santa Kurtz kalearen proiektua**

Hainbat inbertsiori heltzeko ezinbestekoa duen mailegua



Udalbatzako kideak osoko bilkuraren une batean, eguaztenean. MIRARI ALTUBE

kontratatzea ere onartu zuen udalbatzak. 2.695.639,54 euroko mailegua izango da, zortzi urtean ordaintzeko, eta Kutzak eskai- nitakoari eman diote baietza, "baldintza onenak" dituelako. EH Bilduk babestu egin zuen Udal Gobernuaren proposame- na, "erantzukizunagatik".

Agintaldi honetako inbertsioen artean, bi dira azpimarragarrie- nak: komentua birmoldatzea eta Santa Kurtz kaleko hornidura eta saneamendu lanak. Hain zuzen ere, lan horien proiektua aurkeztu zuten osoko bilkuran,

onartua izan zedin. Udal Gober- nuaren asmoa da lanak lizita- ziora ateratzea orain, eta irailean hastea exekutatzeko. EH Bilduk abstenitzea erabaki zuen, pro- zesu hasieran izandako desa- dostasun batzuk direla eta.

Bestetik, Aozaratza auzoan lursail batzuk ditu errentan Udalak, eta erabaki zuten horien ardura izan duen baserritarra- ri uztea beste bost urtez. "Zelai horretako hesiak aldatu egin ditu, eta, Udalak ordaindu arren, lan handia hartu du", jakinara- zi zuen alkateak.

## Herriarteko txapelketari etxean ekingo diote aretxabaletarrek

Partiduak domeka goizean jokatu- ko dituzte; gaur, ostera, Udaberri Txapelketarekin jarraituko dute

**M.A. ARETXABALETAK**

Herriarteko txapelketari ekingo diote aste bukaeran eta UDAko pilotariak etxean dituzte lehe- nengo partidua. Domekan, hilaren 16an, jokatu- ko dituzte, Iturri- gorri pilotalekuan (11:00).

Kadeteek, gazteek eta nagusiek jardungo dute nor baino nor gehiago eta Hermaniko pilotariak izango dituzte aurrez aurre. Juan Mari Errasti entrenatzaileak taldea sortu izanari eman dio balioa: "Ez genuen hutsik egin gura; horregatik, parte hartze- ko beste jende elkartzeko saiatu gara

eta aurrera egin dugu. Ea par- tidu txukunak jokatzeko dau- katen eta tanto kopuru handia egin; oso garrantzitsua da hori".

**Udaberri Txapelketa, aurrera**

Bestetik, gaur, egubakoitza, Udaberri Txapelketari dagozkion bi partidua izango dira Iturri- gorri, (19:00). Gazteek Zaldibiako bikote bat hartuko dute eta na- gusiek, Errenteriako bat. Hain zuzen, nagusiek joan den astean ez zuten jokatzeko izan, pilota- ri baten lesioagatik, eta orain- goan, bi partidua izango dituzte.

## Pirinioetako mendietan bizitako abenturaren filma gaur, Arkupen

'Granito Buffet: Vagabundos pirenaicos' eskainiko dute; domekako film laburren emanaldiak atzeratu egin dituzte

**M.A. ARETXABALETAK**


Dokumentalek harrera beroa izan dute azken hilabeteotan Arkupen, eta gaur, egubakoitza, eta maiatzaren 21ean *Granito Buffet: Vagabundos pirenaicos* ikus-entzunezkoa eskainiko dute (19:00). Lan horrek jasotzen du Ivan Roucok eta Iñigo Irureta- goienak bizi izandako abentura, Pirinioetako 214 hirumilakoak igo zituztenekoa, hain zuzen ere: ibilgailurik erabili gabe, kan- poko laguntzarik gabe, aterpee- tan lo egin gabe eta ia baliabi- derik gabe.

**Zinegoak, atzeratuta**

Bestetik, Bilboko Gaylesbotrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiak (Zinegoak) geldialdia egiteko zen Arkupen maiatzaren 16an, eta hiru film labur eskaini. Baina Udaletik jakinarazi dute atzeratu egingo dituztela emanaldi horiek; da- tarik ez dute zehaztu.

**Euspot, sari banaketa**

Maiatzaren 27an, ostera, Euspot euskarazko spot lehiaketako sari banaketa ekitaldia izango da Arkupen (19:00).



**Odontologia estetikoa**  
**Endodontzia**  
**Implantologia**

**Ortodontzia**  
**PADI zerbitzua**  
**Hortz protesiak**

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00  
Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55

# Irisingarritasuna hobetzeko hiru proiektu nagusi

2021eko Irisingarritasun Planaren hedapena izan zuten berbagai martitzeneko ezohiko osoko bilkuran Eskoriatzako udalbatzako kideek. Hiru proiektu nagusi egitea aurreikusi dute, eta horiek gauzatzeko 217.103,04 euro bideratuko dituzte

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak premiazko gabeziak antzeman ditu irisingarritasunaren arloan, eta horri erantzuteko hiru proiektu nagusi ezarri ditu; martitzeneko ezohiko osoko bilkuran hizpide izan zituzten. 2008ko Irisingarritasun Plana eta 2021eko plan-gintza handitzea jasotzen duen gai bakarria izan zuten berbagai. Hain zuzen ere, hiru proiektu nagusi finkatu dituzte: oinezkoentzako pasabide goratua Gaztañadui kalean; Hidalgo eta Olazar kaleen artean, zehazki, Sorautz baserriaren inguruan, oinezkoentzako ibilbideak berantolatzea; eta Intxartxueta plazan arrapala egitea.

Proposamena aurrera aterazen EAJren eta Eskoriatzako Elizateen Elkartearen baiezko botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin.

## Pasabide goratua Gaztañadui

Santa Ana auzotik Gorosarri plazarainoko zebra-bidean alde batetik bestera jende askok gurutzatzen du. Horregatik, Luis Ezeiza ikastetxea, Joseba Iñurrategi pilotalekua, gaztelekua, Kulunka haurtzaindegia eta Santa Ana auzoa bera Gorosarriko plazarekin lotzeko oinezkoentzako ibilbidea bat

sortzea izango da Irisingarritasun Planean jasotzen den lehenengo proiektuaren asmoa. Lan horietarako 25.918,20 euro bideratuko dira, BEZa barne: pasabidea goratzeko, zoladura hobetzeko, trafiko seinaleentzako eta argiztapenerako.

## Sorautz inguruko lanak

Hidalga eta Olazar kaleak elkartzen diren eremuan, zehazki, Sorautzeko bi eraikinetarako sarbidean, egingo dituzte Irisingarritasun Planaren handitzeak jasotzen dituen proiektuko bigarren lanak. Azken eremu honetan oinezkoen zein bizikleten joan-etorri handia izaten da, edukiontzia behar bezala antolatu gabe daude errepide eta bidegorri artean, espaloi estuak daude, oinezkoentzako eta ibilgailuentzako igarobideak nahastu dira... Hala, lan horietarako aurrekontu proposamena 135.079,56 euro da, BEZa barne: galtzada altxatzea, zoladurak egokitzea,

## EAJ-REN ETA ELIZATEEN BAIEZKO BOTOEKIN ETA BILDUREN ABSTENTZIOAREKIN ONARTU DIRA

oinezkoentzako pasabidea jartzea, bidegorriaren ondoan espaloia sortzea, trafiko-seinaleak jartzea, argiztapena...

## Intxartxueta arrapala

Intxartxueta auzoak zenbait sarbide eta lotura ditu, baina plazatik goiko auzora simetria sortzea izango da hirugarren lanen proposamenaren xedea. Lotura horretan eskailerak daude batetik bestera pasatzeko orduan, baina eskailerak eta arrapalak diseinatu eta jarri gura dira, ibilbide irisingarriagoa izateko asmoz. Azken lan horietarako 56.105,28 euro bideratuko dira: arrapalak jartzeko, zoladurak egokitzeko hormigoizko hormetarako, indusketa eta eraispenetarako eta argiztapenerako.

## Eusko Jaurlaritzari eskaera


Proiektu horiek gauzatzeko 217.103,04 euro bideratuko dira, eta 2021 eta 2022 bitartean egitea aurreikusten da. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak irail aldera aterako dituen dirulaguntzak direla-eta eskaera egingo dute, horiek jasotzeko asmoz. Dena den, jendaurrean jarriko da Irisingarritasun Plana, eta, hain zuzen ere, ekarpenak egiteko aukera izango da.



Gaztañadui kalea, autobus geltokia dagoen eremuan. ESKORIATZAKO UDALA



Sorautz baserri pareko bidegurutzea, bidegorritik ateratako erretratuan. I.B.



Intxartxueta auzoko eskailerak. ESKORIATZAKO UDALA

## Mugikortasuna hizpide

Elizateetan mugikortasun kolektiboa sustatzeko lau proiektu aurkeztu dituzte Ibarraundin. Egitasmoa Fundacion La Caixa finantzatutakoa da eta 2020ko Landa eremuetako ekintza soziala programaren barruan kokatzen da. Bailara osora zabaltu nahi dute ekimena, nahiz eta muga administratiiboengatik hasieran Eskoriatzan jarriko duten martxan.



HASIER LARREA

## Film proiektzioa eta Joseba Gabilondorekin solasaldia gaur

LGTB Fobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna maiatzaren 17an izanda, Zinegoak 2021 film luzeen programazio ofizialeko *Valentina* pelikula proiektatuko da Zaldibar antzokian gaur, 18:30ean. Pelikula amaitu ondoren, berriz, solasaldia izango da Joseba Gabilondo Markes eskoriatzarrarekin, Hiruki Larrosa Kolektiboko kidearekin.

Horrekin batera, hilaren 21ean, Zinegoak-eko film labur sorta bat eskainiko da Zaldibar antzokian, 18:30ean. Guztira, sei ikus-entzunezko ikusteko aukera izango da, eta, sarrera doakoa izango den arren, edukiera neurriak direla-eta gonbidapena jasotzea ezinbestekoa izango da. Horretarako, 943 71 46 88 –kultura etxea– telefono zenbakira deitu edo 650 49 51 66 zenbakira *whatsapp* mezua bidali beharko dute antzokira gerturatu nahi duten herritarrek.

# Sorgin-ehiza, umoretik landuta, era ausartean

Eskoriatzako Ausartak antzerki taldeak lan berria estreinatuko du hilaren 22an, Zaldibar antzokian. Hala ere, maiatzaren 23an eta ekainaren 5ean ere izango da aukera 'Las brujas se salem' lana ikusteko. Sarrerak kiroldegian daude salgai

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Beste ikuskizun batzuetan egin izan duten moduan, emakumeen erreibindikaziotik eta umoretik landuta beste antzezlan batekin dator Eskoriatzako Ausartak antzerki taldea. Kasu honetan, gainera, obraren izenbururako erabili duten hitz-jokoak argi uzten du emakumezko horiek antzerki honetan izango duten saltsa eta jorratuko duten gaia zein izango den. Izan ere, *Las brujas se salem* izenburupean aurkeztuko dute lan berria, eta estreinaldirako ilusioz daude, herrian antzeztzen dutenean arrakasta izugarria izaten baita. Hori aurreikusita, hiru saio eskainiko dituzte Eskoriatzan.



Ausartak taldeko kideak eguaztenean egin zuten entsegu orokorrean. IMANOL BELOKI

## Lan berriaren hiru saio herrian

Hilaren 22an, zapatua, 19:00etan izango da estreinaldia, Zaldibar antzokian, eta asteburu horretan beste saio bat ere eskainiko dute: hurrengo egunean, ordu eta leku berean. Horrekin batera, ekainaren 5ean ere eskainiko dute beste saio bat.

Sarrerak salgai daude, bost eurotan, Manuel Muñoz kiroldegian, eta, jendea animatzeko eta ikuskizunera joateko aukera izateko, lehenbailehen erosteko dei egin gura izan dute antzerki taldeko kideek.

## Geldiuneari erantzun ausarta

"Herrian estreinatuko dugu lan berria, beti egin izan dugun moduan. Eskoriatzan arrakasta handia izaten dugu, eta, hasiberriak garen arren, herritarrek egiten duguna gustuko dutela dirudi", adierazi du Ausartak antzerki taldeko Mari Carmen Fernandezek. "Duela hiru urte prestatu genuen antzezlan da, baina alde batera utzi genuen; gero, pandemia ere etorri zen... Hala ere, lana berrartu dugu, eta ondo landu. Maskarekin aritu gara entseatzen, eta, Au-

sartak taldea zazpi kidez osatuta dagoen arren, Zaldibar antzokiko oholtza gainean sei emakume arituko gara antzeztan. Bizi dugun egoera gogorraren aurrean, herritarrek dibertitzen saiatuko gara, eta ea gustukoa izaten den".

"Emakume bat desberdina, azkarra, askea eta ausarta denean, *sorgina* deitzen diote. Kritikatu nahi badute, kritika dezatela; guk esaten dugun moduan, *estamos que nos salimos*, eta esamolde honi erreferentzia eginez igoko gara taula gainera".

## Espainiako klubaren arteko kenpo txapelketan, hamabi domina

Atama taldeko borrokalariak urrezko lau domina, zilarrezko hiru eta brontzezko bost batu dituzte

**I.B.** ESKORIATZA

Guadalajarako Alovera herrian Klubaren Arteko Kenpo Txapelketa jokatu zen joan den asteburuan, eta Eskoriatzako ordezkariak ere izan zen parte hartzen. Taldeko hamaika bo-

rrokalarik izan ziren borroketan parte hartzen, sei gizonezko eta bost emakumezko, bakoitza bere kategorian.

Leire Rato, Arianne Piñero, Naroa Collado, Kleo Azpiazu, Juan Antoni Garcia, Ion Garcia,

Alejandro Campos, Cristian Collado, Ramon Franco eta Otavio Oscar Luz de Paula izan ziren borrokalariak. Gainera, Ioseba Izurrategi aritu zen entrenatzaile eta Rafa Carriet, bestalde, epaile.

Espainiako txapelketan jokatutako bi jardunaldiren ostean, Atama Eskoriatza eskolako kirolariak emaitza bikainak lortu zituzten. Izan ere, urrezko lau domina, zilarrezko hiru eta brontzezko bost domina ekarri zituzten handik.

# LEINTZ GATZAGA | 19



laz, udalekuetan, haurrak loreak landatzen aritu ziren. GUREL GURASO ELKARTEA

## Udalekuen datak zehazteko galdeketa egin dute

Domekara arte izango dute aukera guraso elkarteak bazkideek uztaileko jarduerara begira erabakia hartzeko

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Gurel Guraso Elkarteak kideek Doodle plataforman erabiliz galdeketa egin diete Gatzagako guraso elkarteak bazkideei, udaleku irekietara begira datak zehazteko. Hiru aukera jarri dituzte: uztaileko lehen bi asteetan egitea Leintz Gatzagako udalekuak, bigarren eta hirugarren asteetan egitea edo irteera solteen aldeko apustua egitea.

Galdetegia jaso dutenek domeka honetara arte izango dute hiru aukeretak baten alde egiteko, eta, horren ostean, hurren-

go pausoak emateko gertu daudela adierazi dute Gurel Guraso Elkarteak ordezkariak.

## Erabaki ostean, plangintza

Udaleku irekien dataren gaineko erabakia hartzen dutenean, aurrera begirako plangintza hasiko dira prestatzen. "Hiru aukera ditugu, eta erantzun horren arabera antolatuko ditugu Leintz Gatzagako udalekuak. Plangintzarekin jarriko gara gero buru-belarri, eta dena zehazterakoan izen-ematea irekiko dugu", adierazi du Gureleko Nerea Altunak.



IMANOL SORIANO

## Altxorraren bila, disfrutatzen

Gatzagako ludotekak antolatutako ekintzen barruan, herriko neska-mutikoak kaleetan gora eta behera ibili ziren joan den egubakoitzean, altxorraren bila. Haurren gustura prestatutako ekintza izan bazen ere, altxorrak topatzeko zailtasunak izan zituzten, eta, horretarako, herriko txoko guztietatik pasatu behar izan zuten, horien bila.



Energia berriztagarri hornituko diren eraikinetako bi: Olaran eta Herri Eskola. MAIDER ARREGI

# Udal eraikinetan energia jasangarri hornituko dira

Aho batez onartu du udalbatzak Antzuolako hainbat udal eraikin energia jasangarri hornitzeko proiektua. 64.800 euroko kostua du, eta ia erdia Gipuzkoako Aldundiko dirulaguntzekin finantzatu da; bost bat urtean amortizatzea du xede Udalak

## MAIDER ARREGI ANTZUOLA

Martitzeneko ezohiko osoko bilkuran, aho batez onartu du udalbatzak autokontsumo fotovoltaikorako proiektua. "Iaz Goienerekin egindako azterketak ondorioztatu du zenbait udal eraikinetan plaka fotovoltaikoak jarrita eraikinetan energia jasangarri hornitzea posible dela. Aurrekontuetan sartuta dago proiektua; ez, ordea, dagokion diru kantitatea. Hala, behin proiektua jasota, Hirigintza eta Ogasun batzordetik igaro da – kreditu aldaketa egin da –, azaldu du Beñardo Kortabarriak.

128 bat plaka fotovoltaiko jarriko dira eskolako eta pilotalekuko teilatuetan. Energia jasangarri hornituko dira, aldiz, Udala, eskola, pilotalekua, Torresorua, gaztetxea eta Olaran. "Hamar urtean amortizatuko litzateke. Aldundira eskatu dugu dirulaguntza, eta amortizazioa bost bat urtera jaitsiko litzateke laguntza horiei esker. Filosofia aldaketa ere badakar; geure ba-

liabideak geuk ere erabiltzekoa, alegia". Proiektuaren kostua 64.800 euro pasatxokoa da eta dirulaguntzen bitartez erdia finantzatu da xede Udalak.

Bestalde, EAJk eta alderdi sozialistak esan dute txosten teknikoaz gain informazio praktikoagoa jasotzea eskertuko luketela: "Txosten teknikoak ez du laguntzen eztabaida politikoa. Zein onura dakarren ezagutzea, zein esperientzia dauden jakitea... Proiektuarekin ados egon arren, bestelako azalpena ere eskertuko genuke gaia errazteko".

Alkateak bi alderdiko ordezkariari esna die txosten hori iazko otsailean helarazi zirela eta batzordeetan ere landu dutela, denboraz.

**'GEURETIK SORTUAK' EKIMENAREN BAITAN, IRAILEAN DOLUAREN GAINEKO ANTZEZLANA ESKAINIKO DUTE**

## 'GEURETIK SORTUAK'

Ezohiko osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko botoekin, Udalbiltzaren *Geuretik sortuak* proiektuarekin bat egitea onartu dute. Ekimenak euskal kultura lehen lerroan jarri gura du eta sormen-egonaldietan ekoiztutako obrek egingo du hedapen-zirkuitua. "Bergara eta Elgetarekin parte hartuko dugu proiektuan. Doluaren inguruko kultura proiektua izango da, eta Oier Zuñiga iruindarrak egingo du. Irailean egingo dira emanaldiak hiru herrietan", azaldu du alkateak. Hala, Antzuolako Udalak bi urtean ia 9.000 euro jarriko ditu.

EAJ eta alderdi sozialista abstenitu egin dira. "Euskaraz sortutako kultura ekimenen alde gaude, baina planteamenduari ez gaude ados eta alderdi bateko ekimena dela deritzogu. Baditugu Aldundia edo Eudel bezalako erakundeak non herriaren kulturaren mesederako ikuspegi zabalagoa duten", adierazi du Miren Elgarrestak.



EZ DUT MOZTUKO BIZARRA

## Herritarrak, Trekutzen eta Arrolan

Zapatuan, Izan Bidea ekimenaren baitan, antzuolarrek Trekutzeko eta Arrolako tontorretara eraman zuten *Preso eta inbestigariek etxera!* aldarria. Argazkian, Trekutzera igo ziren herritarrak daude. "Erronka itzela" izan zela aitortu dute antolatzaileek, eta pozik daude deialdiak izandako erantzunarekin, bai Antzuolan eta baita Debagoien osoan ere.

## Odol-ematea egingo da hilaren 18an Olaran etxean

Urteko bigarren odol-ematea deitu du Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteak Antzuolan. Maiatzaren 18an, datorren asteko martitzenean, izango da herrian odola emateko aukera. Arratsaldean 16:30etik 20:10era bitartean egongo da odola emateko aukera Olaran etxean, eta, hala, 50 pertsona baino gehiago hartzea aurreikusten dute. Pandemiaren

zabaltzea eragozteko segurtasun neurri guztiak bete eta jendea pilotatzea saihestu nahi du Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteak.

Odola ematera joateko asmoa duten antzuolarrek, ordea, aurrez txanda hartu beharra dute, eta martitzenean, hilaren 18an bertan, goizez deitu beharko dute ondorengo telefono zenbakira: 943 00 78 84.

Urteko hirugarren eta azken odol-ematea irailean egingo dutela adierazi dute herriko Odol Emaleen Elkartearen kideek.

## GORA ETA BEHERA



## Patioak, zortzi eserleku gutxiago

"Badirudi jendea indartsu ibili dela asteburuan. Ez dakigu noiz gertatu den, baina gu astelehen goizean ohartu gara. Batzuen ekintza denon kalterako dela gogoratu", adierazi du alkateak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

# "Natura entzun eta lurra leheneratzea da gakoa"

UNAI BEITIA ITTARBALTA USTIAKETA

Baserri aurreratua izateko oinarriak azalduko ditu Mungiako Iturbaltza ustiaketakokide Unai Beitiak. Solasaldia gaur 18:30ean Torresoroa aretoan izango da

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Berrikuntza ekonomian, ingurugiroan eta gizartean dakarrela nekazaritza eta abeltzaintza birsortzaileak dio Iturbaltza ustiaketakok Unai Beitiak. Lurra leheneratzeak duen garrantziaz jardun du GOIENArekin.

**Zer da nekazaritza eta abeltzaintza birsortzailea?**

Naturaren alde lan egitea da. Izan ere, orain arte, gizakiak elikagaiak sortzeko monolaborantzaren alde egin du. Abeltzaintzari dagokionez, pentsu konpostatu asko erabiltzen dira, etekin ekonomikoa lehenetsiz eta haragiaren emaitzan erreparatu gabe. Horrek dakar zereal produkzio ikaragarria ekoiztea eta gu horietaz elikatzea. Jakin behar dugu, ordea, naturak eraso horri aurre egiteko mekanismoak jartzen dituela.

**Osasunarekin lotuta dago, beraz.**

Bai. Gizartean ez da transmititzen ekologikoaren garrantzia. Logikoa den bezala, garestiagoa da. Sistemak produkzio handiak sustatzen ditu; horregatik, usiapien birsortzaile txiki bat jarri nahi duenak Europako araudia-ekin talka egiten du, ez baitago erregulatuta. Oilasko haztegi handi bat jarri nahi duenak, aldiz, errazago dauka.

**Abeltzaintza birsortzailearen ezaggarri nagusia zein da?**

Larreetan, bazkaleketan ibiltzeko modua. Gakoa da lursailak sail txikietan banatzea artzain elektrikoaren bitartez, eta modu horretan ganadua txandakatzea. Hala, sail bakoitzean gehienez sei-zortzi egun edukitzen da, eta ondoren beste sail batera aldatu. Transhumantziaren oinarria da. Garai bateko artzainek egiten zuten bezala.

**Zein onura ondorioztatu dituzue?**

Metodo honek lana eskatzen du, artzain elektriko bidez sailak banatzen ibiltzea, eta ura jarri behar izatea hainbat gunetan. Baina abereengan onura izuga-



Unai Beitia, Iturbaltza ustiaketakok larrean. UNAI BEITIA

## "GEHIEGIZKO LARREEN ERABILERAREN ONDORIOZ SORTZEN DIRA ABEREEN PARASITOAK"

rriak ikusi ditugu jada. Abereak hobeto daude, eta ez zaie parasitorik hil behar. Ohiko abeltzaintzan, aldiz, oinarritzakoa da desparasitazioa. Gehiegizko larreen erabilerak sortzen ditu animalien parasitoak, larrea kutsatu egiten delako. Parasitoen zikloa eteteko modua ere bada abeltzaintza birsortzailea.

**Larreak, beraz, behar duen denbora eta atsedena ematen zaio.**

Bai; 21 egun baino gehiago behar dira parasitoen zikloa eteteko. Hau da, ganaduaren gorotzetan sortzen diren parasitoen arrautzak hiltzeko. Izan ere, ez daukate belarjalerik, eta parasitoen oreka hori hil egiten da. Gainera, ganadua sei egun baino gehiago mugitu gabe badago larrean, belarrik gozoena jango du. Hala, gozoenak ahuldu –lekadunak, hirustak...– eta ez hain gozoenak indartu egiten dira.

**Ganadua txandakatzea ere ona da?**

Bai, noski. Espezieen alternantzia horrek parasitoak ekidin ez ezik, larreendako onurak dakartza. Baina %100ean dena ondo egitea oso zaila da. Naturaren erritmoa eta zikloak ez doaz gizakiaren erlojuarekin; beraz, oso zaila da. Sistema honek dakarrena da animaliekin gehiago egon behar dela, eta inbertsioa egin behar dela bai artzain elektrikoak jartzeko, baita ura larreetara eramateko.

**Zein ondorio ateratu dituzue?**

Gurea bizitza proiektu bat da eta bagoaz onurak ikusten. Baina zortzi-hamar urte pasa ostean ikusten omen dira onurak. Guk bost bat urte daramatzagu Iturbaltza ustiaketa proiektuarekin. Ehun hektarea baino gehiago erabiltzen ditugu, baina guztietan ezin dut metodo hau erabili, zenbait zailtasun ditudalako: errepidea, distantziak... Hala ere, gure xedea da larreetako haragia ekoiztea. Pentsua ez diegu ematen –soilik araudi ekologikoak baimentzen duena, eta txahalei-. Haragia osasuntsuagoa da, baina zapore ezberdina du, eta oraindik ohitu egin behar dugu horretara.



Martitzenean, Aritz Ganboaren aurkezpena entzuten herritarrak. MAIDER ARREGI

## Aritz Ganboa artzainak eman dio hasiera baserritarren asteari

Antzuolako baserritarren sasoiko produktuak eta artisau lanak izango dira biharko azokan protagonista

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Bihar, maiatzak 15, baserritarren eguna da, San Isidro. Horren bueltan hasi dira antzuolarrak nekazaritzaren eta abeltzaintzaren inguruko gaiak mahai gainean jartzen eta hausnartzen.

Martitzenean, esaterako, Aritz Ganboa artzain arruazuarrek solasaldia eta *Bideak* filmaren emanaldia eskaini zuen Torresoroan. Landa eremuko bizimodua eta kultura aldarrikatzeko ikus-entzunezkoa da, eta bertan izan zen baita ere dokumentalaren zuzendari Xabier Unanua azalpenak ematen.

**Baserritarren azoka**

Guztira, hamaika ekoizle eta artisau antzuolarrak jarriko dute postua biharko azokan. Bertakoendako eta herriko ekoizleendako azoka izango dela azaldu du Udalak. 11:00etan, Albo-

radak txistulari taldeak girotu-ko ditu herriko kaleak.

**'Ez da kasualitatea'**

Umorea, musika, bertsoa, jolasa, gogoeta eta emakumeen arteko konplizitatea uztartzen dituen bertso-saio musikatua egingo da bihar, 18:30ean, patioan. Onintza Enbeitak, Alaia Martinek, Maialen Arzallusek eta Oihana Iguaranek jardungo dute bertsoan. Sarrera 10 euro da.

**Emakume baserritarrak**

Lehen sektorea ardatz duen asteari amaiera borobila emateko, emakume baserritarrak oinarri dituen *Erroa eta geroa* dokumentala izango da ikusgai hilaren 17an, Torresoroan, 18:30ean.

Gogoan izan behar da ekitaldi guztietara joateko sarrerak eskuratu behar direla ohiko bideen bitartez.

## Gure Esku ekimenak sinadurak batuko ditu bihar goizean plazan

Pandemiak dena geratuta duen honetan, Gure Esku dinamika sinadurak batuko ditu bihar, San Isidro azoka eguna aprobetxatuta. "Antzuolarrak animatu gura ditugu ekimenarekin bat egin dezaten". Hala, 11:30ean plazan jarriko dute postua, *Altxa Debagoiena!* lelopean. Kamisetak erosteko aukera ere izango dela jakinarazi dute antolatzaileek.

## Martxoaren 21ean izango da hurrengo podologia zerbitzua

Maiatzaren 21ean, egubakoitza, podologia zerbitzua jasotzeko aukera izango dute erretiratuek Landatxopen bertan. Egun horretarako txanda hartu ahal izango da 943 76 62 71 telefono zenbakira deituta, 11:00etatik 12:00etara bitartean. Sarrera terrazatik izango da, eta osasun neurriak ziurtatuta daudela jakinarazi dute.



Arekak egiten Elgeta eta Kanpanzar lotzen dituen Gi-2639 errepide zatian. L.Z.L.

# Arekak egiteko eta zorua hobetzeko lanak

Langileak lanean dira eta txandakako zirkulazioa arautzeko semaforoa dago martxan Elgeta eta Kanpanzar arteko GI-2639 errepide zatian. 296.750 euroko aurrekontua dute lanek, eta uztaile arte iraun dezaketela esan du Foru Aldundiak

## Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Kanpanzarko bidegurutzean du zero kilometroa GI-2639 errepideak, eta bidegurutze horretatik oso gertu ari dira lanean, egunotan, beharginak. Txandakako zirkulazioa arautzen duen semaforoa dago ipinita. Lanek irauten duten bitartean jarraituko du bertan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Bide Azpiegiturarako Departamentuarena da GI-2639 errepidearen ardura, eta 296.750 euroko aurrekontua duten lanak abiarazi ditu. Lanen zati bat Kanpanzar eta Elgeta arteko errepide zatian egingo dute eta beste zati bat, Elgeta eta Karabieta arteko trazatuan. "Hasierako kilometro erdi pasatxoan 0,6 metroko zabalera duten hormigoizko arekak egingo dira, eta, horrekin batera, euri-urak ebakutzeko lau kutxatila berri jarriko dira", azaldu dute Prentsa Departamentutik. Horretan dihardute egunotan. Gainerako lanek errepidearen zoruarekin

dute zerikusia. Zuloak zein hondoratutako eremuak dauden lekuetan berdintze lanak egin dituzte. Aurreko asteotan aritu da zeregin horretan beste lantalde bat. Trazatu osoko zoruan konponketa lanak egin ostean azalera guztian bi geruza mikro-aglomeratu zabalduko dituztela gaineratu dute, "zoruaren gainazala berdintzeko". Horrekin batera, seinale horizontalak berriro egingo dituzte premia dagoen lekuetan.

Elgeta eta Karabieta arteko trazatuan ere aurreikusita dago konponketak lanak egitea. Erroddadura-geruza konponduko dute premia dagoen lekuetan, eta nahasketa bituminoso beroarekin estaliko dituzte zuloak. Han ere bi geruza mikro-aglomeratu zabalduko dituzte zorua berdintzeko, eta seinale horizontal berriak jarriko dituzte premia dagoen lekuetan.

Lanok maiatzean izan dute hasiera, eta Bide Azpiegiturarako Departamentutik jakina-

razi dute uztaile arte iraun dezaketela.

## Bigarren mailako errepidea

Elgetara heltzen diren beste errepide batzuekin alderatuta estua eta bihurtune handikoa da GI-2639 errepidea, baina oso erabilia Elgeta eta Arrasate arteko bidea egiteko.

Tamalez, negu honetan ere albiste izan da; izan ere, makina bat arazo izan da bertan. Denboraleak tarteko, errepidea itxita egon da hainbat egunez. Urrian, haizeak botatako zuhaitzengatik egon zen itxita. Abenduan ere bai. Urtarril hasieran, berriz, elurrak eta izotzak eragin zuten zirkulazioa ixtea. Nabaria izan zen inguruko auzuneetako

## AURREIKUSITA DAGO ELGETA ETA KARABIETA ARTEKO BIDE ZATIAN ERE LANAK EGITEA

bizilagunendako zein errepide horretan atzera eta aurrera ibiltzen diren askotariko erabiltzaileendako.

Hain zuzen ere, oso aspaldikoa da Elgeta eta Arrasate lotzen dituen bidea. XVI. mende amaierako erreferentziak daude hainbat dokumentutan. Errege bideak lotzen zituen bi udalerrriak orain bost mende. Ibilgailuendako egokitzapen lanak, ordea, ez dira hain aspaldikoak. 1972an egin ziren. Ordurako eginda zeuden Bergara eta Elorriorako errepideak (1833) zein Elgeta eta Eibar artekoa (1935). Bergarakoa da gaur egun zabalena, seguruena eta erosoena.

## Erabiltzaileen eskaerak

Semaforoan egon beharra luze egiten bada ere, pozik hartu dituzte konponketa lanak erabiltzaile gehienek. Egokitzapen gehiago ere eskatzen dituzte, ordea. Bidea zabaltzea, Kanpanzarren biribilgunea egitea eta kamioien joan-etorria mugatzea daude egindako proposamenen artean. "Errepide estua da eta zuloz beteta dago", azaldu du urte osoan zehar astean hiru bat aldiz GI-2639 errepidea erabiltzen duen kamioilari batek. "Zabaltzea eskatuko nuke. Bi kamioi larri-larri ibiltzen gara gurutzatzeko. Neurrien arabera, bi auto ere justu ibiltzen dira eremu askotan". Bergaratik buelta osoa ematea saihesten duelako erabiltzen dute Kanpanzarko errepidea elgetar askok. "Gehienetan, Kanpanzartik ibiltzen naiz", baieztatzen du beste erabiltzaile batek. "Esango nuke elgetar gehienak hortik ibiltzen garela. Apur bat gehiago zabalduko nuke, eta kamioi handien joan-etorria mugatu egingo nuke. Ulertuta daukat hiru ardatzeko kamioiak ezin direla errepide horretan ibili, baina ibiltzen dira, eta, horrelako *munstro* batekin topo egiten baduzu, larri ibiltzen zara. Bai ala bai bietako batek gelditu egin behar du. Hainbat lekutan susto ederrak hartuta nago".

Erabiltzaileek ohartarazten dute edozein unetan ager daitezkeela animaliak errepide horretan. "Ateratzen dira orkatzak, basurdeak... Elorriorako errepidean ere gerta daiteke, baina argitasun handiagoa dago Bizkai aldera. Kanpanzarren susto ederrak izan dira, eta istripuak ere bai".

## Zabalik da udako aisialdirako izen-ematea

Udalak eta gaztelekuak gaur egingo dute bilera irekia 11-14 urte bitarteko nerabeekin

## L.Z.L. ELGETA

Aisialdi eskaintza ekainaren 21etik uztailearen 23ra egongo da zabalik. Hala jakinarazi zuen Udalak eguaztenean. Zabalik da behin-behinean izena emateko epea. "COVID-19aren egoeraren arabera zehaztuko da zenbat plaza dauden, eta horren arabera egingo da plazen banaketa", azaldu dute. "Izen-emateak baino plaza gutxiago egonez gero, lehentasuna izango dute zerbitzuaren ordutegian gurasoak lanean dituztela ziurtatzen dutenek. Gomendagarria da izena emateko orriarekin batera ziurtagiriak aurkeztea". Zerbitzuaren prezioari dagokionez, aurreratu dute hobariak egongo direla errentaren arabera zein bizikidetza unitate bereko haur batek baino gehiagok izena emateagatik. Udal webgunean dago izena emateko orria.

## Bilera irekia nerabeekin

Gazteleku zerbitzuari dagokionez, itxita egon da pandemia hasi zenetik. Udalak eta gaztelekuko hezitzaileek bilera ireki batera deitu dituzte 11-14 urteko nerabeak, gaurko. Gazteen eskaerak entzutea eta aurrera begirako lan-ildoak finkatzea da asmoa. Hitzordua antzokian da, 19:15ean.

## OHARRAK

## Podologoa

Erretiratuentzako maiatzeko kontsulta astelehenean, hilak 19, izango da. Txanda hartzeko deitu egin behar da aurrez: 667 80 70 06 (Olga Fernandez).

## Garbigune ibiltaria

Etxean sortutako askotariko hondakinak jasotzeko zerbitzua Salvador kalean izango da eguaztenean.

# Udalaitz kontzesionarioa: kalitatea, teknologia eta segurtasuna bermatzen

Seat, Audi, Volkswagen eta Skoda marketako autoak dituzte salgai Arrasateko Udalaitz autoak kontzesionarioan. Begirada etorkizunera begira izanda, auto elektrikoek aldeko apustu sendoa egiten dute, horretarako eskaintza zabala izanda

Arrasateko Udalaitz Autoak kontzesionarioan Volkswagen etxeko marka guztiekin egiten dute lan: Seat, Audi, Volkswagen eta Skodarekin. Punta-puntako autoak dituzte, eta marka horiek duten berme osoa eskaintzen dute, automobil aukera benetan zabala dute bezeroen eskura. Auto bat erosi gura duen ororen beharretara egokitzen den ibilgailuen gaineko aholkua ematen dute bertan, betiere, segurtasuna eta kalitatea bermatuz, gidatzean lasaitasun handiagoa izateko teknologia eta gidatze-funtzio berritzaileekin hornitutako autoak eskainiz.

Udalaitzen, teknologia aurrekoioren aldeko apustu sendoa egiten dute, etorkizuna horixe dela argudiatuta. Auto elektrikoak errealitate bihurtu dira aspalditik, baina orain gidari asko hasi dira benetan baloratzen halako auto bat erostea. Aurre-erapenak baditu bere abantailak, eta etorkizuneko hiriak bizitzeko espazio hobetzat ikusi behar direla azpimarratuta, Udalaitz autoetako gama elektrikoaren lehen-tasun honekin diseinaturako dago: errekuntza-motorrek sortzen dituzten gasak murrizteko teknologien alde eginez eta 0 isuri dituzten propulsioteknologia berriak garatuz. "Gure kontzesionarioan ditugun marka eta modeloaren arabera, proposatzen ditugun autoen artean azpimarragarria eta beritasun nagusi bezala nabarmendu dezakeguna da online zerbitzuak eskaintzen dituztelako auto hauek, dituzten beste hainbat ezaugarriekin batera, eta merkatuan geroz eta indar gehiago hartzen ari diren auto elektrikoak direla ahaztu barik", adierazi du Arrasateko Udalaitz Autoak kontzesionarioko Jon Galdosek.

## SEAT LEON E-HYBRID

Seat etxeko Leon E-Hybrid berria energia elektrikoarekin eta gasolinarekin funtzionatzen duen ezohiko hibrido bat da. Bateria kargatu daiteke ibilgailua martxan dagoen bitartean, baina entxufatu ere egin daiteke. Auto honek duen teknologia honi esker, hibrido konbentzional edo elektriko batekin baino autonomia handiagoa lortzen du, eta motor elektrikoari esker, emisiorik sortu gabe gidatu daiteke. 204 ZP ditu, eta 64 kilometroko autonomia elektriko homologatua, WLTP zikloan –0 ingurumen bereizgarria–. Bi karrozeriarekin dago eskuragarri: bost ateko eta familiarra (Sportstourer). Erosoa, isila, eta azkarra da, eta oso erregai gutxi gastatzen du.

## AUDI Q4 SPORTBACK E-TRON

Audi Q4 Sportback e-tron berria, berri, %100 elektrikoa da, SUV kategoriakoa, autonomia handikoa eta DGTren 0 etiketa duena. Aurreko modeloekin alderatuz, karrozeria desberdinarekin, sabai lerro inklinatuagoa du, zutabe etzanagoekin, aleroi handiago batekin eta luneta txikiagoarekin. Q4 Sportback e-tron berria hiru motorizazio elektrikoekin dator: 35 e-tron, 170 ZPko motor elektrikoarekin eta 52 kWh-ko bateriarekin; 40 e-tron, 204 ZPko motorrekin eta 77 kWh garbiko bateriarekin; eta 50 e-tron Quattro, ardatz

**LAU MODELO HORIEK ELEKTRIKOAK DIRA ETA ONLINE ZERBITZUAK ESKAINTZEN DITUZTE**

bakoitzean 299 zaldiko potentzia handiarekin.

Kargari dagokionez, modu errazekoa da, eta e-tron compact sistema 26 herrialdeetara hedatuta, 200.000 karga-leku eskaintzen ditu. Hala ere, etxean bertan ere karga daiteke modu erosoan. Sistema honek eskaintzen duena baino azkartasun gehiago behar izanez gero, aldiz, wallbox sistema ere instalatu daiteke.

## VOLKSWAGEN ID 4

Mugikortasun iraunkorrako batera jauzi egitea pentsatzen duten gidarientzat, Volkswagenek eskaintzen duen VW ID 4 elektrikoa ere aukera bikaina da. D segmentuko Crossover-a da, 500 kilometrotik gorako autonomia elektrikoa duena, eta diseinuari dagokionez, lerro oso arin eta dinamikoak ditu.

Gainera, We Connect Go aplikazioa instalatuta Internetera konektatu, eta autoaren kontsumoa kontrolatu daiteke, eta non aparkatu den gogorarazteko aukera du, asistentzia automatikoa ere eskainiz, larrialdi egoera batean.

## SKODA ENYAQ IV

Skoda markaren lehen SUV-a da ENYAQ IV auto elektriko berria, 204 ZPko potentzia eta 510 kilometroko autonomia du. 4,64 metroko luzera du eta 585 litroko maletategia, markaren indargune eta bereizgarri handienetako bat. Ibilgailuak 0 eta 100 km/h arteko azelerazioa eskaintzen du bederatzi segundo baino gutxiagoan. Skodak Cockpit instrumentazio sistema birtuala ere eskaintzen du. Abiadura baino askoz gehiago erakusten duen TFT pantaila digitala dauka.



Seat Leon E-Hybrid. UDALAITZ AUTOAK



Audi Q4 Sportback e-Tron. UDALAITZ AUTOAK



Volkswagen ID 4 elektrikoa. UDALAITZ AUTOAK



Skoda Enyaq IV autoa. UDALAITZ AUTOAK



Kia eNiro. TXAPIME AUTOAK



Citroën Berlingo Urbancamper. CHAPIME TAILERRAK

# Txapime Autoak-en Kia marka salgai; Chapime Tailerrak-en, aldiz, Citroen

Gasolinak, dieselak, hibridoak eta elektrikoak, mota guztietako autoak daude Kia markako autoak saltzen dituzten Txapime Autoak enpresan eta Citroen markako ibilgailuak eskaintzen dituzten Chapime Tailerrak enpresan; eta deskontuekin, gainera

Arrasateko San Andres auzoko 5. zenbakian daude Debagoieneko Citroen automobil markaren egoitza nagusia, Chapime Tailerrak, eta Kia markaren konzesionario nagusia, Txapime Autoak. Herri mailako enpresak izanik, bezeroengandik gertu egotea, zintzoak izatea eta gardentasunez jokatzeko lehenesten dute bertan. Iaz sortutako osasun krisiak *zero kilometro* filosofian "are eta gehiago" sinistera eramanez bertako langileak, eta horretan dabilta gaur egun ere, gertuko bezeroari ahalik

eta zerbitzu osagarri eta konfiantzazkoena eskaintzen.

Esfortzu berezi horrek ibilgailuen konponketen kalitatean eta auto berrien eskaintza zabalean dauka isla zuzena. Ikusi besterik ez dago Citroen eta Kia marken azken nobedadeak.

## CITROEN AUTOAK, PRAKTIKOAK

Nabarmenezkoa da iazko abenduan kaleratutako C4 berria. %100 elektrikoa, gasolina edo diesel motorduna eskuratzeko aukera dago Chapime Tailerrak-en. Lur guztietara moldatzen

den bost ateko ibilgailua da, 50 litroko deposituarekin eta aurreko trakzioarekin.

Teknologia hibridoko ibilgailu entxufagarrien bila dabilta-nek ezin dute C5 Aircross modeloa alferrik pasatzen utzi. Diesel eta gasolinazko motorduna da, oster, C3 Aircross modeloa, eta heltzeaz dago itxura berriarekin.

Eguraldi ona izaten denean abentura bila doazenendako aukera aproposak dira Berlingo Camper eta Urbancamper. Oso praktikoak dira, urteko

egun guztiak bidaiatzen pasatzeko eta hiriguneetan eroso ibiltzeko baitaude diseinatuta. Zazpi plaza lortu ditzaketen autoak dira, sabai altzagarria-ekin eta osagai guztiekin ekipatuta –ohe altzaria, sabaiaren isolatzailea, ilungailuak, eta abar-. Gainera, deskontua darte ibilgailuek.

Berrikuntzarik handienak espero dituztenei, berriz, ondo etorriko zaie jakitea C5 X modeloa 2021eko bigarren seihilekoan kaleratuko dela. Bereizgarrieta-ko bat izango da SUV autoak baino baxuagoa izango dela.

## KIA MARKA, FAMILIARENTZAT

Bestalde, Kia markako autoen artean ere eskaintza erakargarriak daude Txapime Autoak-en. Izan ere, hibrido leuneko teknologia –MHEV– dakarte Kia Rio, Ceed, X-Ceed, Stonic eta Sportage modeloei, eta elektrikoak ez diren arren, ECO etiketa daukate motorrek.

Oso agerikoa da auto elektrikoaren alorrean ere apustu interesgarria egin duela Kiak, eta Niro PHEV, X-Ceed PHEV, Ceed Tourer PHEV, Sorento PHEV,

eNiro, Esoul eta Sorento HEV dira horren adibide.

## BEZEROEI DIRULAGUNTZAK

Atera berri den Moves III Planaren laguntza interesgarriak lortu ahal dira, gainera, aipatutako ibilgailu elektrikoetan. 7.000 euroko gehienezko laguntza jaso dezake zazpi urte edo gehiagoko antzinatasuna duen autoa entregatzen duenak, eta 4.500 eurokoa ibilgailu zaharrik itzultzen ez duenak. Azkenik, Jaurilaritzak iragarri berri duen Renove Planaren barruan, diesel eta gasolinazko auto batzuek 2.000 eurorainoko laguntza izango dute, eta elektrikoetan 3.000 eurorainokoa; kalifikazio energetikoak markatuko du kopurua. Ekainaren 1ean hasiko dira martxan laguntza horiek, eta, hasiera batean, ez dira Moves III Planarekin bateragarriak izango.

**ABIAN DIRA MOVES III PLANAREN LAGUNTZAK; HILAREN 1EAN HELDUKO DA RENOVE PLAN BERRIA**



OPEL MOKKA BERRIA.  
TEKNOLOGIA ZURE ESKURA.

San Andres auzoa 10-D  
Tel.: 943 77 30 10



# Amets Berezaio tailerra, bezero guztientzako

Inguruko edonorentzat aproposa den ibilgailua aurkitzen saiatzen dira Oñatiko enpresan, bakoitzaren behar eta egoerara moldatuz. Teknologia berriak eta segurtasuna uztartzen dituzte salgai dauzkaten Opel eta Ford marken modeloei

Auto berria zein bigarren eskukoa erosi nahi dutenentzako ezinbesteko geltokia da Oñatiko Berezaio auzoan dagoen Amets Berezaio kontzesionario eta tailerra. Pandemiaren hasierak eragindako automobilgintzaren krisia pixkanaka atzean uzten dabiltzala igarri dute azken hilabeteetan; are gehiago, hobekuntza etorriko dela espero dute bertako langileek: "Dagoneko hartua dugu martxa ederra, eta aurrera begira are eta egoera hobean egongo garela uste dugu".

Jarrera baikor hori izateko, gogotik lan egin dute Amets Berezaion, profil guztietako be-

zeroen arreta eureganatzen, besteak beste. Horren adibide da gazteei begira irekitako Instagram kontua, komunikatzeko metodo horrekin "mugimendu handiagoa" sumatu baitute.

Bestalde, tailerrean mota guztietako konponketak egiten dituzte; alde batetik, konponketa mekaniko eta elektrikoak, eta, bestetik, txapa eta pinturakoak, bezeroari ahalik eta zerbitzu onena eskainita. Pandemiara ere egokitu dira, etxera edo lantokira autoaren bila joateko zerbitzua ere eskaintzen baitute. Autoa tailerrean dutenentzat sei ordeko ibilgailu dauzkate uzteko moduan.

## OPEL MOKKA AUTOA

Alemaniko marka horretako eskaintzei dagokienez, diesel motorra, gasolinazkoa edota elektrikoa nahi dutenentzat, aukera-aukerakoa da Opel Mokka berria. Diseinu dinamiko, indartsu eta leuna dauka, eta barrualdean harmonia, espazioa eta punta-puntako berrikuntzak dira nagusi.

## FORD KUGA AUTOA

Modelo horrek motorizazio aldetik eskaintza zabala du, gasolina, diesel eta hibrido aukerekin. Barrualde moderno eta espazioz beterikoa dauka; gainera, natura errespetatzen du.



Goian, Opel Mokka modelo; eta behean, Ford Kuga autoak. AMETS BEREZAO



*Zutaz arduratzen gara*



Audi Q2      VW Caddy      VW T-Roc      Skoda Kodlak      Seat Arona



**UDALAITZ S.L.**  
Gipuzkoa etorbidea 36  
20500 Arrasate

Tel.: 943 71 18 70 | Faxe: 943 71 18 71  
udalaitz@otola.org | www.udalaitz-arrasate.com

# Ford Mugarri eta Hyundai Oarso Car: teknologia aurreratua eta eroso

SUV autoak, abangoardiako diseinuarekin eta teknologian aurrerakoiak; horien aldeko apustua egiten dute Arrasateko Hyundai Oarso Car eta Ford Mugarri etxeek. Euren eskaintzek Moves III planeko deskontua ere badakarte

Grupo Easo Motorreko Arrasateko Ford Mugarri eta Hyundai Oarso Car kontzesionarioetan dagoen eskaintza zabala da, baina euren erakuslehoetan nabarmentzeko modelo izarrak honako hauek dira: Ford Kuga eta Hyundai Tucson auto hibridoak eta Ford Mustang Mach-E auto elektrikoa.

Bi modelo hibridoak Moves III planaren barruan sartzen dira, eta 10.000 euroko laguntza eskaintzen dute.

## FORD KUGA HIBRIDOA

Ford etxeko Kuga berria merkatuko SUV konpaktu orekatuenetako bat da. Estilo dotorekoa, diseinu finduarekin eta azken teknologiarekin hornituta. Trend, Titanium, ST-Line eta ST-Line X mailek osatzen dute Kugaren gama, eta luxuaren eta ekipamenduaren gorenean Vignale bertsioa dago.

Motorren eskaintzari dagokionez, 120 eta 150 ZPko 1.5 Ecoboost motorrek, 225 ZPko PHEV hibridoak, 150 ZPko 48 v-ko diesel mikro-hibrido batek eta 190 ZPko guztizko trakzioarekin EcoBlue diesel batek osatzen dute, eta motor hibrido konbentzionalaren



Ford Kuga hibrido berria kargatzen.



Ford Mustang Mach-E autoa.



Hyundai Tucson hibrido entxufagarria, kargatzeko puntu batean.

aukera 2.5 FHEV deritzona da, 190 ZPko trakzio automatikoa-ekin. Gainera, hibridoa eta hibrido entxufagarria estreina-tu ditu, 14,4 kWh-ko edukiera eta 60 km-ko autonomia duen bateriarekin. Errendimendu indartsukoa eta eraginkorrekoa, duda barik.

## FORD MUSTANG MACH-E

Ford Mugarri eskaintzen duen Mustang Mach-E berria, bestalde, Forden lehen SUV erabat elektrikoa da. Diseinu dotorearekin eta abangoardiako teknologiarekin, 610 kilometroko autonomia du. Berehalako azelerazioa eskaintzen du GT modeloarekin, 0 eta 100 km/h bitartean azeleratzeko gai da 3,7 segundoan. Zure eskaera Ford Mugarri egin dezakezu.

## HYUNDAI TUCSON HIBRIDOA

Hyundai Oarso Car-en dagoen beste aukera bat Hyundai Tucson modelo berria da; bere ezaugarri guztiak mantentzen ditu aurreko modeloari erreparaturik, baina, kasu honetan, elektrifikatutako teknologia gehitu diote, beste hainbat berrikuntzarekin batera. Estetikoki erakar-

garria eta konektibitate aurreratuenaz osatutako autoa da eta gidatzen laguntzeko sistema du. Ibilgailuaren sistema hibridoak erregaiaren efizientzia maximoa ahalbidetzen du, hibrido guztietan bezala, abiadura baxuan gidatzean motor elektrikoaz soilik elikatzen da, eta gidatze isila eta erregairik kontsumitu gabe lortzen du.

Propulsio-sistema hibridoak 265 ZPko potentzia eskaintzen du, 1,6 litroko T-GDi Smartstream motorraren hirugarren belau-naldian oinarritutako propulsio sistema indartsuarekin. 66-9 kW-ko motor elektrikoarekin dator, eta 13,8 kWh-ko litiozko polimerozko bateriarekin konbinatua. Gainera, Hyundairen HTRAC trakzio-teknologiaz hornituta dago; hala, edozein zorutara moldagarria da, baina baita gidari ororen modura moldatzen dena ere.

**MOVES III PLANAREN LAGUNTZAREKIN, 10.000 EUROKO AURREZPENA EGITEKO AUKERA**





**IBILGAILUEN SALMENTA ETA KONPONKETA ZERBITZUA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA ZERBITZUA**

**ZURE BEHARRETARA EGOKITZEN GARA!**



Helbidea: Berezaio auzoa 5 (FORD) eta 24 (OPEL) OÑATI • Telefonoak: 943 78 25 92 (FORD) eta 943 71 80 85 (OPEL) • FACEBOOK/ INSTAGRAM: AMETS BEREZAO



SUV kategoriako autoa da Opel Mokka berria, baina ez da oso luzea; hala, dinamismoa hobetu du. TAKOLO AUTOAK

# Opel etxeko eskaintzarik zabalena: Takolo Autoak

Diseinu "agresiboago eta modernoagoarekin", aurreko modeloa baino motzagoa da Opel Mokka berria, aparkatzeko orduan lana errazteko asmoz; eta, puntako teknologiarik esker, segurtasuna handitzea eta emisioak murriztea lortu du Opel etxek.

Arrasateko Takolo Autoak kontzesionarioan esperientzia zabalena dute Opel etxeko autoekin lanean. Etxe alemanak eskaintzen dituen berrikuntza eta produktu guztiak eskura izateko aukera paregabea eskaintzen dute; betiere, zerbitzu pertsonalizatuarekin eta bezeroaren beharretara egokituta.

## TXIKIAGOA ETA SEGURUAGOA

2020ko abendua ezker eskura garri, Opel Mokka berria nabarmendu nahi izan du Takolo Autoak kontzesionarioko arduradun Ibon Rubiok. SUV kategoriako auto bat izateko luzeran oso laburra dela azaldu du, "dinamismo handikoa. Oso auto deigarria izateaz gain, lehen, 4,27 metro luze zen; orain, aldiz, 4,15 metro. Eta hori asko eskertzen dute gidariak; batez ere, aparkatzeko orduan". Itxura aldetik diseinu "agresiboagoa" duela azpimarratu du Rubiok: "Estetikoki agresiboagoa da, modernoagoa, ez du zerikusirik aurreko edizioarekin".

Ingurugiroarekin arduratuta, mekanika alorrean hobekuntza aipagarriak egin dizkiote; au-

rreko modeloarekin alderatuta, emisioak murriztu dituzte. Konektibitatea gero eta gehiago baloratzen dute gidariak, eta Mokka badu horretan ere zer eskaini: Android mugikorrekine konektatzeko punta-puntako sistema du; besteak beste, nabigatzaileak sinkronizatzen ditu.

Diseinuaren eta ezaugarrien gainetik, segurtasuna da garrantzitsuena gidariendako, eta, ondorioz, baloratzen duten parametroa. Opel etxek horretan jarri nahi izan du fokua eta hobekuntza nabariak gehitu ditu Opel Mokka berrian: "Argiztapen hobea, zuriagoa eta gehiago irauten duena eskaintzeko asmoz, LED argiekin dator. Energia gutxiago kontsumitzen dute".

Punta-puntako azken teknologiak aplikatu dituzte: "Angulu itsuetako objektuen presentzia ohararazteko sistema, nahigabe egindako errei aldaketentzako abisu eta zuzentze sistema eta bihurtze batean txasisa gehiegi okertzen bada autoak seinalea bidaltzen dio blokeatzearen aurkako sistemari, eta abiadura geldiaraziko du, egonkortasuna berreskuratuz".

## CITROËN C5 AIRCROSS HYBRID

### HIBRIDO ENTXUFAGARRIA

55 KM-ko AUTONOMIA\*  
%100 MODU ELEKTRIKOAN

KARGA AZELERATUA  
2 ORDU BAINO GUTXIAGOTAN

\*Autonomia aldetu egin daiteke erabilera-baldintza errealen arabera




## CITROËN C4 BERRIA

%100 ELEKTRIKOA,  
GASOLINA EDO DIESELA



**CHAPIME TAILERRAK**  
Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala

SAN ANDRES AUZOA 5,  
ARRASATE





**FORD MUGARRI**

# 0Km STOCK LIKIDAZIOA

## Ford Kuga hibrido entxufagarria



PLAN  
MOVES  
LAGUNTZAK

## 10.000€\*-rainoko laguntzak!



Hitzordua eskatu  
**630 63 63 60**

**GRUPO  
EASO  
MOTOR**  
[www.grupoeasomotor.com](http://www.grupoeasomotor.com)



**MUGARRI**



San Andres Kalea 6, 20500, Arrasate. 943 79 07 44

[grupoeasomotor.com](http://grupoeasomotor.com)

\*Baldintzak [grupoeasomotor.com](http://grupoeasomotor.com) helbidean irakurri

# Elkarteek urte erditik gora daramate itxita

Hamalau hilabete dira pandemia egoera ezarri zenetik, eta tarte horretan lau hilabetez bakarrik egon dira zabalik. Egoera ez da erraza, eta osasun datuek poliki-poliki hobera egitea espero dute berriz ere ateak zabaltzeko, laster

**Larraitx Zeberio Lekuona** ELGETA

Elgetan ere ekainetik urrira bitartean egon ziren zabalik Ozkarbi, Intxorta, Mendi Mendian eta Gure Borda. Segurtasun eta osasun neurri bereziak hartu behar izan zituzten Jaurralitzak ezarritako protokoloa betetzeko. Hala eta guztiz ere, osasun egoerak berehala egin zuen okerrera, eta itxita daude, beste elkarte gastronomiko guztiak bezala, urrian onartutako dekretuak horrela aginduta. Biziberri III plangintzak jasotzen du itxita jarraituko dutela EAE-ko intzidentzia-tasa 150era iristen ez den bitartean.

Ozkarbi, Gure Borda eta Mendi Mendian elkarteetako ordezkariekin izan da GOIENA. Egoera ez da dramatiko, baina sarrierarik gabe gastuak ordaintzen jarraitu beharra badela kezka iturri esan dute gehienek. "Jarraitzen dugu alokairua ordaintzen. Ez dugu etetea lortu, nahiz eta kooperatibako ordezkariekin elkartu eta eskaera egin dugun", azaldu du Ozkarbiko presidente Ana Gillegik. "Gero, oinarritzko gastuak hor daude. Gure sarri garrantzitsuena, une honetan, bazkideen kuotak dira. Zuzendaritzan erabaki genuen kobratzea, eta denak kobratu ditugu". Zuzendaritza hileroko elkarten dela esan du. "Danek bezala, itxoiten gaude ea zer pasatzen den, eta ea osasun egoerak hobera egiten duen. Uste dugu hori dela oinarritzkoa". Bazkideen aldetik ez dutela itxierarekin lotutako aparteko eskaerarik jaso adierazi du, eta azpimarraitu zuzendaritzan oso kontziente direla osasun egoeraren larritasunaz. "Arazoak sortu daitezke. Ikusi dugu, eta zuzendaritzan berba egin dugu, bazkide batzuek erabilera desegokia egin zutela elkarte zabalik egon zen epean. Elkarte orduz kanpo egoten zen zabalik". Etorkizunera begira esan du adi daudela gauzak



Intxorta elkarte sarrerako atea, itxita dagoela adierazten duen oharrekin. L.Z.L.

## ARAUTEGIAK DIO EZINGO DIRELA ZABALDU EAE-KO INTZIDENTZIA-TASA 150ERA JAITSI ARTE

zelan doazen, eta, bien bitartean, barne-lanak egiten eta bazkideengandik heldu daitezkeen proposamen guztiak aztertzen jarraituko dutela.

### Elkarte txikiagoen egoera

Jose Ignacio Manso da Mendi Mendian elkarte presidentea. Hamazazpi bazkide dira, eta jabetzan dute lokala. "Baina berdin-berdin ari gara ordaintzen, esaterako, zaborren tasa. Egonda nago udaletxean ea zer-bait egin daitekeen; izan ere, hilabete asko dira zerbitzu hori erabiltzen ez dugula", esan du.

Gogoan du zenbat buruhauste izan zituzten ekainean zabaldu ahal izateko plangintza egiten. Arautegi berria, gel hidroalkoholikoak jarri, botatzekoak diren paperezko mahai-zapiak eta ezpainzapiak erosi, produktu desinfektatzaileak ekarri...

"Berehala itxi behar izan genuen berriz", esan du.

Gainerako elkarten egoera berean daude Gure Bordan. "Ezin izan dugu urteko batzarra egin eta zain gaude neurri berriekin ea egiteko aukerarik izango dugun", azaldu du zuzendaritza taldeko Maite Mandalunizek. "Udaberrian eta udan erabiltzen den elkarte da, gehienbat, eta, zorionez, iazko sasoi haietan zabalik egoteko aukera eduki genuen. Orain dator berriz erabiltzeko garaia, eta zabaltzeko aukera izatea espero dugu". Bazkideen aldetik ez dutela kezarik jaso azaldu du: "Ulertzen dute zein egoeratan gauden". Hala eta guztiz ere, zuzendaritzako ordezkariak uste dute bazegoela zabalik mantentzeko aukera, betiere, segurtasun baldintzak errespetatuz. "Kanpoan egoteko gune oso handia dugu Gure Bordan, eta aire librean egonda ez dago hainbeste arazo. Espero dugu denbora laburrean zabaltzeko aukera izatea. Laster dator Asentzio Eguna, eta disfrutatzeko".

Gainerako elkarteak bezala itxita dago, baita ere, Intxorta elkarteak.



Karakorum erakusketaren argazkietako bat. MIKEL ALONSO

## Karakorum mendietako emakumeen begiradak Elgetan

Mikel Alonsok Pakistanen egindako argazkiak zeramika gelan izango dira ikusgai hilaren 20tik 23ra bitartean

**L.Z.L.** ELGETA

Udalak, Baltistan Fundazioak eta Kantsatzeko Mendi Taldeak elkarlanean antolatuta, *Karakorum* argazki erakusketak egunean zabalduko ditu ateak. 2014ko irailean Pakistango Hushe haranera Mikel Alonso argazkilari bilbotarrak Baltistan Fundazioko langile boluntarioekin batera egindako bidaian ateratako argazkiak dira. Aurrepegiak eta begiradak nabarmentzen dira. Hain zuzen ere, Baltistan Fundazioak elkartasun-lan garrantzitsua egin du azken hamasei urteotan, batez ere,

emakumeen sustapenerako eskolak eta zentroak sortzeko. "Emakumeek gizartearen tirania naturaltasunez onartzen dute, destinoaren ezinbesteko patua balitz bezala. Goizeko lauretan jaikitzen dira eta atsedetik gabeko hemezortzi orduko lanegun luzeak egiten dituzte. Beraiei dagokie haurrak eta zaharrak, soroak eta etxeak abereak zaintzea. Baita ura bildu eta garraiatzea ere", azaltzen dute ardura-dunek. Argi dute hezkuntza dela emakumeek beren eskubideen kontzientzia hartzeko eta horiek erabiltzen hasteko giltza.

## GORA ETA BEHERA



L.Z.L.

## Burdin arriskutsuak Mendizaleen plazan

Irakurle batek ohartarazi du aspaldian arriskutsu daudela irudiko hiru burdin zatiak. "Mutikoak kolpe galanta hartu zuen aurreko batean. Zertarako daude hor burdin horiek?".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

# Bertako basoa berreskuratzea

Kukubaso elkarteak sortu dute, "ia erabat galduta" dagoen bertako basoa berreskuratzea helburu, eta banda marroiaren kalteari eta eukaliptoaren "mehatxuari" aurre egiten saiatzeko; maiatzaren 18an aurkeztuko dute elkarte bera, Seminarixoan (18:30)

## Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarak duen 77,3 kilometro koadroko azaleraren barruan %1 da jabetza publikokoa eta bertako jatorria duen basoa ia erabat galduta dago, harizti, pagadi eta bestelako bertako espeziei dagokienez. Gainera, egungo Bergarako lurretako %60an pinu eta konifera landaketa intentsiboak dira nagusi; 2018an intsignis pinuei eragiten dien banda marroiaren arazoak eztanda egin zuenetik hainbat eta hainbat pinu bota behar izan dituzte, bertako paisaia izugarri aldatzeraino. Hain zuzen ere, pandemiak eragindako mugikortasun mugen ondorioz bergarak asko konturatu dira bertako mendi, baso eta naturaguneak zein egoera kasarrean dauden.

Hala, egoera zail horri buelta ematen saiatzeko sortu dute Kukubaso, eta maiatzaren 18an egingo dute elkarte aurkezteko ekitaldi publikoa; Seminarixoan izango da, 18:30ean, eta Kukubasoko presidente Ainhoa Agirrebeña, Naturkom-eko kide eta MUko irakasle Aitziber Sarobe eta biologiaren doktore Kiko Alvarez izango dira hizlariak.

## Helburu eta jarduera nagusiak

Banda marroiak "egiturazko krisi bat" azaleratu duela eta etorkizunera begira "zerbait" egin beharra dagoela sinistuta abiatu du Kukubaso herritar talde txiki batek. Izenaren jatorria dago AHTko Bergarako lotuneko lanek desagerrarazi zuten izen bereko basoan, eta estatutuaren ondo zehaztuta daude euren helburuak: "Bergarako eta bere inguruko lurretan dauden bertako basoak berreskuratzea, eta ekosistema horiei lotzen zaien biodibertsitate



Banda marroiagatik Bergaran bota behar izan den basoetako bat. KUKUBASO



Eukalipto landatuta Pol-Pol iturri inguruan. KUKUBASO

## Bertako basorik ez, eta eukaliptoak

Trantsizio sozioekologikoaren bueltako hitzaldi zikloaren barruan, bioaniztasunaren eta basogintzaren gainera saioan Mendia Bizirik taldeko Iñaki Madinabeitiak azpimarratu zuen bertako basoa "ia guztiz" galdututa ematen dela Bergaran; ez dago harizti, pagadi edota bertako espeziez osatutako basorik. Basorik ez, eta bertako landaredia oso sakabanatuta: "Egitura begetal oso pobrea dugu eta elkarren artean ez dute konexiorik; horrek hainbat arazo sortzen ditu". Horrenbeste pinu eta konifera era intentsiboan landatu ostean, lurrak pobretu egin dira eta pinuak eurak ere makalago hazi dira: "Hala sortzen dira pandemiak, banda marroia eta bestelakoak".

## Euskal Herriko ingurumena zainduko duen ereduaren "erronka"

EHUko irakasle Arturo Eloegi ere izan zen arrasto handia utzi zuen hitzaldi hartan; Euskal Herriko basogintza krisian dagoela esan zuen: "Prezioen gorabeherak, errelebo faltak eta landaketetan izandako izurriek pinuaren gainbehera eta basogintzaren etorkizuna birplanteatzeko beharra ekarri dute. Azken urteotan gertatzen ari den aldaketa handiena eukaliptoaren hedapena izan da. Argitaratutako ikerketa zientifikoek nabarmen utzi dute zuhaitzi horiek ingurumeneko eragin kaltegarria dutela, bereziki, biodibertsitatean. Beraz, Euskal Herriko ingurumena zainduko duen basogintza-eredu bat bilatzeko erronka handia dugu aurrean".

tatea mantentzea; bertako basoa sustatuz, landareei eta animaliei babeslekua eskainiz eta errekek osasuntsu mantenduz, gure bizi kalitatea hobetu eta Bergara bizigarriagoa eraiki nahi dugu; hori guztia, herri-lurren ideia berreskuratuta".

Helburu nagusiak horiek dira, eta horiek lortzeko jarduerak ere zehaztu dituzte. Lurrak erostea da jardueretako bat: "Bertako basoa berreskuratzekei ekimenak egin nahi ditugu, lurraldearen zaintza eta lursailak herri-lur bihurtzea barne. Lurrak erosi, lur-jabeekin hitzarmenak sinatu, mendi irteerak antolatu eta landaketak egin".

## Udala, ikastetxeak eta beste

Bestalde, Kukubasoko kideek argi dute Udalarekin eta beste eragile batzuekin elkarlanean aritzea "ezinbestekoa" izango dela: "Udaleko ordezkariekin elkartzea da asmoetako bat, Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrean bertako basoa kontserbatu eta biodibertsitatea defendatzearen aldeko neurriak hartu eta arautu ditzan. Baita herriko ikastetxeekin tailerrak antolatzea ere, herriko enpresa eta lantegiekin gure helburuak bultzatzeko proiektuak landu eta hitzaldiak antolatzearekin batera".

## Inflexio-puntua izan zen hitzaldia

Kezka eta ardura bazeuden aspalditik, baina, askotan gertatzen den moduan, inflexio-puntu bat behar izan zuen Kukubaso elkarteak ere bere sorrera azkartzeko. Urtarrilaren 26an Seminarixoan izandako hitzaldi bat izan zen inflexio-puntu hori. Trantsizio sozioekologikoaren zikloaren barruan Udala bioaniztasunaren eta basogintzaren gainera antolatutako saioak arrastoa utzi zuen jarraitu zuten herritarrengan.

EHUko irakasle Arturo Eloegi eta Mendia Bizirik taldeko Iñaki Madinabeitia izan ziren hizlari nagusiak eta haiekin batera egon ziren Errez kooperatibako Iñaki Etxebeste eta Markel Arriolabengoa, Tantai Baso Jabe kooperatiba proiektuaren berri ere eman zutenak. "Hitzaldian, Sorluzeko eta Eibarko Baso Biziak taldeko kideak ezagutu genituen eta eurekin elkartu ostean jakin genuen elkarte nola sortu zuten. Esan ziguten sekulako arrakastarekin abiatu zutela taldea eta anima-

tu gintuzten Bergaran ere martxan jartzera. Talde txiki bat aritu gara elkarteari forma emateko, eta orain, jendea batzeko unea da", azaldu du Kukubaso kide Joseba Zuzaetak.

Errez kooperatibako Etxebestekin eta Arriolabengoarekin ere egon ziren elkarte sortzeko urratsa egin aurretik, Arianne Kareagak gogoratu duenez: "Errez kooperatibakoek bailarako ikuspegia dute eta galdetu genien ea pertinentea zen Bergaran elkarte sortzea. Esan ziguten baietz: zenbat eta elkarte gehiago egon, orduan eta hobeto. Topatuko ditugula aurrerago elkarlanerako formulak".

## Debagoienean sortu den lehena

Bertako basoak berreskuratzekei asmoz Debagoienean sortu den lehen elkarte da Kukubaso. Beharrak eragindako borondatea badute, eta baita ezagutza ere, badituzte-eta gaian adituak direnak elkarte barruan. Biologiaren doktore Kiko Alvarez da adituetako bat: "Argi utzi behar dugu bioaniztasunaren galera global baten aurrean gaudela. Hala ere, nork bere herritik ere aurre egin beharreko arazoa da". Bergarako mendien eta basoen kontserbazioa "eskasa" dela dio Alvarezek: "Apenas dugu lur publikorik, eta, beraz, ezinbestekoa da, Kukubasoren zein Udalaren partetik, lur-eremuak berreskuratzen joatea bertako basoa berreskuratzekei. Helburua argia da: bertako basoaren bioaniztasuna berreskuratzea, ondasunak eta zerbitzu publikoak sortzearekin batera".

## Eukalipto landaketak Bergaran

Kukubasoko kideak bereziki kezkatuta daude lur-jabe handiak eukaliptoak landatzen hasita daudelako Bergarako lurretan. Pol-Pol iturriaren inguruan – Kerexetako trikuharritik behera – eta Partaititik gora Asentzio inguruan, esaterako, eukaliptoak landatu dute.

Alvarezek argi dauka zenbaterainoko "mehatxua" den eukaliptoaren hemengo lurretan landatzea: "Eukaliptoak bi zentzu-

**OLA GAI NEAN ZEGOEN BASOTIK HARTU DUTE ELKARTEAREN IZENA; AHT-AREN LAN EK HON DATU ZUTEN**



Kukubaso elkarteko Aitor Aldazabal, Ainhoa Agirrebeña, Arianne Kareaga eta Joseba Zuzaeta, San Martzialen. JOKIN BEREZIARTUA

tan egiten dio kalte gure ingurumenari: batetik, espeziea bera da kaltegarria, lurra pobretzen duelako eta bere inguruan dagoen bioaniztasuna nabarmen murrizten duelako. Eukaliptoek estrategia kimikoak garatzen dituzte beste espezie begetal batzuk ondoan hazi ez daitezen. Gainera, eukaliptoaren orbela nekez deskonposatzen da gurean, eta erreketara heltzen denean uraren konposizio kimikoa eraldatzen dute, eta, beraz, baita gure ur-ekosistema ere. Bigarrenik, eukaliptoak ustiatzeko modua oso kaltegarria da dagoeneko oso zigortuta dagoen ingurumenarenarentzat. Egurra ahalik eta azkarren ateratzeko ahaleginak eta ustiapena amaitzen denean zuhaitz guztiak sustraie-tatik atera behar izatea oso-oso kaltegarria da lurrarentzat. Ezin dugu ahaztu lurra gure ondasun preziatuena dela, bizitzaren oinarria, mendeak behar izaten direla berrirori sortzeko".

**Erosi, lagata jaso eta aholkatu** Kukubasoren helburu nagusia da, esandako moduan, lur-jabe txikiei lurra erosi edo utzi-ta bertako basoa berreskuratzea.

**LUR-JABE TXIKIEI  
ESKATU NAHI DIETE  
LURRA EROSI EDO  
LAGATZEKO, ETA GERO,  
AUZOLANEAN LANDU**

Baina nola? Zein preziotan? Honako hau dio Alvarezek: "Lur-rak erosi ahal izateak ilusio handia pizten digu, baina oso zaila izango dela ere badakigu. Nahi duguna da nahikoa bazkide eta babes jasotzea elkar-teari lurra pixkanaka erosten joatea ahalbidetzeko eta lur horietan modu aktiboan egitea bertako basoaren berreskurapenaren alde. Uste dut, gainera, badela modua jendeak Kukubaso berea ere badela sentitze-ko; proiektu komuna da, denon artean egina eta denontzat izan-go dena".

Garai bateko herri-lurren ideia berreskuratzea dute buruan, eta gertu daude, Alvarezen arabera, lur-jabe txikiei aholkularitza zerbitzua emateko: "Zaila da orain bertan aholkularitza zerbitzu hori nola emango dugun

zehaztea, bideari ekin besterik ez diogulako egin. Dena den, ez dugu inongo arazorik Kukubasoren helburuekin bat egiten duten lur-jabeei euren lurren kudeaketa nola egin dezaketen aholkatzeko. Hau da, Bergaran bertako basoa berreskuratze-ko eta baso hori ahalik eta ondoen mantendu nahi duten jabeekin lan egiteko oso gogotsu gaude".

#### "Etorkizunerako proiektua da"

Jendea erakarri nahi dute, uda aurretik: "Etorri Kukubaso eza-gutzero, bazkide egitera eta gurekin kolaboratzera. Uste dut herritarren parte hartzea garrantzitsua dela, eta baita, nola ez, Udalaren inplikazioa lortzea ere. Denondako proiektua da, eta ilusio handiarekin heltzen diogu. Eta, ororen gainetik, etorkizunerako proiektua da".

## "Argi geratu zaigu zerbait egin behar dela"

**AINHOA AGIRREBEÑA** KUKUBASO ELKARTEKO PRESIDENTEA



J.B.

#### Elkartea sortuta, ezagutzera emateko unea da, ezta?

Kukubaso zer den eta zertarako sortu dugun ahalik eta ondoen azaldu nahi diogu herriari. Sare sozialetan aktibo gaude, interesa izan ahal dezaketen herritarrek erakartzeko, eta gero, ekitaldi nagusia izango da maiatzaren 18ko Seminarixoko hitzaldia.

#### Elkarlana da zuen ardatza.

Ezinbestekoa. Ahalik eta parte-hartze handiena eta zabalena ari gara bilatzen, ez

bakarrrik natura arloko eragileekin. Lanerako gertu dagoen edozein kolektibo batu daiteke. Ikastetxeekin lan egiteko asmoa dugu, adibidez. **Pandemiak agerian utzi du bertako lurren egoera, ezta?** Herritik ezin mugitu ibili gara eta bertako mendi eta basoetara egin dugu. Hala ohartu gara pinuen banda marroiak eta azken urteetako kudeaketak eragin duen kalteaz; zerbait egin behar dela argi geratu zaigu.

## "Has gaitzen, seme-alabek gozatu dezaten"

**JOSEBA ZUZAETA** KUKUBASO ELKARTEKO KIDEA



J.B.

#### Bergarako basoetan asko ibilitakoa zara. Nola daude?

Guztiz gorrituta. Zutik dauden pinuak lehortuta eta ustelduta daude. Egoera oso makala da. Hori gutxi balitz, lur jabe handi batzuk eukaliptoak landatzen ari dira Bergarako lurretan, egurra lantzen duten enpresei begira. **Eukaliptoak zergatik da mehatxua lur hauentzat?** EHUKo Arturo Elosegik hainbat kalte aipatu zituen. Baina nik bizitaketatik hitz egingo dizut:

eukaliptoak landatuta dagoen basoetatik igaro besterik ez dago konturatzeko lur eremu horretan ez dagoela bizitzarik. **Egoera zaila da, beraz.** Ezkorrak izateko motiboak egon arren, mezu positibo bat bidali nahi dut. Erdi Aroko arkitektoek ez zuten euren katedralak amaitzen ikusten, baina gure herriko ondare dira; herri-lurra berreskuratzen has gaitzen lehenbailehen, gure seme-alabek gozatu dezaten.

Aitor Zabaleta  
Tel.: 606 58 18 10  
www.txipi.com

**TXIPI**

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.  
943 76 59 54 BERGARA

**Kabutzia**

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

# Beart-en 65 lan, Miguel Altunari kolorea emateko

Miguel Altuna Lanbide Heziketak eta Beart elkarteak hamar urterako hitzarmena sinatu dute, asteen, ikastetxeko paretak askotariko 65 koadroekin apaintzeko; 49 margolan txiki eta gutxienez metro bateko zabalera duten 16 koadro handi jarri dituzte egoitza barruan

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Miguel Altuna Lanbide Heziketak eta Beart elkarteak hamar urterako hitzarmena sinatu dute. Bearteko ia 50 artistak egindako 65 margolan jaso ditu Miguel Altunak; zabalera gutxienez metro bat duten 16 koadro handi eta 40x40 zentimetroko 49 artelan txiki. Hamar urte barru, lanok zein egoeratan dauden ikusiko dute eta erabakiko dute hitzarmena luzatu edo ez.

**Simon Arrieta zenaren tailerra**


Bearteko artistetako batzuk Miguel Altunako ikasle edo irakasle izandakoak dira, baina zentroak berak hasieratik izan du lotura artearekin, Joxu Aranak gogoratu duenez: "Ikastetxea sortu zenean, duela 93 urte, izena zen *Escuela de artes y oficios*, eta gero pasatu zen eskola profesionala izatera. Simon Arrietak bere pinturako tailerra elementaren eraikin zaharrean izan zuen. Esan dezakegu, beraz, betidanik egon dela sintonia bat Bergarako artisten eta Miguel Altunaren artean". Lorenzo Askasibar eskultoreak ere tailerra elemental zaharrean izan zuen garai baten.

**Beart: 2020an 25 urte bete zituen** Koadro horiek ez dira Miguel Altunarako propio margotu, baina elkartearen eta artisten etxetako ganbaretan hautsa hartzen baino zer hobeto horrenbeste ikasle dituen zentro baten ikusgai egotea baino; eraikin nagusiko bi solairutan ikus daitezke koadroak, pasilloetan eta beste zenbait gelatan. Bestalde, Bearteko presidente Karlos Galarragak gogoratu duenez, 2020an 25 urte bete zituen elkarteak, baina pandemiak ez die utzi urteurrena ospatzen: "Mugimendu handia dago elkartearen, Bergaran beti egon da-eta tradizio handia. Arte diziplina berriak ere badira eta, beraz, etorkizuna ziurtatuta dago".



Miguel Altunako eta Bearteko kideak, 65 koadroetako bat atzean dutela. J. BEREZIARTUA


## Zertarako sinatu duzue hitzarmena?



**JOXU ARANA** MIGUEL ALTUNA INSTITUTUKO ZUZENDARIA

**"Harro gaude artelanok gurean ikusgai izateaz"**

"Bestelako hitzarmen bat da, honako hau ez da ikasleei begira enprekin sinatu izan diren horietako bat. Beartekin sinatu dugu, euren margolanek gure egoitzako pareta zuriak kolorezta ditzaten; harro gaude artelan horiek gurean izateaz, eta badakigu ikasleen artean ere oso harrera ona izan duela. Bearten ere erantzun ona izan zuen gure proposamenak; gainera, artelanak utzi dizkiguten artista batzuk gure ikasle edo irakasle izandakoak dira. Badirudi oraindik ere estimatzen gaituztela..."



**KARLOS GALARRAGA** BEART ELKARTEKO PRESIDENTEA

**"Pozik hartu dugu, pareta asko genuen betetzeko..."**

"Hasieratik harrera oso ona izan zuen elkartearen artean, oso pozik hartu dute. 80 bat bazkide izango gara Bearten, eta kalitate aldetik ez dugu bereizketarik egiten; hasiberria denari eta bizitz osoa pintatzen ari den artistari tratamendu bera ematen diogu, denok gara bazkideak. Hala, hamasei koadro handi eta 49 txiki eman ditugu eta baldintza bakarra izan da koadro handien zabalera gutxienez metro batekoa izatea. Miguel Altunaren pareta asko genuen-eta betetzeko..."



BERGARAKO UDALA

## Garagunea ezagutzera ematera

2019ko abendua ezker martxan dago Goyeneche fundazioaren Mintegi kaleko Garagunea. Pandemiagatik ezin izan zuten inauguraziorik egin, eta orain, herritarrek gonbidatu nahi dituzte egiten duten lana ezagutu dezaten. Udalaren izenean Gorka Artola alkatea, Ainhoa Lete alkateordea eta Gizarte Zerbitzuetak arduradun Xabier Legorburu izan dira bisitan, asteen.

## LGTBI fobiaren aurkako eguna dela eta, 'Trans-formatzen' lana ikusgai

Maiatzaren 17an LGTBI fobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, *Trans-formatzen* dokumentala eta solasaldia egingo dira maiatzaren 27an, Seminarixoan (19:00). *Trans-formatzen* HiKiru taldeak ekoiztutako transexualitatearen gaineko film dokumentala da eta Naizen elkartearen familien testigantzak jasotzen ditu, besteak beste. Solasaldia

egingo da dokumentalaren emanaldiaren ondoren, Naizen elkartearen kideekin. Emanaldira joateko ez da aurrez sarrerarik eskuratu behar. Bestetik, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) sustatutako *Gune Anitza* zigilua banatuko da hurrengo asteetan ikastetxe, denda eta ostalaritza-guneetan. Konpromiso argia hartuko dute zigilua jarriko dutenek: aniztasunaren alde egin eta gorputz, identitate eta adierazpen oro errespetatzeko konpromisoa.

## OHARRAK

### Lazkanoren erakusketa ikusteko azken txanpa

Jesus Mari Lazkanoren *Lazkano*. *Bitakora koaderno* erakusketa maiatzaren 23an bukatuko da. Ordutegia: martitzenetik egubakoitzera, 18:30etik 20:00etara; zapatuan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; domekan, 12:00etatik 14:00etara.

### Txapa Irratiaren eskutik, Txikiren bakarriketa

Domekan, hilak 16, Txikiren *40 urte eta aldapan behera niek* bakarriketaz gozatzeko aukera egongo da kartzela zaharrean (19:00). Sarrerak saioa hasi aurretik salduko dira, bost eurotan.

### 'Artiko' dokumentalaren bi emanaldi gaur

Gaur, hilak 14, bi emanaldi izango dira Seminarixoan Josu Veneno eta Jesus Mari Lazkano zuzendari dituen lana ikusteko, 19:00etan eta 20:00etan. Azken sarrerak: [www.seminarixoa.eus](http://www.seminarixoa.eus).

### Dynamo zinekluba: 'El Colapso', eguenetan

*El Colapso* telesaila, Kartzela zaharreko zineklubean; atzo hasi ziren saioekin eta hurrengo hiru eguenetan ere egongo dira (19:30).

### Itaia taldearen jardunaldia kartzela zaharrean

Gaur egingo dute, 18:00etan. Ondoren, kontzertua: Katarsia.

# Pentekoste jaien partez, kultur ekitaldiak aukeran

Aurten ere ez da Pentekoste jairik izango Bergaran, baina maiatzaren 21etik 24ra bitartean hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera egongo da herrian. Prestatutako ekitaldi guztiak doakoak diren arren, sarrerak aurrez eskuratu beharko dira, segurtasunagatik

## Jone Olabarria BERGARA

Xaxau konpartsak Udalaren laguntzarekin antolatutako egitarauari esker hainbat ekintza izango dira herrian. "Osasun neurriak mantenduta kultura segurua dela ikusi dugu, eta Pentekosteetako udako eskaintzaren mokadutxoak izango da", azaldu du Ekaitz Aranberrik Bergarako Udaleko zinegotziak.

Konpartsako kideen esanetan, egitarau "xumea" da prestatu dutena, eta "ahalik eta herritar gehienek interesekoa izatea" eta kulturari "bultzadatzeko ematea" dira helburuak. Pandemiaz harago, Xaxauk lanean jarraitzen duela azaldu dute.



Eguazten goizean aurkeztu zuten aurtengo egitaraua, Usondo parkean. T.M.

## Film labur lehiaketa, klasikoa

Film laburren lehiaketaren berderatzigarren edizioa da aurtengoa, eta, sari banaketari dagokionez, online eta aurrez aurre jarraitu ahalko den gala formatuan egingo dute 2021ekoa.

## Doakoa, baina sarrerarekin

Ekitaldi guztiak doakoak izango diren arren, horietara joateko sarrerak aurrez eskuratu beharko dira, udal webgunean eta baita Seminarixoko leihatilan ere. Eurria bada, Seminarixoan egingo dituzte Usondo parkean aurreikusitako ekintzak.

## 170 umeri omenaldia

Udalak, berriz, Pentekoste jaietan haur jaioberriei egiten zaien ongietorria antolatu du maiatzaren 23rako, osoko bilkuren aretoan. 2019ko Pentekosteez geroztik jaiotako 170 ume ingururi egingo zaie ongietorria, taldeka banatuta, eta haur bakoitzarekin heldu bakararra egon ahalko da ekitaldian. Familiek gutun bidez jasoko dute ekitaldian parte hartzeko gonbidapena, eta gero, joango direla baieztatu egin beharko dute.

## Xaxauren eskaintza, prest: 'Are you ready?'

### Egubakoitza, hilak 21

- **19:00** *Nekatutak*, Antton Telleriaren bakarrikzeta, Seminarixoan.

### Zapatua, hilak 22

- **12:00** Bertso saioa, Usondo parkean; Nerea Elustondo, Beñat Gaztelumendi, Maddi Ane Txoperena eta Sustrai Colina. Gai jartzailea: Txinbo.
- **19:00** Sua taldearen kontzertua Seminarixoan.

### Domeka, hilak 23

- **19:00** 2021eko Xaxau sariak, Seminarixoan.

### Astlehena, hilak 24

- **10:30-13:30/15:30-19:30** Haurrendako hondar eskultura tailerra, Usondon. Eurria bada, Boluko frontoian.




## Musikarekin hazi, hezi eta bizi

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK maiatzaren 3tik ekainaren 14ra

www.bergarakomusikaeskola.com

☎ 943 76 57 80 eta 679 15 45 12

idazkaritza@bme.e.telefonica.net





Bergarako Musika Eskola

Bergarako Udala




# 2030eko Oñatiren zirriborroa eginda dago

Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrak aurrera jarraitzen du, eta astean aurkeztu dituzte aurrerakinak jasotzen dituzten estrategia orokorrak eta herritarren hainbat nahi. Oñatiko hazkuntza eredua kontrolatua eta zentralizatua izatea dator txostenean

**Oihana Elortza** GOIENA

2030ean Oñati nolakoa izango den eta bitartean herrian zer eta nola eraiki ahal izango den dokumentuaren aurrerakina eginda dago, eta astean egin du horren aurkezpena Udalak herritarren aurrean. Hasierako diagnostikoarekin eta herritarren aldetik jasotako ekarpenekin Sabai Arkitektoak taldeak landu duen txostena aurkeztu zieten herritarrei. Helburu eta estrategia orokorrak zeintzuk izango diren eta hainbat nahi jaso dira txosten horretan: Oñatiko hazkuntza eredua kontrolatua eta zentralizatua izatea aurreikusten du Herriaren Antolamenduaren Plan Orokorrak. HAPOn sakontzen eta proiektua berri-dazten, baina, aurrerakinean datozen ideiak osoko bilkuran onartu ondoren hasiko dira egiten, oraindik ez dago-eta ezer erabakita.

## 600 etxebizitza berri

HAPOn aurrerakina den txosten horretan puntu ugari jasotzen dira; besteak beste, lurralde ereduari dagokionez, irizpide orokor moduan, hazkuntza eredu kontrolatu eta zentralizatu baten aldeko apustua. Alegia, etxebizitza, enpresa edo azpiegitura berriak eraikitze



Oñatiko erdigunearen ikuspegi orokor bat. O.E.

rrigunean dauden lurzorua erabili gura dituzte, periferian berriak garatu ordez. Horretaz gain, herriaren inguruan gerriko berde bat sortu gura dute, gune naturalen eta espazio berdeen arteko lotura egiteko.

Etxebizitzetarako dagokienez, 600 berri eraikitze aukera jasotzen du eta horietako batzuk egiteko Cegasa enpresa eta Berezaio inguruko zati bat eraldatzea proposatzen da. Industriadako, garatu gabe dagoen lurzorua agortzea proposatzen da dokumentuan; baita Oñati erreka

berreskuratu, bistaratu eta bere inguruan ibai-parke bat sortzea ere. Mugikortasunaren esparruan, berriz, garraio publikoa sustatzea da nahietako bat, eta baita hiriaren kanpoaldean disuasio-aparkalekuak eta lurpekoak egitea.

HAPOn berriaren prozesua 2018an hasi zen eta datozen urtetan izango du jarraipena, eta prozesu osoa herritarrekin elkarlanean egingo dutela adierazi zuen Izaro Elorza alkateak asteleheneko aurkezpenean: "Orain arte bezala".



NIRE USTEZ

ONEKA ANDUAGA

## Gai komodina

Artikulu berri bat idatzi behar eta zeri buruz jardungo naizen pentsatzen jarri naiz. Kolonbiako protestei buruz idatzi dezaket, nola Ivan Duque herritarrek hiltzen ari den indar militarrek kalera ateraz; baina orain arteko zenbakiak errepasatuta gauza gutxi gehitu daitezke. Berrogeitik gora hildako, milaka zauritu eta ehunka pertsona desagerrarazi.

Palestinako sarraskiari buruz jardun naiteke, baina beti hor egon diren eta orain arte jaramonik egin ez diegun irudiek hitzik gabe uzten naute. Inork inoiz ez luke horrenbeste sufrimendu pairatu behar. Etxe desjabetzeen inguruan idatzi dezaket, baina artikulu hau idazten nabilela (soilik Bartzelonako Raval auzoan) beste bost desjabetze programatu direla kontuan izanda, artikulu argitaratzen denerako datuak zaharkituegiak egongo direla konturatu naiz.

Azkenerako gai posible guztiak baztertu ditut eta ez daukala zeri buruz idatzi; baina gero pentsatu dut ez dela horrenbesterako, total, beti gai berdinari buruz hitz egiten amaituko dugu.

## Aurten ere ez da Corpusetako prozesiorik egingo

Aurten ere ez da Corpus eguneko prozesiorik egingo; parrokiako meza izango da egingo den ekitaldi erlijioso bakarra. Horrela erabaki dute, bigarren urtez jarraian, aho batez, Corpus egunaren antolakuntzan ibiltzen diren eragileek: Oñatiko parrokia, Kofradia, Oñatz eta Oñatiko Udala. Ekainaren 3an, egue-na, da Corpus eguna, eta meza domekan, ekainaren 6an, izango da. Ekitaldi kulturaleri dagokionez, "unean-unean indarrean dagoen dekretuaren arabera ekitaldiak antolatzea" mugatuko dira, eta adierazi dute "agendan zehaztu" ahal izango dutela "zerbait programatzeko moduan" dauden edo ez.

## Kanpora irtengo dira egoitzako egoiliarak astelehenetik

Datorren astelehenetik aurrera, kanpora irten ahal izango dira San Martin egoitzako egoiliarak. Egutero irten ahal izango dira, eta nahi duten beste denbora, baina antolatutako irteerak izango dira; pisuka egingo dituzte eta irteera eta sarrera guneak ondo zehaztuta. Hau da, aurrez senideekin egon eta eurekin batera adostuko dituzte irteerak egoitzako arduradun eta langileek. Bestalde, bisita gehiago ere jasotzeko moduan izango dira datorren astetik aurrera. Orain arte, bi bisita jaso dituzte astean, eta, astelehenetik aurrera hiru izan ahal izango dituzte.

Gaur egun, 76 egoiliar daude San Martin egoitzan.



**Gualbi**  
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA  
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK  
KONTU IKUSKARIAK

*Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!*



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com

# "Herrian gertatzen dena azaltzea da helburua"

**MIREN URKIOLA SERRANO KAZETARIA**

Herrian gertatzen denaren berri emateko helburuarekin hasi zen emititzen Oñati Irratia, duela 30 urte, eta helburu berarekin jarraitzen du gaur egun FMko 107.4an

**Oihana Elortza OÑATI**

Irratiaren sorreratik da bertako esatari Miren Urkiola Serrano (Ordizia, 1966). Aratz Losada lagun duela prestatzen ditu albisteak, elkarrizketak eta irratiaioa bera.

**Nolakoa izan zen hasiera?**

Martxan hasi baino hiruzpalau hilabete lehenago etorri nintzen Oñatira. Herria ezagutzen eta proiektua edukiz janzten aritu nintzen denbora hartan, gero irratsaioari ekin ahal izateko.

**Eta maiatzaren 11 heldu zen.**

Bai. Zapatua zen, San Migel Txiki jaiak. Aurrez egindako grabazio batzuekin eta zuzeneko elkarrizketekin eta jarritako



Urkiola, Oñati Irratiko estudioan. MAIALEN SANTOS

musikarekin bete genuen hiru orduko emanaldia.

**Lehen emisioak kultura etxeko ganbaratik aineratu zenituzten, baina Olakua dorrea erreferentziazko toki bihurtu da.**

Bai, hala da. Herriko edozein txokotara erraz hel gintezkeen kultura etxetik, eta hau urrintxo ikusten genuen, baina instalazioak honetarako egokitu ziren hemen. Pena da eskailerak dituela eta ez dela estudio irisgarria, baina saiatzen gara herriar guztien irisgarritasuna bermatzen beste bide batzuk erabilita.

**Zer aldatu da ordutik hona?**

Teknologia, bereziki. Aurrerapen handiak egin ditu, eta, alde horretatik, irratia egiteko modua ere aldatu egin da. Azkarragoa, arinagoa eta, batzuetan, zoroagoa ere bada gaur egun irratia. Era berean, erraztasun handiak ematen ditu teknologiak.

**Gertaerak, albisteak, aldatu egin dira?**

Ez. Edukiak mantendu egin dira, orokorrean. Herriko berri ematea da helburua. Herria aldatu egin da eta berriak ezberdinak dira, baina herrian gertatzen

dena azaltzea da gure helburua, eta, alde horretatik, ez da askorik aldatu Oñati.

**Tokiko informazioak badu oraindik pisua mundu globalizatu honetan?**

Bai; toki garrantzitsua du. Israelen zer gertatzen ari den edo AEBetako presidenteak zer esan duen, horrek gure egunerokoa baldintzatu dezake, eta baldintzatzen du, baina etxe aurreko espaloian lanak egiten ari badi-ra eta garajetik ezin badut autoa atera, horrek ere baldintzatzen du gure egunerokoa. Herritarrek horren berri ere jakin gura dute; nahi hori asetzen saiatzen gara.

**Fidelak dira entzuleak?**

Bai, urte asko daramatzate gu entzuten. Lehiaketan parte hartzen dute, eta aitzakia bat da elkarren berri izateko. Familia txiki handi bat gara, bai.

**Irratiko esatari bai, baina edukiak sare sozialen bitartez ere partekatzen dituzue, garaira egokituta.**

Halabeharrez. Denek ezin dute emisio orduan irratia entzun, eta, gainera, irratiko momentua luzatzeko modua ere bada egingdakoa sarera igotzea. Dena dela, gaur egungo kazetaritza osatua izan behar da.



## DEBAGOIENENKO GREMIOAK



### AROTZEGIAK

#### AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA / Telleria 19 B02-B03  
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20  
blogak.golena.net/azkarate

### HONDEAKETAK

#### EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE / Meatzerreka 30  
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87  
e.arrasate@gmail.com

### ITURGINTZA

#### EGIA ITURGINTZA

ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, behea  
Tel.: 943 77 01 85

### OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA / Aranburuzabala 15  
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69  
f.oyanguren@ctv.es

### URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA / Basabe industrialdea B-3  
Tel.: 943 77 19 88  
Faxa: 943 79 59 97

### LOREZAINZA

#### MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA / Basabe poligonoa D-2-1  
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98  
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Guraso bat, eskoletan gaztetxoei banatzeko argitaratu duten eskuorria eskuetan duela. AMAIA TXINTXURRETA

# Udako kirol kanpaina, aukera ugarirekin

Eguaztenean zabalduko dute izena emateko epea, eta aurtan, online egin beharko da, aurrez aurreko pilaketak saihesteko. Gaztetxo bakoitzak gehienez hiru jardueratan parte hartu ahal izango du eta kanpo ekintzak sustatu nahi izan dituzte, batez ere

## Amaia Txintxurreta OÑATI

Guztira, 22 jarduera izango dituzte aukeran neska-mutikoei aurtengo udan kirola egiteko. Beste urte batzuetan bezala, tenisa, badmintona, pilota, patinajea eta ur jolasak izango dituzte, besteak beste. Baina berrikuntza batzuk ere izango dira; adibidez, estreinakoz, DBH-ko gaztetxoek *crossfit*-a egiteko aukera izango dute. Bertan, intentsitate handian egindako indar ariketak eta egokitzapen fisikoko ariketak egingo dituzte, muskuluen indarra eta tonua garatzeko. Gainera, kanpo ekintzak ere indartu nahi izan dituzte; horretarako, esaterako, mendiko bizikletan ibiltzeko aukera eskaintzen duen jarduera ere jarri dute, baita baso eskola ere.

## Izen-ematea eta zozketa

Bi txanda egongo dira: ekainaren 28tik uztailaren 9ra bitartekoa izango da lehena eta uztailaren 12tik 23ra bigarrena.

Horietan izena emateko epea eguaztenean, hilak 19, hasiko da, eta hilaren 24an amaituko da. Izen-emate sistema aldatu egin dute, gainera, aurtan; aurrez aurreko jende pilaketak saihesteko asmoz, online eman behar da izena, helbide honetan: [zubikoakiroldegia.oñati.eus](http://zubikoakiroldegia.oñati.eus). Horretarako, ezinbestekoa da webgune horretan erregistratuta egotea, abonatu gisa edo ez-abonatu bezala. Bi kasu horietan, udako kanpainako informazioa eskuratzeko gako batzuk lortzen dira. Adin bakoitzerako dagoen eskaintzara bakarrik sartu ahal izango da; beraz, garrantzitsua da inskribatu beharreko haurren jaioteguna behar bezala sartuta edukitzea kiroldegiko datu-ba-

**IZENA EMAN AHAL  
IZATEKO, KIROLDEGIKO  
WEBGUNEAN  
ERREGISTRATUTA  
EGON BEHARKO DA**

sean. Gainera, harremanetan egon ahal izateko, garrantzitsua izango da telefonoa eta helbide elektronikoa ere eguneratuta izatea norberaren datuetan.

Haur bakoitzak gehienez hiru jardueratan eman ahalko du izena. Hilaren 27an argitaratuko dituzte jarduera-taldeak araberako zerrendak, eta ekainaren 1etik 4ra bitartean, gainerako plaza libreak betetzeko itxarotzerrendan geratu direnei hitzordu berriak emango dizkiete.

## Jarraitu beharreko protokoloa

Osasun erakundeek emandako gomendioetan oinarritutako protokoloa jarraitu beharko dute aurtan parte-hartzaileek. Horien artean daude, esaterako, derrigorrezkoa izango dela maskara erabiltzea, nor bere ur botila eraman beharko duela eta ahalik eta material gutxien erabiliko dituztela jarduerak egiteko, eta horiek erabili aurretik eta ondoren desinfektatu egingo dituztela.

## Gimnasio berria astelehenetik izango da erabilgarri Zubikoan

Horrekin batera, rokodromoa eta boulderra ere zabalduko dituzte; erreserba egin beharko da aurrez

## A. T. OÑATI

Iragarri zuten moduan, astelehenetan, hilak 17, zabalduko dituzte gimnasioa, rokodromoa eta boulderra Zubikoa kiroldegian. Horiek erabiltzeko, baina, derrigorrezkoa izango da aurrez erreserba egitea, igerilekua erabiltzeko egiten den moduan. Horrenbestez, astelehenetik aurrera, Internet bitartez erreserbatu ahal izango dituzte txandak erabiltzaileek kirola egiteko gune horiek erabiltzeko, [zubikoakiroldegia.oñati.eus](http://zubikoakiroldegia.oñati.eus) webgunean.

Jende kopuru mugatua ibili ahal izango da gune horietan aldi berean: gimnasioan gehienez ere 30 lagun egon ahal izango dira, rokodromoan sei eta bi boulderretako bakoitzean, berriaz, launa erabiltzaile ibili ahal izango dira ordu berean. Abonatuak izango dute aukera erreserbak egiteko, eta abonatuak ez daudenek eguneko sarrerak izango dituzte salgai, tokirik balego.

Maiatzaren 7ko dekretuaren arabera, gainera, kiroldegia ohiko ordutegian hasi dira ixten astegunetan; hau da, 21:30ean.



Espainiako Txapelketako faserako sailkatu den kadete mailako taldea. ANDREA GARCIA

## Espainiako Txapelketako faserako sailkatzea lortu dute

Sinergia Orio izango da etsai gogorrena asteburuan, baina duten onena ematen saiatuko dira oñatiarrak

## A. T. OÑATI

Andrea Garciak eta Mikel Agirrek zuzentzen duten eskubaloiko kadete mailako nesken taldeak Euskadiko Txapelketa jokatu zuen joan den asteburuan, Zarautzen. Han lortutako emaitza onengatik Espainiako Txapelketako faserako sailkatu dira, Kukullagarekin batera. Txapelketa hori ekainaren 3an, 4an, 5ean eta 6an jokatuko da; oraindik zehazteke dago lekua. Izan ere, asteburuan jakingo da, ikusita zein emaitza lortzen dituzten taldeek lauko finalean, baina taldekideak "pozik" daude.

## Asteburu honetan, lauko finala

Euskadiko Txapelketako lauko finalean ahalik eta postu onenean geratzeko lortu nahi dute txantxikuarrek. Gaur, egubakoitza, 17:30ean, Kukullagaren aurka jokatuko dute; bihar, zapatua, Sinergia Orioren kontrako partidua izango dute, 18:30ean; eta azkenik, domekan, Eibar izango dute aurkari, 10:30ean. Garciak azaldu du "zaila" izango dutela, baina badituztela "aukerak".

Partiduak *streaming* bitartez zuzenean ikusi ahal izango dira, gainera, *Orio Eragin Eskubaloia* Youtubeko kanaletik.

# Komunikazio udaleku irekiak. 2021



- **Euskara** hutsean.
- Komunikazioaren mundura hurbiltzeko modu **kritiko, praktiko eta dibertigarrian**. Besteak beste, landuko dira: kamera aurrean nola jarri, fotokazetaritza, youtuber izateko gakoak, podcastak nola egin, benetako albisteak eta faltsuak nola identifikatu...
- Mondragon Unibertsitateko irakasleekin eta Goienako **profesionalekin**.
- Gainera, landuko diren gaietan ezagunak direnek emango dituzte master-eskolak:  
**Alora Mujika** @probatxoa youtuberra.  
**Ainhoa Vitoria** komunikatzaile eta Gazteako irrati esataria.  
**Xabier Urzelai** Goiena Komunikazio Taldeko kazetaritza-argazkigintzan aditua.

## Anima zaitez eta eman izena!



### Noiz:

- Lehen txanda, uztailaren 5etik 9ra.
- Bigarren txanda, uztailaren 12tik 16ra.
- Astelehenetik ostiralera, goizez.

### Non:

Mondragon Unibertsitateko  
Komunikazio Campusean, Aretxabaletan.

### Ordutegia:

09:00-13:30.

### Norendako:

DBH-4ko eta batxilergoko 1. mailako gazteak.

### Izen ematea:

Maiatzaren 3tik ekainaren 18ra.

### Prezioa:

125 euro.

### Izena emateko:

**[www.goiena.eus/bereziak/udalekuak](http://www.goiena.eus/bereziak/udalekuak)**

### Informazio gehiago:

**600 04 66 89**

**[komunikazioudalekuak@gmail.com](mailto:komunikazioudalekuak@gmail.com)**

ANTOLATZAILEAK:



**Mondragon  
Unibertsitatea**  
Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Azken hiru asteak ondo zukutu ditu Oihana Kortazarrek (Elgeta, 1984). Apirilaren erdialdean, Espainiako Kopako lehenengo proba irabazi zuen Sevillan. Jarraian, podiumera igo zen Liencren (Kantabria), eta, atsedetik hartu barik, euskal selekzioarekin Espainiako Txapelketan urrea jantzi berri du. Emaizta horiek hautatzailearen onespina izan dute, Munduko Txapelketan izango da elgetarra. **Pandemia urte hau zelan daramazun galdetuz hasi behar nuen elkarrizketa... Bistan da emankorra izaten dabilela.**

Emaizte dagokienez ezin naiz kexatu, egia esateko. 2021a ondo hasi dut, baina 2020a ere, lasterketei dagokienez, urte ona izan zen niretzako: hamabost lasterketa inguru egin nituen eta urteari itxura apur bat eman genion, nahiz eta uztailen hasi genuen denboraldia, berandu.

**Jaenen lortutako Espainiako Txapelketak Munduko Txapelketarako txartela eman dizu...**

Bai, hori zen aurtengo helburretako bat, Barrueran [Lleida] uztailen egingo duten Munduko Txapelketan egotea. Hara Espainiako selekzioarekin joan beharra dago eta hara joateko meritua egin behar dira. Hala, ibili ginen begira zeintzuk ziren txapelketa horretan egoteko bideak, eta horietako bat zen Espainiako Txapelketa irabaztea, baina ez genuen nahi apustu bakarria egin.

**Horrenbestez, Espainiako Kopan hartu zenuen esku.**

Hori da. 2012a ezker ez nuen Espainiako Kopan esku hartzen, baina, nazioarteko lasterketarik ez dagoen honetan, proba seguruaren aldeko apustua egin dugu, eta Sevillara joatea erabaki genuen. Hala, han irabazi egin nuen, eta ondoren etorri zen Kantabriako hitzordua. Espainiako Atletismo Federazioak antolatzen duen proba da Liencreskoa, traileko Espainiako Txapelketa da, eta oso-oso proba azkarra izan zen. Han neke handia pilatu nuen [hirugarren egin zuen-] eta astebetara Jaenera joan nintzen erabat errekupe-ratu barik, niretzako garrantzitsuena zen lasterketara, Espainiako Txapelketara. Hala, Jaenen 28 kilometroko lasterketa geneukan; ohi moduan, erritmo gogorra jarri nuen hasieratik, baina, egia esan behar badut, ez nengoen

# "Ez dut gogoan halako alde txikiagatik inoiz irabazi izana"

**OIHANA KORTAZAR MENDI LASTERKARIA**

Hamazazpi segundoko aldearekin irabazi du elgetarrak Espainiako Txapelketa, Jaenen. Bete du urteko lehenengo helburua, Munduko Txapelketan izango da



Oihana Kortazar, aste barruan, Arrasaten. X.U.

batere seguru erritmoari lasterketa osoan eutsi ahal izango nion. Zorionez, irabazi egin nuen eta Munduko Txapelketarako txartela eskuratu dut.

**Emakumezkoetan lehia galanta izan zenuten...**

Bai; helmugan esan zidan Maitte Maiorak ez nintzela kontziente atzean izan zuten borrokaz. Eta hori gauza ederra da, ikustea emakumezko talde polita dagoela hor maila onean, denak oso parekatuta; edonork irabaz zezakeen Espainiako Txapelketa. Hasieratik denok jarri genuen oso erritmo altua, baina aurrean joateko erabakia hartu nuen eta atzetik nahiko gertu izan nuen Virginia Perez aragoiarra. Maiorak, berriaz, atzetik aurrerako lasterketa egin zuen eta bigarren posturaino iritsi zen. Anekdotak moduan, zapatilekin arazo bat izan nuen eta jaitzieretan gertatu egin behar izaten nuen ondo estutzeko. Bada, azken jaitsieran erabaki nuen ez geratzeko; ez dut atzera begiratzen ibiltzeko ohiturarik, baina Maiorari zuzendutako animo oihuak oso gertu entzuten nituen. Eta eskerrak ez nintzen geratu! Azken bos-

**"ULERGARRIA DA ZEGAMA-AIZKORRI BERTAN BEHERA UZTEA, EGOERA HEMEN EZ DA ONA"**

tehun metroak sufrimendu hutsa izan ziren; fisikoa bai, baina baita psikologikoa ere. Lehenengo lasterketa izan da, egin ditudan guztietatik, horrela bukatu dudana, halako tarte txikiarekin irabazi dudana.

**Zer egin duzu zapatila horiekin?**

Modelo berbereko beste batzuekin ordezkatu ditut jada [Barre]. **Eta zer nahiago? Harrapatuko zaituzten beldurrez korrika egitea ala aurrekoa harrapatzeko motibazioa izatea?**

Egoeraren arabera. Jaenen, esaterako, nahiago nuen aurrean joan. Izan ere, 28 kilometroko lasterketa batean 17 segundo ez dira ezer, baina, aldi berean, 17 segundoko tartea txikitzea gorputza mugara eraman duzunean eta aurrekoa erritmo konstantean doanean... hori oso zaila da.

**Golden Series-etan ere izango zara, eta hor, bigarren urtez Zegama-Aizkorri bertan behera utzi dute.**

Bai; pena handia ematen didan zerbait da, baina antolatzaileek hartu duten erabakia erabat ulergarria da. Euskal Herrian egun egoera oraindik zein den ikusita, Zegama moduko herri batera jendetza joatea ez da komenigarria. Eta Zegama-Aizkorriren izaera bera da zaleen gertutasuna. Hori ez da bateragarria birusarekin.

**Amaitzeko: babesletzak emaitzen-gatik baino gehiago sare sozialetan izaten den oihartzunarengatik lortzen diren honetan, zer moduz moldatzen zara arlo horretan?**

Nahiko ondo! [Barre] Saiatzen naiz egunero zerbait sareratzen, baina arlo pribatua publiko egitea ez dut oso gustuko, eta ez daukat ez gaitasunik eta ezta denborarik ere nire egunerokoa une oro erakusten ibiltzeko. Badira ohetik jaikitzen diren unetik, bereziki Instagrameko *story*-etan, euren bizitza minutuero kontatzen ibiltzen direnak, baina neure burua ez dut hor ikusten. Eta, bestalde, badira markek ematen dizkieten produktu guztiak erakusten ibiltzen direnak ere. Erakutsi behar horretan ere ez nago eroso. Ahal dudana partekatzen dut, eta sumatzen dut baditudala nirekin identifikatzen diren jarraitzaileak. Pena da marka batzuek kirol arloari baino gehiago bestelakoei halako garrantzia ematea, baina eurek jakingo dute zelan gura duten euren produktua saldu; izan ere, libre dira horretarako.

# MUK estropezu egin du lehen partiduan (72-58)

**SASKIBALOIA** MUK ez du igoera fasea nahi moduan hasi, Globalcajakook gehiago izan ziren-eta atzo faseko lehen partiduan. Gaur, egubakoitza, goizean zuten moreek bigarren partidua, eta azkena bihar, zapatua, jokatu dute, Molleten kontra (13:00)

**X.U. ARRASATE**

Mondragon Unibertsitateak ez zuen atzo, eguna, igoera fasea ondo hasi. Lehenengo laurdenean pattal hasi ziren bi taldeak, urduri, hitzordua ez zelako nola-nahikoa, baina bereziki Cuencako Globalcaja taldea hotz kantxaratu zen, eta arrasatearrak ondo gailendu ziren lehenengo hamar minutuetan. Berez, fisikoki gehiago ziren Globalcajakook, errebotean ondo ibiltzea erronka zen arrasatearrendako, eta lehenengo laurden hartan defentsan azpimarratzeko lana egin zuten Ogararen mutilek (9-14); alegia, ezerezean utzi zuten Cuencakoen eraso. Are gehiago, epaileek oso eskuzabal jokatu zuten faltekin, eta partiduen lehen zatian hori ondo baliatu zuten arrasatearrek. Hori bai, bigarren zatian, esku-zabaltasun berbera kontratan etorri zitzaizen moreei, epaileek faltak kostata adierazi zituzten eta; hala, Cuencakook etekin galanta atera zioten horri.

Bigarren laurdenean, Globalcajakook esnatu egin ziren (18-14). Erasoan eraginkorragoak izan ziren, aipatu moduan, bazirudien barruko jokoan egon behar zela moreen sufrikarioa, eta, kontrara, hiruko saskiratzeekin aurreikusi baino min handiagoa egin zuten Cuencakook. Baina, hala ere, MUkoak kontrarioari eusteko kapaz izan ziren, eta lehenengo laurdenean lortutako puntu abantaila txukunaz baliatuta atsedenaldira indarrak parekatuta iritsi ziren bi taldeak (27-28).

Baina bigarren laurdenean ikusitako hori hurrengo bi laurdenetan gertatuko zenaren aurrerapena izan zen. 25-18ko partziala lortu zuten Globalcajakook, eta, tarteka, markagailuko aldea txikitzea lortzen bazuten ere, MU ezinean ibili zen bai bigarren eta baita hirugarren laurdenetan ere.



Andoni Atxa barneraketa egiten atzoko partiduan. ANGEL AYASTUI

## Arri: "Min egin digute errebotean"

Lehenengo partidua amaitzearekin batera egindako adierazpenetan, penatuta zegoen Arrasateko taldeko entrenatzailea, baina egoerari buelta emateko itxaropenaz: "Partidu hasiera gogorra izan da, urduri geunden denak eta bi taldeak txarto hasi gara. Jarraian, baina, guk hobeto ulertu dugu joko eta orduan abantaila txiki bat hartu dugu lehenengo laurdenean.

Ondoren, baina, defentsan aldaketak egin dituzte eta horrek min egin digu, ez dugu erritmo egokian jokatu. Hala, euren poliki-poliki erritmoa moteldu dute eta gu joko horretan erori gara. Hala ere, atsedenaldira berdinduta iritsi gara, baina bigarren zatian fisikoki min egin digute. Oso jokalar handiak zituzten eta errebotean sufritu egin dugu. Hala, ez genuen lortzen markagailuan zeukaten abantaila berdintzea, eta, horretarako ahalegina egin eta gertu egon garenean, kanpoko jaurtiketekin min galanta egin digute. Hiruko hiru saskiratzek egin dituzte jarraian, eta hor galdu dugu esperantza guztia".

Bistan da ez dela igoera fasea hasteko modurik onena, baina Arrasateko taldeko entrenatzaileak ez du amorerik ematen, ezta gutxiago ere: "Orain, atsedene hartzea tokatzen da, eta hurrengo partidua prestatzen hasi behar dugu, bi geratzen dira oraindik". Gaur, egubakoitza, 10:30ean ziren Alginet taldearen kontra jokatzeak. Informazio osoa, [goiena.eus](http://goiena.eus) atarian.



Arri, aginduak ematen. GOIENA

## Kanporaketa dute jokoan UDAk eta Bergarak bihar, zapatua

**FUTBOLA** Aretxabaletak 2-0eko aldea eramango du Lesakara; Bergarak ondo irabazi behar du Agorrosinen

**X.U. ARRASATE**

Bergarak eta Aretxabaletak play-off-etako itzuliko norgehiagoka jokatu dute zapatu arratsaldean. Mahoneroek 16:30ean hartuko dute Añorga, eta donostiarren etxean izandako porrotari (3-2) buelta eman beharko diote. Barkeroren mutilek galdu egin zuten joanekoa Rezolan, baina galduta ere bi gol egiteko gauza izan ziren, eta ez da horren emaitza txarra. Horrek esan gura du Agorrosinen partidua derrigor irabazi behar dutela, baina, behin hori eginda, euren atea ondo defendatzen badute kanporaketa ondo gaindi dezaketela.

UDAk, emaitzari dagokionez, errazago du kanporaketa gainditzea, Ibarran 2-0 irabazi zuen eta. Garaipenarekin batera atea hutsean mantentzea oso garrantzitsua izan zen, baina egia da,



Etxean jokatu du Bergarak. GOIENA

baita ere, Lesakan sufritzea egokituko zaiela.

**Mondrak, Kopa**

Euskaldunari irabazi eta gero, Touringen zelaian, Fanderian, jokatu du Mondrak Kopako kanporaketa (bihar, 16:30).

## ATLETISMOA Marka pertsonala egin du Ruiz de Azuak (4,47)

Zaragozan egin duten Ibercaca Ciudad de Zaragoza atletismo txapelketan lortu du Malen Ruiz de Azuak marka pertsonala egitea (4,47), eta neguan erakutsitako maila onari jarraipena ematen dabil aire zabalean ere. Maialen Axpe ere txapelketan izan zen, eta lesioaren ondoren konfiantza errekupeparen dabilera erakutsi zuen (4,12).

## PILOTA Rezustak domekan jokatu du Buruz Buruko lehena

Denboraldiko hirugarren txapelketa hastear dago, Buruz Burukoa. Enpresa bakoitzak, Aspek eta Baikok, sei lagunekoz zerrenda aurkeztu dute, eta Eibarko enpresaren zerrendan dago Beñat Rezusta. Bergarako pilotariak domekan jokatu du lehenengo kanporaketa, Bilbon, eta Bengoetxea VI.a izango du aurrean.

## KLUBAK Aholkularitza zerbitzua eskainiko die Mankomunitateak

Debagoieneko Mankomunitateko Kirol batzordeak aholkularitza zerbitzua eskainiko die ibarreko klubari. Zerbitzua doanekoa izango da, eta bi helburu nagusi ditu: kirol klubaren egoera legala, administratiboa eta fiskala eguneratzea eta erakunde publikoekin bete behar dituzten baldintzak betetzen laguntzea. Eta, bestetik, izapide adminis-

tratibo horiek egiten ere lagunduko dute.

Egitasmo horrekin, Mankomunitateko Kirol batzordeak aipaturiko beharra eta eguneratze beharra duten eskualdeko kirol klubari laguntza eskaini nahi die, euren egoera erregulartzeko. Hala, Mankomunitateko ordezkariak datozen egunotan eskualdeko herrietako klubekin jarriko dira harremanetan, egitasmoaren berri eman eta interesa dutenen izen-emateak jasotzeko.

# Labetik atera berria, Seminarixoko agertokian

Estreinako diskoa argitaratu du AMAK laukoteak, eta eskuragarri dago formatu fisikoan askotariko dendetan eta baita plataforma digitaletan ere; Seminarixoko aurkeztuko dute bihar, 19:00etan, baina agortuta daude sarrerak

## Aitziber Aranburuzabala BERGARA

Alaitz Telletxea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja eta Kristina Solano trikitilari eta pandero-joleek osatzen dute AMAK taldea. 2018ko Oñatiko trikiti jaialdian elkarrekin parte hartzeko gonbidapena jaso zuten, eta, harrezkero, kontzertu asko egin dituzte Euskal Herriko hainbat txokotan, baita Debagoienean ere.

Estreinako diskoa aurkeztu dute gaur komunikabideen aurrean, eta jendaurrean estreinatuko dute bihar, zapatua, Seminarixoko 19:00etan egingo duten emanaldian.

## Xabi Solanoren babesean

Hernaniko Anttonienea estudioan –Xabi Solanoren estudioan– grabatu dute, otsailean hasi eta Aste Santu bitarteko asteburuetan. "Bakoitzaren etxeko eta lan kontuak direla-eta denbora ez zegoen tokitik aterata eta alarma egoerak eragindako trabekin grabatu genuen. Alde horretatik, traba asko izan ditugu, baina guztiak gainditzea lortu dugu", azaldu du Maixa Lizarribarrek, eta zera gaineratu: "Xabi Solano izan da gure ekoizlea, teknikaria, zuzendaria, aholkularia eta gehiago. Ondo jakin du gu gidatzen, eta guretzako luxua izan da baldintza



Alaitz Telletxea, Amaia Oreja, Maixa Lizarribar eta Kristina Solano musikariak. AMAK

horietan diskoa grabatzea. Kolaborazio batzuk ere izan ditugu; gurekin izan dira Txus Aranburu, Zigor Lezeta, Arkaitz Miner eta Arkaitz Baztarrika".

## Zortzi abestitatik sei, berriak

Soinua eta panderoa jotzen dituzte, baina euren saioak ez dira erromeriak, eserita eta lasai entzuteko emanaldiak baizik, eta ezaugarri horiek ditu, Lizarribarren esanetan, argitaratu duten bildumak: "Gure erreperatorioan fandangoak, arin-arinak, balsak, kalejirak... daude, eta

diskoa bide beretik doa. Zortzi kantu dira; bi izan ezik, gainontzekoak berri-berriak".

36ko gerran fusilatutakoen omenez Olaberriako Olanaren elkartek enkargatutako kantua da aurrez erakutsi izan duten horietako bat, baina, orokorrean, diskoko gaiak "oso emeak" direla gaineratu du. "Gai batzuk bilatuak izan dira, beste batzuk ez hainbeste, baina, denak batera ikusi ditugunean, orokorrean bilduma oso emea dela konturatu gara: emakumea, ama, baserriko emakumea, euskara –hori

ere gure ama da...-. Lotura handia dute kantuek elkarren artean".

## Bergaran estreinaldia

Proiektua abiatu zutenean Bergarako Udalak egin zien lehen kontratua, eta Seminarixoko abiatuko dute, "ilusioz eta gogotsu", diskoaren aurkezpen kontzertuen bira ere. "Guk nahi baino lehenago heldu zaigu aurkezpenaren data. Martxoan hainbat kontzertu egin genituen, baina aurreko erreperitorioarekin, eta kantu-zerrenda osoa aldatzerik ez dugu izan; hortaz, Bergarara erreperitorio berria eramango dugu eta udako saioetarako moldaketak egingo dizkiogu gero. Zuzenekoetan dantzari bat izaten da gurekin taularen gainean. Pozik gaude sarrerak agortu egin direlako, nahiz eta lagun asko kanpoan geratu".

## Erronka sare sozialetan

Libre izateko eta pentsatzeko eskubidea aldarrikatzen duen *Gona gorria* kantua aukeratu dute bilduma aurkezteko. "Bideoklipa igo genuenean, sare sozialetan erronka bat abiatzea proposatu ziguten zaleek. Ana Goitia moda adituak eta *influencer*-ak konpromiso hori bere gain hartu zuen eta gona gorria jantzita ateratako argazkia *#Inorkiraindugabe* traola erabili sarreratzeko gonbidapena egin zuen. Politia izan da erantzuna eta oraindik ere parte hartzeko aukera duzue".

## Brodas Bros-en kaleko dantzen saioa, puntako teknologiarekin

'Around the world' ikuskizuna egingo dute Amaia antzokian etzi, domeka, 19:00etan

## A. Aranburuzabala ARRASATE

Lluc eta Pol Fruitos anaiek eta Berta eta Clara Pons ahizpek sortu zuten Brodas Bros kaleko dantzen konpainia, 2006an. Harrezkero, bidaia asko egin dituzte elkarrekin, eta horietan bizitakoak kontatzen dituzte *Around the world* lanean. "Herrialde askotan izan gara –Txinan, Brasilen, Palestinan, Ekuatore Ginean...– eta herrialde bakoitzak bere esentzia du; horregatik, estilo askotako koreografiak sortu ditugu. Energia handikoa da, publiko guztiarentzako", dio Lluc Fruitosek.

## Puntako teknologiarekin

Bost lagun dira taularen gainean, eta atzeko lanetan hiru teknikari. "Teknologiaren bidez egiten dugun dantzatutako bidaia dela esaten dugu guk. Ikuskizun oso matematikoa da, dena oso ondo neurtuta dago; izan ere, musikaren arabera mugitzen diren fokuak, laser teknologia, led argidun trajeak, alde biko pantaila, *Wii*-aren urrutiko agintearekin zuzenean egindako musika... Horiek guztiak daude gure ikuskizunean".

Kataluniakoak domekan izango dira Arrasaten. *Arrasate.eus* atarian eros daitezke sarrerak.

## JOXE MARI AIZEGA

BASQUE CULINARY CENTERREKO ZUZENDARIA

GOIENA TELEBISTA, 'HARIRA'

MAIATZAREN 18AN, MARTITZENA, 21:30EAN ETA 23:30EAN  
ENEKO AZKARATEK GIDATUTAKO ELKARRIZKETA SAIOA

goiena  
Zu hemen zaude.



Oñatiko musikari Iban Yanizek *Itzaletik argira* diskoa kaleratu du. IBAN YANIZ

# Urte askoan gordetako melodiak, argitara orain

Eskarmentu handiko musikari Iban Yanizek estreinako bakarkako 'Itzaletik argira' diskoa kaleratu du; gaurtik hasita, Elkar dendetan, Oñatiko Aranburu Margoak denda eta plataforma digitaletan dago hamar kantuko lan hori eskuragarri

## Aitziber Aranburuzabala OÑATI

17 urte zituela hasi zen gitarra jotzen Iban Yaniz; harrezkero, apenas dago gitarra eskuetan hartzen ez duen egunik. Komunikazio eta diseinu arloa du ogibide, baina luthier lanetan ere ibilitakoa da eta berak sortutako gitarra asko saldu ditu atzerrian.

Etxeko estudioa muntatu zuen orain dela 25 urte, eta hamaika melodia konposatu eta grabatu ditu han; horietako batzuk kantu bihurtu, eta *Itzaletik argira* bilduma kaleratu du orain.

## Erronka pertsonala

Diskoa eskuetan, pozik dago, helburua beteta. "Barruan nuen arantza kendu dut. Orain dela hiru urte hasi nintzen ideiarekin bueltara; Oñatiko musikari Iker Martinezek *Itzalen mundua* bakarkako lana argitaratu zuen eta izugarri gustatu zitzaidan. Oso ausarta iruditu zitzaidan, eta nire bildumatxoa sortzera animatu ninduen".

Hamar kantu lasai dira, americana rocka, indie eta folk alternatibo estiloetakoak; gitarra akustikoaren, gitarra elektrikoaren, baxuaren, dobroaren, mandolinaren eta pianoaren doinuekin osatutakoak. Instrumentuekin abila da, eta hitzak sortzea izan da erronka zailagoa. "Kantu pertsonalak dira, nahiz eta metaforen bidez ezkutatuta ge-


ratzen den batzuetan mezua. Bizipenak eta sentimenduak jasotzen dituzte oinarrian. Nireak dira guztiak, baina badago Joseba Sarrionandiaren poema baten oinarritutako *Maite ditut*".

## Dena etxean eginda

Aholkuak eta iritziak jasotzeko alboan izan ditu lagunak, baina berak egin du prozesu guztia, diskoaren azala eta liburuxka, eta baita *Samina* kantuen bideoklipa ere. "Ez da diskoaren singlea, esango nuke ez dagoela bereziki nabarmentzen den kanturik. Bideoa egiteko aproposa iruditu zitzaidan, eta hori ere etxeko estudioan egin nuen".

## Zuzenekoetarako "presarik ez"

Lagunekin hainbat kontzertu egin izan ditu, baina, oraingoz, ez du bere kantuak jendaurrean jotzeko presa handirik. "Aukerarik sortuz gero, nola eta norekin egin bilatu beharko nuke, baina, pausoz pauso, oraingoz, diskoaz gozatu dut".



## ITZALETIK ARGIRA

- **Egilea** Iban Yaniz.
- **Estiloa** Americana rocka, indiea, folk alternatiboa.
- **Autoekoiztua**

## Goiena Klubaren txokoa

### Goiena Klubeko maiatzeko sariak!



### Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Errigora

**ERRIGORA**

### Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

**ARRIKUTZ**

### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" (bakidearen zenbakia) 688 69 00 07 zenbakia. "goiena app"-a / zozketa atalean.

Indararen dagian LEPI 15/1999/egaren arabera, jakingarria dugu zure datu pertsonalari Goiena Komunikazio Zerbitzuaren "Marketing automatizatua" baten bidezko diria. Zure datuak horien helburu bakarra da indararen dagian sustapena garatzea. Eskubidea zango duzu daturatzen hartzea, hain zuzenbaki edo zuzenbaki, helbide honetan idatzita: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

### Irabazi bi lagunendako otordua

#### UNZUETA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta heritu parte!

Parte hartzeko ezken eguna: maiatzak 18



943 25 05 05



[kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)



"goiena app"-a / zozketa atalean.



KLUBA Jafetxea

(bakidearen zenbakia) 688 69 00 07 zenbakia.

### Irabazi bi lagunendako sarrerak

#### Arrasateko udalari esker

"Lurrun Minez" antzerkirako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amala Antzokia | Maiatzaren 23an | 19:00etan

### PARTE HARTZEKO: MAIATZAK 20

E-postaz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) Whatsapp: KLUBA "Antzerkiak" (bakidearen zenbakia) 688 69 00 07 zenbakia. "goiena app"-a / zozketa atalean. Parte hartzearen artean egingo da zozketa.

Indararen dagian LEPI 15/1999/egaren arabera, jakingarria dugu zure datu pertsonalari Goiena Komunikazio Zerbitzuaren "Marketing automatizatua" baten bidezko diria. Zure datuak horien helburu bakarra da indararen dagian sustapena garatzea. Eskubidea zango duzu daturatzen hartzea, hain zuzenbaki edo zuzenbaki, helbide honetan idatzita: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 30€

Deitu: 943 25 05 05 • [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**

Euskara irabazle, denok irabazle!

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Oñati.** Atikoa salgai Atzeko kalean. Bi logela, bainugela eta sukalde-egongela. 43 metro koadro. Horrez gain, 14 metro koadroko terraza, 10 metroko bi ganbara eta 12 metroko garajea. Prezioa: 200.000 euro. 605 72 64 43 edo 696 36 97 17

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Familia biki bat gara eta etxebizitza behar dugu errentan, prezio onean, ahal bada erdigunean. Beheko edo lehenengo solairua izan behar du. 680 87 38 66

**Bergara.** Hiru logela eta igogailua dituen etxebizitza errentan hartuko nuke. 660 46 34 93 (Marian)

**Udarako baserri bila.** Uztaila eta abuztua Debagoienerako baserri edo etxeren baten pasatu nahi dugun familia bat gara. Deitu zenbaki honetara: 666 68 43 37

## 105. ETXEAK OSATU

**Bergara.** Logela ematen da errentan, erdialdean. Etxe berria eta kanpora begira. 607 32 74 32

## 2. GARAJEAK

## 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Ibargarai kalean, ostiraletik astelehen goizera arte, garaje plaza bat ematen da errentan. Aparkatzeko oso erosoa eta prezio onean. 609 41 32 11

## 204.ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Erdigunean edo San Andresen garajea edo ganbara bat hartuko genuke errentan, prezio onean. 650 96 23 08

## 3. LOKALAK

## 301. SALDU

**Oñati.** Merkataritza-lokala saltzen da, Kale-zaharra kaleko 50. zenbakian. 110 metro koadro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 21 51 71

## 4. LANA

## ARRASATE

Sukalde laguntzailea behar da Meneta tabernan. 943 79 65 31

## 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Menpekotasuna duen 76 urteko emakumeari oinarritzko zereginetan eta irteeretan lagundu eta etxeko lanak egiteko emakumezko baten bila gabilta. Goizez, 3 orduz, eta menpekotasuna duten pertsonen laguntzeko ziurtagiri ofizialduna. Interesatuok jarri kontaktuan Whatsapp bidez, 15:00ak eta 21:00ak bitartean. Telefonoa: 680 61 96 99

**Bergara.** Adineko emakumea zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume bat kontratatu nahiko genuke. Egunez, eta astelehenetik ostiralera betetzeko lana izango da. 606 12 14 31

**Bergara.** Soziosanitario titulua duen neska euskalduna behar dugu, pertsona nagusia zaintzeko, Bergaran. Autoa ezinbestekoa. Informatzeko, idatzi Whatsapp mezua edo deitu zenbaki honetara: 629 55 58 08

**Antzuola.** Asteburuan autonomoa den pertsona nagusi bat zaintzeko emakumea behar da. Soziosanitario titulua beharrezkoa. 696 17 90 64

## 402. ESKAERAK

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan egin nahi dut, egunean zehar. Garbiketa lanetarako prest ere bai. 685 46 91 11

**Arrasate.** Emakume arduratsua lan bila. Ordeutegi aukera guztietan. Legezko agiri eta titulazioarekin. 685 22 54 01

**Bergara.** Emakume euskalduna, soziosanitario titulua daukana, eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan lan egiteko. 656 74 78 43

**Debagoiena.** Arratsaldetan, edo asteburu zein jai-egunetan zaintza lanak egiteko nituzke. Baita ere estetika arloan, titulazioa daukat-eta. Autoarekin. 631 98 15 50

**Debagoiena.** Egunean zehar nagusiak zaintzen, garbiketan edota sukaldean lan egingo nuke. Legezko agiri guztietan. 648 21 28 55

**Debagoiena.** Egunez garbiketak eta zaintza lanetarako prest nago. Astean zehar. Legezko agiriak. 673 71 15 27

**Debagoiena.** Emakume agertu jende nagusia zaintzeko arratsaldeaz. Zaintzaile tituluaarekin. 696 84 19 51

**Debagoiena.** Eraikuntzan, margotzen edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 604 27 26 52

**Debagoiena.** Esperientzia duen neska nagusiak zaintzeko gertu. Telefonoa: 602 31 98 60

**Debagoiena.** Esperientzia handia duen mutila gertu nagusiak zaintzen, denetarik garbiketak edo zerbitzari lanetan jarduteko. Ordeutegi aukera guztietan. 638 85 43 36

**Debagoiena.** Esperientzia handia duen neska gertu nagusiak zaintzen, denetarik garbiketak edo zerbitzari lanetan jarduteko. Ordeutegi aukera guztietan. 654 11 15 14

**Debagoiena.** Garbiketan eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 631 26 22 51

**Debagoiena.** Gazez edo orduka pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest nago. Soziosanitario titulua daukat. 659 90 85 13

**Debagoiena.** Gizona lanerako gertu: nagusiei kalera lagundu, mandatuak egin... Baita denetarik garbiketak egiteko ere: tabernak, atariak, baserriak eta abar. Edo banaketak. Autoa daukat. 645 72 92 87

**Debagoiena.** Gizona nagusiak zaintzeko edota atari eta abarrak garbitzeko gertu. Soziosanitario titulazioarekin. Telefonoa: 643 73 62 36

**Debagoiena.** Goizez zein arratsaldeaz, orduka, lan egiteko gertu nago. Soziosanitario, garbiketa eta sukalderitza formazioa daukat. 602 61 69 26

**Debagoiena.** Lan bila nabil: baserrian, nagusiak zaintzen, garbiketan eta abarrean. Garbiketa titulazioarekin. 632 28 52 37

**Debagoiena.** Mutil arduratsua lanerako gertu: eraikuntzan, lanbide astun zein arinetan, jostintzan, garbiketan, eta abar. Telefonoa: 612 28 05 29

**Debagoiena.** Mutila gertu etxean bizi izaten, egunez zein orduka lan egiteko. 633 49 27 40

**Debagoiena.** Mutila gertu margolari, igeltsero, elektrikari, administrari, zaintzaile edota garbitzaile moduan jarduteko.

Legezko agiriekin. Deitu 695 40 56 65 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaintzeko gertu arratsaldetan, gauetan edota asteburuetan egun osoz. Soziosanitario titulazioarekin. 612 49 66 57

**Debagoiena.** Nagusi zein haurren zainketan, etxe garbiketan edo animalien zainketan lan egiteko gertu gaude. 643 47 39 37 edo 643 47 42 33

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketetan lan egingo nuke. Ordeutegi arazo barik. 631 19 75 84

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketetan lan egingo nuke. Ordeutegi arazo barik. 632 37 65 40

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Egun osoz izaten bada ere, ondo. 626 91 49 04

**Debagoiena.** Neska arduratsua lan bila. Esperientzia daukat garbiketan, nagusiak edota

umeak zaintzen. Telefonoa: 678 12 28 56

**Debagoiena.** Neska gertu, astean zehar, gauzez eta asteburu eta jai egunetan, nagusiak zaintzeko. Soziosanitario titulazioa dut. 647 31 48 17

**Debagoiena.** Neska euskalduna lan bila: fabrikari, dendar, ostalaritzan, zainetan eta abar. Telefonoa: 656 79 28 37

**Debagoiena.** Neska gertu umeak eta nagusiak zaintzeko. Baita garbitzeko ere. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiriekin. Esperientzia eta gomendio gutunak. Autoa ere bai. 603 64 98 53

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Orduka, egunean zehar edo asteburuetan. 662 02 45 80

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke, erabateko prestasuna daukat. Telefonoa: 604 37 70 41

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan eta

garbiketa lanetan esperientzia handia daukat. 612 20 35 71

**Debagoiena.** Zaintzan lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten. Legezko agiriak dauzkatz. 602 12 79 79

## 8. DENETARIK

## 801. SALDU

**Lursailak.** Lursailak salgai eta errentan ematen dira Aretxabaletan. Telefonoa: 618 76 34 40

## 806. GALDU

**Lepokoa Arrasaten.** Lepokoa galdu nuen apirilaren 26an, astelehena, eguerdi aldean, Seber Altube, Arbolapeta, Munar, Fagor eta Zerrajera-rako ibilbidean. Gurutze formako txapa bat du, eraztun batekin. Ezkontza eguneko data eta Dori eta Monchu izenak agertzen dira atzean. Balio sentimental handia du. Sarituko da. Ikusi eta bilatu baduzu, eskertuko nuke BAZera eramatea edo deitzea: 657 19 84 41

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

## JOSE MARI AIZEGARI ELKARRIZKETA

*‘Harira’ Martitzena, 21:30 eta 23:30*



GOIENA

## ELIKADURA-SISTEMAK

*‘Debagoiena eraldatzen’ Eguena, 21:30 eta 23:30*

## EGUBAKOITZA, 14

08:00 Hemen da Miru 33  
08:30 Harmailatik  
09:00 EKT  
09:30 Galdegazte: Peru Abarrategi  
10:00 Hemen Debagoiena  
11:00 EKT  
11:30 Erreportajea: Goiena  
12:00 Hemen Debagoiena  
13:00 Hemen da Miru 34  
13:30 Elkarrizketa: Imanol Ubeda  
14:00 Hemen Debagoiena  
15:00 Albisteak  
15:30 EKT  
16:00 Albisteak  
16:30 Elkarrizketa: Imanol Ubeda  
17:00 Albisteak  
17:30 Harmailatik  
18:00 Hemen Debagoiena  
19:00 Parean pareko  
19:30 EKT  
20:00 Hemen Debagoiena  
21:00 Galdegazte: Peru Abarrategi  
21:30 Hala Bazan: Herriak  
22:00 Hemen Debagoiena

## ZAPATUA, 15

09:00 Galdegazte: Peru Abarrategi  
09:30 Hemen Debagoiena  
10:30 Parean pareko  
11:00 Asteko errepasoa  
11:30 Elkarrizketa: Imanol Ubeda  
12:00 Hala Bazan: Herriak  
13:00 Hemen Debagoiena  
14:00 Elkarrizketa: Imanol Ubeda  
14:30 Asteko errepasoa  
15:30 EKT  
16:00 Hemen Debagoiena  
17:00 Harira  
17:30 Galdegazte: Peru Abarrategi  
18:00 Harmailatik  
18:30 Hitzaldia: Maddi Barrere  
20:00 Erreportajea: Goiena  
20:30 Galdegazte: Peru Abarrategi  
21:00 Hemen Debagoiena  
22:00 Elkarrizketa: Imanol Ubeda  
22:30 Erreportajea: Goiena  
23:00 Harira  
23:30 Hemen Debagoiena

## DOMEKA, 16

08:00 Hemen da Miru 35  
08:30 Hemen da Miru 36  
09:00 Hemen da Miru 34  
09:30 Parean pareko  
10:00 Hitzaldia: Maddi Barrere  
11:30 Hemen Debagoiena  
12:30 Asteko errepasoa  
13:30 EKT  
14:00 Harira  
14:30 Erreportajea: Goiena  
15:00 Hitzaldia: Maddi Barrere  
16:30 Hemen Debagoiena  
17:30 EKT  
18:00 Harmailatik  
18:30 Hemen da Miru 36  
19:00 Hala Bazan: Herriak  
19:30 Galdegazte: Peru Abarrategi  
20:00 Hemen Debagoiena  
21:00 Harmailatik  
21:30 Asteko errepasoa  
22:30 Elkarrizketa: Imanol Ubeda  
23:00 Galdegazte: Peru Abarrategi

## ASTELEHENA, 17

## MU-REN IGOERA FASEAREN LABURPENA

## ‘Harmailatik’

21:30/23:30

## EGUAZTENA, 19

## IBIL BEDI TALDEARI ELKARRIZKETA

## ‘Elkarrizketa’

21:00/23:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: [goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista) Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## EGUAZTENA, 19



GOIENA

## ‘GOIENA OKM GIDA’

## ‘Hemen Debagoiena’

18:00/20:00/22:00

## EGUENA, 20

## ASTEBURUKO KULTURA AGENDARI ERREPASOA

## ‘Hemen Debagoiena’

18:00/20:00/22:00

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.

OROIGARRIA



**Kontxi Bedia Madinabeitia**

2016ko maiatzaren 14an hil zen, 69 urte zituela.

*Laster arte ezpainetan  
utzi gintuzun penetan  
orain gure ametsetan  
bizirik zaude benetan  
zeruko izarretan  
eta gure bihotzetan.*

Etxekoak, maitasunez.  
Arrasaten, 2021eko maiatzaren 14an.

OROIGARRIA



**Ion Mirena Errasti Alzelai**

2014ko maiatzaren 15ean hil zen.

*Zazpi urte pasau arren  
zu gure ondoan betiko.  
Oroitzen zaitugun artean  
gugan zara-ta biziko.*

Bergaran, 2021eko maiatzaren 14an.

OROIGARRIA



**Rosarito Lonbide Ezpeleta**

'Kattalin'  
Jose Erdabideren alarguna  
2021eko maiatzaren 6an hil zen.

*Bizitza luzia bihar izan dau  
zela, bestela, hainbeste egin?  
Indar eta kemenez beteko  
euskaldun emakume fin  
zenbat kontu ta barre algara,  
zenbat momentu atsegin!  
Hartu patxo bat gu danon partez  
eta ondo joan, Kattalin.*

Narbaiza-Erdabide eta Muruamendiaraz-Erdabide loibak.  
Bergaran, 2021eko maiatzaren 14an.

OROIGARRIA



**Andoni Galarraga Zuloaga**

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan ikaslea.

*Ikasle, irakasle eta zerbitzuetako langileok  
bat egiten dugu familiaren saminarekin.  
Beti gure bihotzetan.*



Getarian, 2021eko maiatzaren 14an.

ESKER ONA



**Maria Luisa Gallastegui Gabilondo**

Andoni Ugaldereen alarguna  
2021eko maiatzaren 6an hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko maiatzaren 14an.

ESKER ONA



**Rosario Lombide Ezpeleta**

Jose Erdabideren alarguna  
2021eko maiatzaren 6an hil zen, 93 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali  
dizkiguzuenoi,eskerrik asko, etxekoen izenean.

—

Ondra meza domekan izango da, maiatzak 16,  
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.  
Bertaratuko zaretenoi aldeaz aurretik eskerrik asko.

—

Gure bihotzean egongo zara betirako.

Bergaran, 2021eko maiatzaren 14an.

URTEURRENA



**Maritxu Guridi Egaña**

2020ko maiatzaren 16an hil zen, 93 urte zituela.

Urteurreneko meza larunbatean izango da, maiatzaren 15ean,  
19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren Eliza Nagusian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Oñatin, 2021eko maiatzaren 14an..

URTEURRENA



**Jabier Aguirrebarrena Ortiz**

2020ko maiatzaren 2an hil zen, 61 urte zituela.

*Beti gure bihotzean.*

—

Urteurreneko meza domekan, maiatzaren 16an,  
izango da, 12:00etan, Santa Marina parrokian.

Aldez aurretik, eskerrik asko etorriko zareten guztioi.  
Bergaran, 2021eko maiatzaren 14an.

URTEURRENA



**Jabier Agirreolea Uriarte**

2020ko maiatzaren 5ean hil zen, 83 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, maiatzak 16,  
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Bergaran, 2021eko maiatzaren 14an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

| ARRASATE EGUNEZ       |                                                    |
|-----------------------|----------------------------------------------------|
| Egubakoitza, 14       | ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15  |
| Zapatua, 15           | M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99       |
| Domeka, 16            | FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26              |
| Astelehena, 17        | IRIZAR: Ercilla 11 / 943 79 12 39                  |
| Martitzena, 18        | SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74     |
| Eguaztena, 19         | ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65 |
| Eguena, 20            | RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09          |
| BERGARA EGUNEZ        |                                                    |
| Egubakoitza, 14       | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05             |
| Zapatua, 15           | ESTELA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63                |
| Domeka, 16            | ESTELA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63                |
| Astelehena, 17        | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15                |
| Martitzena, 18        | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74     |
| Eguaztena, 19         | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87              |
| Eguena, 20            | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05             |
| OÑATI EGUNEZ BAKARRIK |                                                    |
| Egubakoitza, 14       | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22             |
| Zapatua, 15           | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22             |
| Domeka, 16            | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22             |
| Astelehena, 17        | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58              |
| Martitzena, 18        | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58              |
| Eguaztena, 19         | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28              |
| Eguena, 20            | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28              |

| ARRASATE GAUEZ EGUNEKO         |                                  |
|--------------------------------|----------------------------------|
| (22:00etatik 08:00etara)       |                                  |
| 2021eko abuztuaren 15era arte: | ETXEBERRIA: Zarugaile kalea / 38 |
|                                | / 943 77 16 30                   |

| BERGARA GAUEZ EGUNEKO    |                                 |
|--------------------------|---------------------------------|
| (22:00etatik 08:00etara) |                                 |
| 2021 osoan:              | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 |
|                          | 16 87                           |

Gipuzkoako farmazien egutegia  
esku izateko:  
COP Gipuzkoa aplikazioa  
deskargatu Google Play eta  
App Store dendetan.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05  
edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

Oroilore

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu


*Gure artean agurtutako  
guztiek euren bidea aurkitzen  
lagundu diegu, orain arte  
bezala, eta guztiek izango  
dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beroenak gugan  
izan duzuen konfiantzagatik  
eta maitasunagatik.*

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA  
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

## TXUTXU-MUTXUAK



## Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

### Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

### 1. Dantzak, kalera

Bergarako Musika Eskolakoek dantza giroa ipini zuten San Martin plazan: rokel dantza, axuri beltza, esku dantza, zortzikoa, sorgin dantza eta polka, besteak beste.

### 2. Rock doinuak "kolpatuz"

Ezpalak taldeak *Kolpatu*. *Topatu* diskoa aurkeztu zuen Bergarako Seminarixoan. Rock doinu dantzagarriz gozatu ahal izan zuten aretora joandakoek.

### 3. Lehen txapelketa

Oñatiko igerileku berrian lehen txapelketa jokatu zuten aurreko zapatuan. Sei taldetako igerilariak egon ziren; tartean, Aloña Mendiko igerilariak, eta entrenatzaileak.

### 4. Eskola txikiaren alde

Osintxuko Ponportola guraso elkartearen ekimenez egin zuten bigarren eskuko azoka, hirugarren goz. Arropak, gerrikoak, motxilak, jostailuak, liburuak... egon ziren salgai.

### 5. 50 urte ezkontuta

Juan Mari Errasti eta Mari Carmen Perez aretxabaletarrek urrezko ezteiak ospatu dituzte. "Zorionak, bikote! Besarkada handi bana, familiaren partetik".

### 6. Bihar ezkonduko dira

Aitziber eta Eneko arrasatearrak bihar, zapatua, ezkonduko dira. "Heldu da eguna, bikote! Disfrutatu zuen egunaz, eta izan zoriontsu, familiaren eta lagunaren partetik!".

ZORION AGURRAK



ARRASATE  
**Unax Gartzia Dorronsoro**  
Maiatzaren 20an, 12 urte. Zorionak, Unax! Gizontxo aparta bihurtzen ari zara. Muxu potolo bat etxeko guztion partetik!



ANTZUOLA  
**Aitziber Etxezarreta Mujika**  
Maiatzaren 20an, 8 urte. Urte askotarako, sorgintxo! Ondo pasatu eguna! Ainara, Elene, Aitor eta Iratiren partetik.



OÑATI  
**Iraitz Urteaga Martin**  
Maiatzaren 19an, 9 urte. Zorionak, Iraitz! Ondo-ondo pasatu zure egunian, etxekoen partetik.



ARRASATE  
**Jone Axpe eta Ane Iria**  
Maiatzaren 18an, 18 urte. Sorpresa! Zorionak, bikote! Muxu bat kuadrillaren partetik eta disfrutatu eguna. 'Us estimem molt'!



ARETXABALETA  
**Erik Oribe**  
Maiatzaren 18an, 30 urte. Zorionak, tio Erik! Jada 30 urte borobil! Besarkada handi bat Bergarako familiaren partetik; bereziki Kenar eta Alaine. Maite zaitugu!



OÑATI  
**Maider Arenaza Arriaran**  
Maiatzaren 16an, 3 urte. Zorionak, Maidertxu! Hiru urtetzar jada. Patxo handi-handixak zuretzat!



BERGARA  
**Aimar Osa Jimenez**  
Maiatzaren 16an, 12 urte. Zorionak eta urte askotarako, Aimar! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Patxo eta besarkada handi bat guztion partetik!



OÑATI  
**Unai Askasibar Herrera**  
Maiatzaren 16an, 11 urte. Zorionak, Unai! Ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat familixa danaren partetik. Bereziki aitatxo eta amatxo.



ARRASATE  
**Anje Berasategi Sierra**  
Maiatzaren 14an, urtebete. Zorionak, txiki! Familixakun partetik muxu eta besarkadaik beruena!



BERGARA  
**Unax Aldanondo Eriz**  
Maiatzaren 14an, 4 urte. Zorionak, maitxia! Ondo-ondo ospatu zure eguna! Besarkada eta patxo potolo bat familixa osoaren partetik!



ARRASATE  
**Izar Saizar Cazalis**  
Maiatzaren 14an, 8 urte. Zorixonak, maitia! Edartotxu pasatu zeure egunian. Maite zaitugu! Aita, Ane, Itxaso eta ama.



OÑATI  
**Lur Biain Aranburuzabala**  
Maiatzaren 14an, 13 urte. Zorionak eta urte askotarako, Lur! Jarraitu orain arte bezain jator eta alai!



BERGARA  
**Ager Esnaola Tello**  
Maiatzaren 13an, 5 urte. Zorionak etxeko artista txikiari! Egun ederra pasa dezazula eta aurtan bai, denok batera ospatzeko aukera izango degu. Mila patxo eta 'abrazito' zuretzat!



ARETXABALETA  
**Marisol Berasaluze Garcia-Etxabe**  
Maiatzaren 13an, 66 urte. Zorionak, amama Xol! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu!



ARRASATE  
**Danel Garcia Salaberri**  
Maiatzaren 12an, 7 urte. Zorionak, maitia! Azkenian heldu da zure urtebetetze eguna! Muxu potolo pila etxeko danon partetik. Jarraitu halako mutiko alai eta jatorra izaten!



OÑATI  
**Hegoi Aranburu Zabaleta**  
Maiatzaren 11n, 5 urte. Zorionak, maitia! Bost urtetzar ja! Patxo potolo-potolo pila bat zeure familixiaren partetik! Askio maitte zau!



OÑATI  
**Noa Urtaza**  
Maiatzaren 11n, 8 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo erraldoi bat etxeko danan partetik!



ARETXABALETA  
**Laida Eraña Larrea**  
Maiatzaren 11n, 10 urte. Zorionak, Laida! 10 urte! Ze handi ein zaren! Muxu handi-handi bat etxeko danon partetik!



BERGARA  
**Izan Medina Soria**  
Maiatzaren 11n, 4 urte. Zorionak, *bitxito*. Oso ondo pasatu eguna amatxo, aitatxo, Nahia eta familiako guztion partetik. Askio maite zaitugu.



BERGARA  
**Noelia Murillo**  
Maiatzaren 11n, 46 urte. Zorionak, *sister*! Primeran pasatu eguna. Luca eta etxekoen partetik.



ARETXABALETA  
**Jon Altube Porras**  
Maiatzaren 10ean, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Jarrai dezazula bizitzaz gozatzen eta, txikitatik egin dezun bezala, inguruan daukazu jende guztiari zeure poztasuna kutsatzen. Gu ere transmititzen diguzun zoriontasun hori zabaltzen saiatuko gara. Askio maite zaitugu!



OÑATI  
**Helene Erle Agirre**  
Maiatzaren 9an, 6 urte. Zorionak, maitte! Jada sei urte. Zein handi! Segi beti bezala zure irribarriarekin inguruak alaitzen! Patxo handi bat Peruren eta familixa danaren partetik. Askio maite zaitugu!



OÑATI  
**Manex Iraeta Jaso**  
Maiatzaren 9an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo bat etxeko danon eta, bereziki, Oxelen partetik.



ARRASATE  
**Mario Andres**  
Maiatzaren 8an, urtebetetzea. Zorionak, aitatxo! Kriston pila maite zaitugu! Mundiala zara!



ARETXABALETA  
**Danel Luengo**  
Maiatzaren 7an, 21 urte. Zorionak, *txabalote*! Ondo pasatu zure eguna, kuadrilla danaren partetik. Patxo bat.



OÑATI  
**Lucas Pavlov**  
Maiatzaren 7an, 9 urte. Zorionak, Lucky! Ondo-ondo ospatu egun handi hau! Askio maite zaitugu!




ARETXABALETA  
**Enaitz Pastor Alonso**  
Maiatzaren 7an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo ospatu zure eguna. Patxo erraldoi bat danon partetik



ARETXABALETA  
**Julen Irizar Akizu**  
Maiatzaren 6an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ospatu eguna eta besarkada handi bat Alaitzen eta etxeko danon partetik!



OÑATI  
**Aimar Ferreira Garcia**  
Maiatzaren 6an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat, familixa danaren partetik.



ARRASATE  
**Olatz Zuazubiskar Iñarra**  
Maiatzaren 6an, 19 urte. Zorionak, Olatz! Gure pixuko artistaren urtebetetzia be ederto ospatuko! Osteguna, pintxopota eta zeure eguna. Muxu handi bat hiruron partetik!



ARRASATE  
**Maria Garcia Sanchez**  
Maiatzaren 5ean, 30 urte. Zorionak, Maria! Oso ondo pasatu zure eguna, *guapa*! Muxu asko familiako guztien partetik.



BERGARA  
**Enara Gisasola Sevillano**  
Maiatzaren 14an, 11 urte. Zorionak, Enara! Aurtan bai; 11 urtiak primeran ospatuko ditxugu danok elkarrekin. Askio maite zaitugu.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 14

**OÑATI Odol ateratzea**

Aurrez hartu beharko da txanda. Donostiatik mezua jaso dutenek egunean bertan deitu beharko dute ordua jakiteko. Besteek egunean bertan deitu beharko dute 943-00 78 84 telefonora.  
*Enpresagintzan, 16:30ean.*

**ESKORIATZA 'Valentina' pelikula**

Zinegoak 2021eko pelikularen emanaldiaren ostean, Hiruki Larrosa Kolektiboko kide Joseba Gabilondorekin solasaldia.  
*Zaldibar antzokian, 18:30ean.*

**ANTZUOLA 'Abeltzaintza birsortzailea' hitzaldia**

Ilturbaltz ustiatetik Unai Alsa abeltzainak egingo du berba.  
*Torresoroan, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Eman Zesarri Zesarrena' liburuaren aurkezpena**

Ekitaldian egongo dira Joxe Iriarte *Bikila* egilea eta Juan Ramon Garai editorea, Julia Mongek aurkeztuta.  
*Kulturaten, 18:30ean.*

**ARAMAIO Alex Mendikuteran argazki erakusketa**

Kutxa Bira ekimenean eta Marboaren 8an egindako argazkiak.  
*Kultura etxean, 18:30ean.*

**BERGARA 'Artiko' filmaren aurkezpena eta emanaldia**

Jesus Mari Lazkano egilea egongo da ekitaldian. Emanaldi bikoitza. 19:00etarako ez dago sarrerarik.  
*Seminarixoa, 19:00etan eta 20:00etan.*

**ARETXABALETA 'Granito Buffet. Vagabundos pirenaicos' ikus-entzunezkoa**

Iñigo Iruretagoienak eta Iban Roucok Pirinioetako 214 hiru milakoak igotzeko egindako bidaia. Sarrerak, hiru euro.  
*Arkupen, 19:00etan.*

**ELGETA Batzarra nerabeekin**

11-14 urte artekoekin, ikasturte berriko ildoak zahazten hasteko.  
*Espaloian, 19:15ean.*

## ZAPATUA 15

**ANTZUOLA San Isidro eguna**

Goizean, artisau eta ekoizleendako azoka; eta 18:30ean, bertso saioa. Onintza Enbeita, Alaia Martin, Maialen Arzallus eta Oihana Iguaran oholtza gainean.  
*Herriko Plazan, 09:00etan.*

**ARRASATE Baserritarren azoka**

Arrasateko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.  
*Seber Altube plazan, 09:00etan.*

**ARRASATE 'Historiaurrea: Lezetxiki' bisita gidatua**

09:30ean euskaraz eta 10:30ean gazteleraz.  
*Garagartza auzoko plazan, 09:30ean.*

**ARRASATE Arrazakeriaren eta pribilegio zuriaren gaineko hausnarketa**

Arrasateko Mugimendu Feministaren eskutik, herriko emakume guztiendako irekia.  
*Kulturaten, 11:00etan.*

**ARETXABALETA 'Ama lurra zaintzen' erakusketa**

Hizkuntza indigenei buruzko bilduma, hilaren 31ra arte.  
*Arkupen, 11:00etan.*

**ARRASATE Ludoteka ibiltaria Erguinen**

Azken saioa egingo dute 3-12 urte artekoendako. Aurrez eman behar zen izena.  
*Itxaropena plazan, 11:30ean.*

**ANTZUOLA Sinadura bilketa eta kamiseta salmenta**

Gure Esku dinamikaren ekimena, *Altxa Debagoiena!* leloarekin.  
*Herriko Plazan, 11:30etatik aurrera.*

**ARRASATE Apalatxe taldea**

Aritz Irastortza buru duen taldearen kontzertua. Sarrerak, hiru euro.  
*Gaztetxean, 18:00etan.*

**BERGARA AMAK taldearen kontzertua**

Disko berria aurkeztuko du. Sarrerak, zortzi euro.  
*Seminarixoa, 19:00etan.*

**BERGARA '40 urte eta aldapan behera niek' bakarriketa**

*Txiki*-ren saioa, Txapa Irratiaren eskutik. Sarrerak, bost eurotan, ekitaldia hasi aurretik.  
*Kartzela zaharrean, 19:00etan.*

## DOMEKA 16

**ARRASATE Sormen laborategia, Eñaut Elorrietarekin**

15-25 urte artekoendako, Ttak-en eta Txatxilipurdiren eskutik.  
*Arrasaten, 10:00etan.*

**OÑATI Rap tailerra, La Furia musikariarekin**

Oñatiko Sare Feministaren eskutik, ahalduntze feminista lantzeko tailerra.  
*Oñatin, 10:30ean.*

**ARRASATE 'Cómo conseguir la residencia como arraigo' hitzaldia**

SOS Arrazakeriak taldearen eskutik, Aniztasun Astearen baitan. Lege aldaketa izan denez, horixe bera azalduko dute.  
*Emakume Txokoan, 11:00etan.*

**ESKORIATZA Mendi irteera gaztelekuko erabiltzaileendako**

Herriko elizateetan zehar ibiliko dira. 20:00etarako gaztelekuan egongo dira bueltan.  
*Gaztelekuan, 17:00etan.*

**ARRASATE 'Around the world' dantza ikuskizuna**

Brodas Bros taldearen emanaldia. Aurreko ikuskizunetako piezarik esanguratsuenak emanaldi bakarrean batu dituzte. Sarrerak, hamar euro.  
*Amaia antzokian, 19:00etan.*

**ESKORIATZA 'Erradikalak ginen' antzezlan**

Ane Labaka bertsolariarekin eta Beatriz Egizabal antzerkilariarekin. Sarrerak, bost euro.  
*Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

**ARETXABALETA Zinegoak emanaldia**

*Escames, On my way* eta *Carne* film laburrak emango dituzte. Sarrerak, hiru euro.  
*Arkupen, 19:00etan.*



BRODAS BROS

**ARRASATE 'Around the world' dantza ikuskizuna**

Brodas Bros taldearen emanaldia. Aurreko ikuskizunetako piezarik esanguratsuenak emanaldi bakarrean batu dituzte. Dantza, argiak, teknologia eta musika bateratzen dituen ikuskizuna. Sarrerak, hamar euro.  
*Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 17

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.  
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.  
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.  
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko.  
*San Martin plazan, 12:00etan.*

**ARRASATE Kooltur Domekak**

Lie Detectors taldearen kontzertua. Sarrerak, hiru eurotan, aurrez erreserbatuta.  
*Gaztetxean, 13:00etan.*

**ARRASATE Aniztasun funtzionalari buruzko hitzaldia**

Goyeneche Fundazioaren eta AMSren eskutik. Edukiera mugatua.  
*Kulturaten, 17:30ean.*

**BERGARA 'Euskararen plaza hutsa' saioa**

Euskarari eta euskalgintzari arnas berria emateko proposamena aurkeztuko du Euskararen Plaza Hutseko kide Xabier Iraolak.  
*Olaso dorrean, 18:30ean.*

## MARTITZENA 18

**ANTZUOLA Odola emateko aukera**

Udako oporren aurreko azken deialdia. Hurrengoa irailean egingo dute.  
*Olaran etxean, 16:30ean.*

**OÑATI Gitarra entzunaldia**

Jose de Azpiazu Musika Eskolako ikasleen eskutik.  
*Santa Ana antzokian, 17:30ean.*

**BERGARA 'Basoak' hitzaldia**

Kukubaso elkartearen eskutik.  
*Seminarixoa, 18:30ean.*

**OÑATI Psikologia irakurle**

**tailerra: ikasturteko azkena**  
Michel Gondry idazlearen *El eterno resplandor de una mente sin recuerdos* liburuaren gaineko saioa, Silvina Fondrak gidatuta.  
*Liburutegian, 18:30ean.*

**BERGARA Kukubaso elkartearen aurkezpena**

Ekitaldian egongo dira Kukubaso elkartearen presidentea Ainhoa Agirrebeña, Naturkon-eko kide Aitziber Sarobe eta Biologian doktore Kiko Alvarez.  
*Seminarixoa, 18:30ean.*

**ARRASATE 'The chocolate case' pelikula**

Ostean, solasaldia, Arabako Medicus Mundiko komunikazio arduradun Itsaso Sanchezekin.  
*Amaia antzokian, 19:00etan.*

**OÑATI 'Peregrino modernoaren oporrak' dokumentala**  
Turismoaren gaia jorratzen duen dokumentala, Aimar Uribesalgok egindakoa.  
*Zinema aretoan, 19:00etan.*

**EGUAZTENA 19**

**ELGETA Garbigune ibiltaria**  
Herritarrek utzitako materiala batuko dute.  
*Salbador kalean, 10:00etan.*

**ARRASATE Sasoibide irteera, mendira**  
Momentuan bertan erabakiko dute nora joan.  
*Seber Altuben, 16:00etan.*

**OÑATI Johannes Feest ikertzailearen hitzaldia**  
Oñatiko Lege Soziologia Institutuko zuzendari izan zeneko bizipenak gogora ekarriko ditu, eta penologiaz ere berba egingo du.  
*Online, 17:30ean.*

**BERGARA 'Ludopatía: cuando ya no es un juego' hitzaldia**  
Jokalaria Anonimoen Elkarteko psikologo Karmele Gurrutxagak egingo du berba, gazteleraz.  
*Irizar jauregian, 18:30ean.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka**  
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.  
*Oxirondon, 18:00etan.*

**OÑATI 'Peregrino modernoaren oporrak' dokumentala**  
Turismoaren gaia jorratzen duen dokumentala, Aimar Uribesalgok egindakoa.  
*Zinema aretoan, 19:00etan.*

**EGUENA 20**

**ARRASATE Sasoibide irteera**  
Apotzagainerainoko joan-etorria egingo dute. Garibaiko autobus geltokian elkartuko dira, 09:30ean.  
*Garibain, 09:30ean.*

**ESKORIATZA Erretiratuen elkarteko batzar orokorra**  
Estatutuetan egin beharreko aldaketa bat onartu ostean, ohiko

gaiak landuko dituzte: arlo ekonomikoa eta kultura arloa, besteak beste.  
*Zaldibar antzokian, 17:30ean.*

**ARRASATE Ipuin kontaketa**  
Bibliotekaren eta Ekin Emakumeak Elkartearen eskutik.  
*Kulturaten, 18:00etan.*

**ARRASATE 'Lo que no se dice del COVID. Libertad y derechos humanos' hitzaldia**  
Valentin Zurbanok egingo du berba, gazteleraz.  
*Kulturaten, 18:30ean.*

**BERGARA 'Hezkuntzako plaza hutsa' saioa**  
Plaza Hutseko kide Ibai Redondok eta Txatxilipurdi Elkarteko kide Amaia Etxabek gidatuko dute saioa.  
*Irizar jauregian, 18:30ean.*

**BERGARA 'Una joven prometedora' pelikula**  
Emerald Fennell zuzendariaren filma. Sarrerak, hiru euro.  
*Seminarixoan, 18:30ean.*

**EGUBAKOITZA 21**

**OÑATI 'Beita' antzezlan**  
**-sarrerak agortuta-**  
Xup antzerki taldearen bigarren lana. Emanaldi bikoitza egingo dute: 18:00etan eta 19:30ean.  
*Santa Anan.*

**ARRASATE Bideo emanaldia eta mahai ingurua**  
Ekinek egindako *Bi lurrealdean artean* bideoa aurkeztuko dute.  
*Kulturaten, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Zinegoak 2021**  
*Leo y Alex en pleno siglo XXI, Mall, Karaokea, La amante, Red bay* eta *Hemen, gaur, berriz* film laburrak emango dituzte.  
*Zaldibar antzokian, 18:30ean.*

**ARETXABALETA 'Granito Buffet. Vagabundos pirenaicos' ikus-entzunezkoa**  
Iñigo Iruretagoienak eta Iban Roucok Pirinioetako 214 hirumilakoak igotzeko egindako bidaia. Sarrerak, hiru euro.  
*Arkupen, 19:00etan.*

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

**Una joven prometedora**  
Zapatua eta astelehena: 19:00.  
**Earwing y la bruja**  
Zapatua: 16:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

**Quo vadis, Aida?**  
Domeka eta astelehena: 18:30.  
**Kapitain sablehorts eta diamante magikoa**  
Domeka: 16:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

**Aquellos que desean mi muerte**  
Egubakoitzetik astelehenera: 19:00.

GASTEIZ

BOULEVARD

**Este cuerpo me sienta de muerte**  
Zapatua eta

domeka: 16:00, 18:00, 20:00.  
Egunero: 17:00.  
**El señor de los anillos. El retorno**  
Egunero, martitzena izan ezik: 18:00.

**Ilargi guztiak**  
Zapatua eta domeka: 16:00, 18:00, 20:00.  
Egubakoitza eta astelehenetik egunera: 17:00, 19:00.

**Barbie y Chelsea**  
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:00.  
Egubakoitza eta astelehenetik egunera: 17:00, 18:30.

**Borrar el historial**  
Egunero, martitzena izan ezik: 17:15, 19:40.  
Martitzena: 19:40.

**Billie Eilish**  
Egubakoitza: 18:00.

**El olvido que seremos**  
Egubakoitza eta astelehenetik egunera: 19:15.  
Zapatua eta domeka: 18:30.

**Guardianes de la noche**  
Egubakoitza: 17:00.  
Egubakoitza eta zapatua: 19:20.

**Una joven prometedora**  
Zapatua eta domeka: 16:00.  
Astelehenetik egunera: 17:30.

**Upsss!**  
Egunero: 16:00.

**Tiburón blanco**  
Egunero: 17:15.

**Nomadland**  
Egubakoitza eta zapatua: 19:15.

**Nadie**  
Egunero: 20:00.

**Aquellos que desean mi muerte**  
Egunero, egubakoitza izan ezik: 19:50.  
Egubakoitza: 17:00.

**Chaos walking**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:30.  
Astelehenetik egunera: 17:00.

**Godzilla vs Kong**  
Egubakoitza eta zapatua: 19:30.

**Motal combat**  
Egunero, egubakoitza izan ezik: 17:00.

GORBEIA

**Raya y el último dragón**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:50.  
Domeka: 12:00, 17:50.

**Nomadland**  
Egubakoitzetik domekara: 17:45.  
Astelehenetik egunera: 17:30.

**Tom y Jerry**  
Zapatua: 16:35.  
Domeka: 12:00, 16:35.

**Mortal combat**  
Egubakoitzetik domekara: 20:05.  
Astelehenetik egunera: 20:00.

**Una joven prometedora**  
Egunero: 20:00.

**Earwing y la bruja**  
Zapatua: 16:45.  
Domeka: 12:00, 16:45.

**Nadie**  
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:25.  
Astelehenetik egunera: 17:30.

**Chaos walking**  
Egubakoitzetik domekara: 18:30.

Astelehenetik egunera: 17:30.  
**Capitán Diente de Sable y el diamante mágico**  
Zapatua: 16:40.  
Domeka: 12:00, 16:40.

**Tiburón blanco**  
Egubakoitza: 20:30.  
Zapatua: 16:40, 20:30.

Domeka: 12:00, 16:40, 20:30.  
Astelehenetik egunera: 20:00.

**Aquellos que desean mi muerte**  
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 20:00.  
Astelehenetik egunera: 17:30.

**El olvido que seremos**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:40.  
Domeka: 12:00, 17:00, 19:40.  
Astelehenetik egunera: 19:40.

**Ilargi guztiak**  
Egubakoitza eta zapatua: 18:20, 20:20.  
Domeka: 12:00,

18:20, 20:30.  
Astelehenetik egunera: 17:30, 20:00.  
**Borrar el historial**  
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:05.

EIBAR

COLISEO

**Aquellos que desean mi muerte**  
Zapatua: 16:00.

**Borrar el historial**  
Zapatutik astelehenera: 19:00.

**Una joven prometedora**  
Domeka: 16:00.

**El olvido que seremos**  
Zapatua eta domeka: 16:00, 19:00.  
Astelehena: 19:00.

ANTZOKIA

**Barbie y Chelsea**  
Zapatua eta domeka: 16:00.

**Ilargi guztiak**  
Zapatua, domeka eta astelehena: 19:00.

KRITIKA

**Quo Vadis, Aida?** ★★★★★  
**Zuz.:** Jasmina Sbanic. **Herr.:** Bosnia eta Herzegovina (2000). **Aktoreak:** Jasna Djuricic, Izudin Bajrovic, Boris Ler.

Kolektibitatea eta banakotasuna

ANTONIO ZABALA

*Quo vadis, Aida?* filman, 1995. urtean armada Serbiarrak Srebrenica herrian burututako sarraskiaren kronika egiten da. Serbiarrak herrira iritsi zirenean, hango biztanleek, babesa aurkitu nahian, NBE-k zuten instalazioetara jo zuten. Batzuek barrura sartzea lortu zuten, baina denontzat tokirik ez zegoenez, beste batzuk kanpoan geratu behar izan zuten. Dena den, armada, kanpoan eta barruan zeuden pertsonen bila joan zen. Filman, alde batetik, gertatutakoaren begirada orokor bat egiten da: serbiarren indarkeria, biztanleen babes eza eta NBE-ren koldarkeria. Beste alde batetik, familia baten istorioa kontatzen du. Aidak, gatazkan horretan, interprete lanak egiten ditu. Senarra eta bi seme ditu, eta ahal duen neurrian, familia salbu



jartzen ahaleginduko da. Hor ikusiko dugu, gizakiok, bizirik irauteko daukagun zena. Bizi duen egoera basati eta irrationala, erlojuaren eta osagaien kontrako lasterketa bihurtuko da Aidarendako. Zuzendariak lan ona egiten du filmaren bi alderdiak kontatzeko. Kementsu baina neurria galdu

barik. Bosniarren itoaldia, serbiarren portaera nazkagarria, NBE-ren axolagabekeria, eta familia baten eta, batez ere, Aidaren bideturutzak ondo baino hobeto azaltzen ditu. Kolektibitatea eta banakotasuna ondo batzen ditu gudaren krudeltasuna, zentzugabekeria, eta sufrimendua adierazteko.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

## Nora begiratu

Kataluniako Barne sailburuak, bi aste dela –aurreko igandeko jende pilaketen aurretik–, ondokoa esan zuen TV3 telebista publikoan pandemiari buruz hitz egiterakoan: "Astebururo daude legez kanpoko festak, baina portaera hori gutxiengo batena da; herritarrak gobernuak ezarritako neurriak betetzen ari dira".

Iruditzen zait Euskal Autonomia Erkidegoan betetze-maila antzekoa dela. Hala ere, horrelako komentarioak EAEko Segurtasuneko sailburuaren aldetik pentsaezinak dira. Ez lirateke bat etorriko komunikabide publikoen ohiko praktikarekin: informatzen dute legez kanpoko jai eta arau-hausteei buruz eta, segidan, agertzen dute infekzioek gora egin dutela edo maila altuan daudela.

Adituek faktore gehiago hartzen dituzte kontuan egoera azaltzeko –egoera larria, bereziki, aurreko asteetan–. Aldagai horien artean dago, adibidez, txertatze abiadura motela. Zer pentsatuko genuke aipatutako medioek infekzio tasa altuak erakutsi aurretik esango balute txertatze portzentajea inguruko erkidegoetan baino baxuagoa dela? Hori behin eta berriz errepikatuz gero, gizarteak beste leku batera ere begiratuko luke.

BUKATZEKO

# Mendizorrotzan esatari lanetan egun batez

Mikel Zumalde gazte aretxabaletarra Alavesen eta Levanteren arteko partiduko 'speaker'-a izan zen joan den zapatuan; horretan 23 urte baino gehiago daramatzan Gorka Etxabe osaba ordezkatu zuen, eta talde babazorroa "gogotsu" animatu

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Mendizorrotzako zirrikituak ondo baino hobeto ezagutzen ditu Mikel Zumalde (Aretxabaleta, 1999). Izan ere, Alavesen etxeko partiduetako esatari Gorka Etxabe osabak umetan erakutsi zion harako bidea. Eta joan den zapatuan, osaba ordezkatzeko "ohorea" izan zuen: "Partidu profesional batean, Alavesentzat hain garrantzitsua zen partiduan, *speaker* jardutea izugarria izan zen". Levanteren aurka puntu bakarra eskuratu bazuen ere Gasteizko taldeak, ezin beteago itzuli zen: "Lo hartzea ere kosta egin zitzaidan egun hartan".

**"Naturaltasuna" da gakoa**

Alavesen zale amorratua da, eta hori etsai ere izan zitekeela bazekien, denboraldia bukatzeaz dela hil ala biziko partidua ditutela eta guztiak talde babazorroak: "Hasiera makalaren ostean sartu zuten gola, eta irabazten hasi ziren. Banekien neure burua kontrolatu beharra nuela, eta horretan ahalegindu nintzen".

Mikrofono aurrean naturaltasuna dela gakoa uste du: "Esan beharrekoa irakurri egiten da, baina garrantzitsua da, adibidez,



Mikel Zumalde, esatari lanetan joan den zapatuan Mendizorrotzan. MIKEL ZUMALDE

geldiuneak ondo egitea eta indarra jartzea hitz zehatz batzuetan. Eta gero, praktikatzeko hasi aurretik; ahotsa berotzen jardun nuen ordubete inguruz".

Etxabek ez zuen zapatuan partiduan egotarik izan lan kontuen-

gatik: "Klubarekin hitz egin, eta onartu egin zuten Mikel izatea. Idatzitakoa erakutsi zidan hark, eta txikikeriak bakarrik aldatu nizekion. Aparteko gomendiorik ere ez nion eman; Mikelek badu sena horretarako".

**Zubi-lanaren ardura**

Bigarren B Mailan ezagutu zuen taldea Zumalde, eta Lehen Mailarako igoera bizi izan du harekin: "Alaves-zalea zinela esatea bekakoa zen sasoi hartan gure inguruan, eta orain, hamar-hamabost bat laguneko taldetxoak sortu da Aretxabaletan". Zaleentzat zein taldearentzat denboraldi gogorra izaten dabil, mailari eusteko borroka betean: "Iaz, kostata eutsi zitzaion mailari, eta aurten ere antzera gabiltza".

Pandemiak hustu egin ditu futbol zelaietako harmailak. Zaleen berotasuna, oster, talde guztientzat da garrantzitsua, eta, Alavesen kasuan, ezinbestekoa: "Jokalariek eurek ere sarri esan izan dute indarrak gabe geratzen direnean zaleen orroen bultzadarekin aurrera egiten dutela", dio Zumalde, eta Etxabek gaineratu du: "*Traulza* taldeak bideratutako olatua garrantzitsua izan da azken urteetan. Nik sarri esan izan dut izugarri igaritzen ditudala faltan". Eta zaleen eta jokalarien artean zubi-lanak egiten dituen esataria dela dio Zumalde: "Ikusleek hartu-eman zuzena dute horrekin; gola sartzerakoan, esaterako, jokalaria-zen izena esaten du *speaker*-ak, eta zaleek abizenarekin erantzun". Etxabek gaineratu du: "Era berean, klubaren ahots ofiziala gara zaleen aurrean".

Kazetaritza ikasketak bukatzen dabil Zumalde, eta kirol munduan sartu gurako luke muturra. Dena den, esatari jardunari ez dio muzinik egiten. Hala, San Mamesen ere egin zuen proba bat iaz. "Joan den zapatuan publikorik gabe ere izugarri gozatu nuen; hortaz, pentsa harmailak zalez beteta egon izan balira...".

## 'DEBAGOIENA ERALDATZEN'

**GOIENA TELEBISTA**

MAIATZAREN 20AN, EGUENA, 21:30EAN ETA 23:30EAN  
ELIKADURA SISTEMA BERBAGAI

**goiena**  
Zu hemen zaude.

